- 2.4. Jarduteko prozedurak
 - 2.4.1. Banakako babes-ekipoak erabiltzeko irizpideak
 - 2.4.2. Lanpostuen araberako zehaztapena
 - 2.4.3. Banakako babes-ekipoak aukeratzea
 - 2.4.4. Ekipoak erabiltzaileei banatzea
 - 2.4.5. Ekipoak erabiltzea eta mantentzea
 - 2.4.6. Informazioa eta formazioa: betebeharrak
 - 2.4.7. Erabiltzaileen betebeharrak
 - 2.4.8. Enpresa azpikontratatuak
- 2.5. Zuzenketarako eta hobekuntzarako ekintzen jarraipena
- 2.6. Erreferentziako dokumentuak
- 2.7. Eranskinak

Eranskinak

- 1. eranskina. Banakako babes-ekipoak erabiltzea eska dezaketen jardueren eta jarduera-sektoreen zerrenda
- 2. eranskina. Banakako babes-ekipoen ebaluaziorako jarraibide orokorrak
- 3. eranskina. Banakako babes-ekipoen erregistrorako plantilla

 <p>ematen ta zabait zaku</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/7</p>
--	---	---

2.1. Helburua

Prozedura honen xedea da oinarrizko arauak finkatzea zenbait eginkizun segurtasunez gauzatzeko behar diren banakako babes-ekipoak behar bezala aukeratzeari, eskuratzeari eta mantentzeari begira.

2.2. Irismena

Prozedura hau irakasle ikertzaileei, AZPko kideei, ikasleei, trebatzen ari diren ikertzaileei, bekadunei eta pertsonal bisitariari ezarriko zaie, betiere babes-baliabide kolektiboen bidez edo lana antolatzeko neurri jakin batzuen bidez saihestu ezinezko edo behar bezala mugatu ezinezko arriskuen eraginpean badaude.

2.3. Definizioak

BANAKAKO BABES-EKIPOA: banakako babes-ekipo deritzo lanean segurtasunari edo osasunari mehatxu egin diezaiokkeen arrisku batetik edo gehiagotatik babesteko langileak eutsi edo aldean eraman beharreko ezein ekipori, baita xede horretarako ezein osagarriri ere. Definizio horretatik kanpo gelditzen dira laneko arropa arrunta eta langilearen osasuna edo segurtasuna babestera berriaz bideratuak ez diren uniformeak.

PERTSONAL BISITARIA: jarduera, ikerketa-proiektu edo truke-programa batean parte hartzen ari diren UPV/EHUtik kanpoko kideak.

LANEKO ARROPA: laneko arropa banakako babes-ekipotzat hartzen da, baldin eta osasuna edo segurtasuna arrisku ebaluatu batetik babesten baditu.

2.4. Jarduteko prozedurak

2.4.1. Banakako babes-ekipoak erabiltzeko irizpideak

Banakako babes-ekipoak langileen segurtasuna edo osasuna arriskuan dagoenean erabiltzeko dira; hain zuzen ere, babes-baliabide kolektiboen bidez edo lana antolatzeko neurri jakin batzuen bidez saihestu edo behar adina mugatu ezin direnean erabiltzeko.

Zehazki, l. eranskinean adierazitako jardueretan edo jarduera-sektoreetan izan daiteke beharrezkoa banakako babes-ekipoak erabiltzea.

2.4.2. Banakako babesa zer lanpostutan behar izango den zehaztea

Banakako babesa zer lanpostutan beharko den zehaztu beharra dago; orobat zehaztu beharko da lanpostu horietako bakoitzean zer arriskuri aurre egiteko babesa behar den, zer gorputz-atala babestu behar diren eta banakako zer motatako ekipoak erabili behar diren.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">4/7</p>
--	---	--

— Departamentuetan:

- *Irakaskuntza-jarduerak*: ikasleentzat arriskuren bat ekar dezaketen irakaskuntza-jarduerak egiten dituzten irakasle ikertzaileek zehaztuko dute jarduera horiek segurtasunez gauzatzeko banakako zer babes-ekipo behar den.
- *Ikerketa-proiektuak*: Proiektuko ikertzaile nagusiak erabakiko du ikerketa segurtasunez gauzatzeko banakako zer babes-ekipo behar den.

— Gainerako zerbitzuetan: Zerbitzuko arduradunak banakako babes-ekipoen zerrenda egingo du, lanpostuaren eta jardueraren arabera arriskuen ebaluazioak aintzat hartuta.

2.4.3. Banakako babes-ekipoak aukeratzea

a) Banakako babes-ekipoek zer ezaugarri eduki behar dituzten:

1. Banakako babes-ekipoek babes eraginkorra eskaini behar dute haiek erabiltzeko premia dakarten arriskuei aurre egiteko, eta ez dute izan behar arriskutsuak bere horretan, ezta arrisku gehigarriak edo ezinbestekoa ez den eragozpenik sortu behar ere. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Langunearen ezaugarrietarako egokia izatea.
 - Langilearen ezaugarri anatomiko eta fisiologikoak eta osasun-egoera aintzat hartzea.
 - Erabiltzaileari ongi egokitzeko modukoa izatea, egin beharreko doitzeak eginda.
2. Arrisku anitz daudela-eta aldi berean banakako babes-ekipo bat baino gehiago erabili behar izanez gero, ekipoek elkarren osagarriak izan beharko dute, eta bakoitzari dago-kion edo dagozkion arriskuei aurre egiteko eraginkorrak.
3. Banakako babes-ekipoak erabiltzeko zer baldintza bete behar diren:
 - Bat etorri behar dute Europako Arauarekin (CE adierazita).
 - Dagozkion arriskurako egokiak izan behar dute, eta ez dute arrisku osagarriak ekarri behar.
 - Ergonomikoak izan behar dute.
 - Norberak erabiltzeko izan behar dute (noizean behin erabiltzeko ekipo sofistikuak izan ezik).
 - Mantendu edo, hala badagokio, berrezarri egin beharko dira.

b) Banakako babes-ekipoen aukera. Urrats hauek bete behar dira banakako babes-ekipoak hautatzeko orduan:

1. Beste bide batzuetatik saihestu edo behar adina mugatu ezin diren arriskuak aztertu eta ebaluatu. 2. eranskinen arriskuen inbentarioa egiteko eskema bat agertzen da.
2. Banakako babes-ekipoek beren funtzioa behar bezala betetzeko izan beharreko ezaugarriak laburtu, kontuan hartuta babestu beharreko arriskuen izaera eta hedadura, baita banakako babes-ekipoek berek edo haiek erabiltzeak ekar ditzaketen arrisku-faktore gehigarriak ere. Urrats hau egiten laguntzeko, asko erabiltzen diren zenbait ekiporen ebaluaziorako jarraibide-sorta bat bildu da 3. eranskinen.

 <p>Unibertsitatearen eta zabal zabal Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>5/7</u></p>
---	---	--

3. Merkatuan eskuragarri dauden banakako babes-ekipoen ezaugarriak eta goian definitutakoak konparatu.

Banakako babes-ekipoen ezaugarrien azterketa egin beharko da, ekipo horiek aukeratzeko orduan aintzat hartutako egoeran eta baldintzetan aldaketaren bat gertatuz gero. Ildo horretatik, konputazio hartu beharko dira teknikaren bilakaerak arriskuei, neurri tekniko eta antolatetari, arriskuen kontrolerako baliabide kolektiboak eta banakako babes-ekipoen prestazio funtzionalei begira ekar ditzakeen aldaketak.

2.4.4. Ekipoak erabiltzaileei banatzea, dohainik, eta ekipoak berrezartzea, beharrezkoa denean

Hala eskatzen duten irakaskuntza-jardueren, ikerketa-jardueren eta zerbitzuen arduradunek bete behar dute eginkizun hau.

Unitate edo organo hauei dagokie banakako babes-ekipoak eskuratzea:

- Irakaskuntza-jarduerari dagokienez, jarduera horren ardura duen sailari, betiere langileak ez badaude zuzenean ikastegiari atxikita; halakoetan, ikastegiaren ardura izango da.
- Ikerketa-proiektuei dagokienez, ikertzaile nagusiak du ardura hori, eta programaren finantzaketaren kontura izango da.
- Ez irakaskuntzari ez ikerketari atxikita ez dauden unitateei dagokienez, zerbitzuaren arduradunen zeregina izango da banakako babes-ekipoak eskuratzea.

2.4.5. Banakako babes-ekipoak erabiltzea eta mantentzea

1. Fabrikatzaileak emandako jarraibideen arabera erabili, gorde, mantendu, garbitu, desinfektatu (hala dagokionean) eta konpondu beharko dira banakako babes-ekipoak. Zeregin hori erabiltzaileek berek bete behar dute; ekipoa hondatuz gero, aldatzeko eskaria egin behar dute.

Banakako babes-ekipoen arduradunak haien egoera zaindu behar du, eta ekipoak aldatu, gora-beheraren bati antzemanez gero.

Banakako babes-ekipoak erabiltzea beharrezkoa eta nahitaezkoa izanez gero, ekipoak behar bezala erabiltzen direla bermatuko du arduradunak, eta ekipoak ez duen inori ez dio utziko ekipoak erabiltzea eskatzen duen lanik egiten edo tokira sartzen.

Arazo fisikoak direla-eta norbaitek ekipo horiek erabiltzerik ez badu, hori egiaztatzen duen osasun-azterketa erakutsi beharko du. Lan horiek egitetik salbuetsita geldituko dira, eta langileak badira, langileak ekipo horiek erabiltzeko premiarik ez dakarren beste lanpostu batera aldatzeko ahalegina egingo da.

Bisitariak edo kanpoko pertsonak banakako babes-ekipoa erabiltzea nahitaezkoa den tokietara sartu behar izanez gero, dagokien banakako babes-ekipoa emango zaie, erabilera-jarraibideekin, eta zer arriskuren eraginpean egongo diren adieraziko zaie.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 6/7</p>
---	---	--

Ezohiko kasuetan izan ezik, banakako babes-ekipoak aurreikusitako xedeetarako besterik ezingo dira erabili.

2. Babes-ekipo bat zer egoeratan erabili behar den zehazteko, bereziki, zenbat denboran erabili behar den zehazteko, honako hauen arabera zehaztuko da:

- a) Arriskuaren larritasuna.
- b) Arriskuaren eraginpean egondako denbora-tartea edo maiztasuna.
- c) Lanpostuaren ezaugarriak.
- d) Ekipoaren beraren prestazioak.
- e) Ekipoaren erabileraren ondorioz eratorri diren eta saihestu ezin izan diren arrisku gehigarriak.

3. Banakako babes-ekipoak norberak erabiltzekoak dira, berez. Egoerak hala eskatuta ekipo bera pertsona batek baino gehiagok erabili behar izatekotan, horrek inolako osasun edo higiene arazorik ez sortzeko hartu beharreko neurriak hartuko dira.

2.4.6. Informazioa eta formazioa: betebeharrak

Banakako babes-ekipoen arduradunak ekipoak erabili aurretik erabiltzaileei jakinarazi beharko die zer arriskutatik babestuko dituen ekipo bakoitzak, baita ekipo horiek zer jarduera edo egoeratan erabili behar diren ere. Era berean, jarraibideak emango dizkie —idatziz, ahal izanez gero—, ekipoak zuzen erabiltzeko eta mantentzeko. Erabiltzaileek informazio hori behar bezala ulertu dutela egiaztatatu beharko du.

Fabrikatzaileak emandako jarraibideen liburuxka edo informazio-dokumentazioa erabiltzaileen eskura jarriko dira.

Banakako babes-ekipoen ardura duen pertsonak bermatu egin behar du banakako babes-ekipoen erabilerarako formazioa; behar izanez gero, banakako babes-ekipoak erabiltzeko trebakuntza-saioak antolatuko ditu, bereziki aldi berean banakako babes-ekipo bat baino gehiago aldi berean erabili behar izanez gero eta erabilera konplexua izanez gero.

2.4.7. Erabiltzaileen betebeharrak

Erabiltzaileek betebeharrak bete behar dituzte, beren formazioaren arabera eta banakako babes-ekipoen arduradunak emandako jarraibideak aintzat hartuta:

- a) Banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzea eta zaintzea.
- b) Banakako babes-ekipoa erabili ondoren, horretarako finkatutako tokian gordetzea.
- c) Banakako babes-ekipoen bat erabiltzean akats, gorabehera edo kalteren bat sumatuz gero, goragoko arduradun zuzenari jakinaraztea, baldin eta babes-eraginkortasuna galtzea ekar dezakeela irizten badio.

 <p>ematen ta zabait zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>7/7</u></p>
--	---	---

2.5. Jarraipena eta hobekuntzarako ekintzak

Banakako babes-ekipoen ardura duten pertsonen ekipo horien erabilera zuzena egiten dela bermatu beharko dute, eta ekipoen eta erabilera-arauen erregistro bat osatu beharko dute; erregistro horretan alden eta bajen datak, mantentze-lanen xehetasunak, ekipoak erabiltzean sortutako arazoak (balizko aldaketei begira), ekipoak erabiltzen dituzten pertsonen zerrenda eta ekipoaren erreferentzia zehatza adieraziko dira. Ausazko ikuskaritzak egingo dira, arauak betetzen diren egiaztatzeko; ikuskaritzetan bildutako datuak ere erregistro-liburuan jasoko dira.

Erregistroak banakako babes-ekipo bakoitzaren datu hauek bilduko ditu:

- Eskuratutako data eta iraungitze-data, halakorik badu.
- Langileari eman zaioneko data.
- Banakako babes-ekipoaren mota (babeserako burukoak, begietarako eta aurpegirako babesgarriak, belarrietarako babesgarriak, segurtasuneko zapatak eta botak, arropa babesgarria, ez erortzeko babesgarriak, etab.).
- Mantentzea.
- Erabiltzeko formazioa, hala behar izanez gero.
- Arrisku atxikia (arrisku biologikoa, fisikoa, kimikoa).
- Langilearen sinadura.
- Oharrak.

Erregistro hori arduradunak zainduko du, eta Prebentzio Zerbitzuari helarazi beharko zaio.

2.6. Erreferentziazko dokumentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea (azaroaren 8ko 1995/31 Legea).
- Maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretua, langileek banakako babes-ekipoak erabiltzeari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ematen dituena.

2.7. Eranskinak

- 1. eranskina: banakako babes-ekipoak erabiltzea eska dezaketen jardueren eta jarduera-sektoreen zerrenda.
- 2. eranskina: banakako babes-ekipoen ebaluaziorako jarraibide orokorrak.
- 3. eranskina: banakako babes-ekipoen erregistroarako plantilla.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/2</u></p>
--	---	--

I. eranskina. Banakako babes-ekipoak erabiltzea eska dezaketen jardueren eta jarduera-sektoreen zerrenda

Maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuko 1. eranskinean oinarrituta dago, baino UPV/EHUn egiten diren lanetara egokitu da:

1. *Buruko babesak (garezurra babesteko)*

— Kaskoa:

- Eraikuntza-lanak, eta bereziki, aldamioetan, aldamioen azpian edo aldamioetatik gertu egindako lanak, garaieran egindako lanak, enkofratze- eta desenkofratze-lanak, muntaketa eta instalazioa, eta aldamioak jartzea.
- Ontzigintza-lanak.

2. *Larruazalaren babesa*

— Segurtasuneko oinetakoak:

- Aldamioetako lanak.
- Biltegitratze-eremuetako lanak.
- Zentral elektrikoetako lanak.
- Egitura metalikoetako lanak.
- Transformazio- eta mantentze-lanak.
- Harri-lanak eta transformazioa.
- Beira lauaren eta kofadunaren fabrikazioa, manipulazioa eta tratamendua.

3. *Begien edo aurpegiaren babesa*

— Betaurreko babesleak, pantailak edo aurpegiko pantailak:

- Soldatze-, esmerilaketa- edo leuntze- eta ebakitze-lanak.
- Zulaketa-lanak eta beranlana.
- Arroken tailua eta tratamendua.
- Materialak transformatzerakoan txirbila sortzen duten makinaren erabilera.
- Beiraren eta zeramikaren bilketa eta zatiketa.
- Produktu azidoen eta alkalinoen, desinfektatzaileen eta garbigarri korrosiboen manipulazioa edo erabilera.
- Laserraz egindako lanak.
- Behe-tentsioko elektrizitate-lanak.

4. *Arnasbideen babesa*

— Arnasbideak babesteko ekipamendua:

- Instalazio hozkailuetako lanak, fluido hozkailuak hies egiteko arriskua badago.

5. *Belarrien babesa*

— Belarri-babesak:

- Metaletarako prentsen erabilera.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.1</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>2/2</u></p>
--	---	---

- Aire konprimituzko gailuen laguntzaz egindako lanak.
- Kolpekatze-lanak.

6. *Enborrharen, besoen eta eskuen babesa*

— Babes-jantziak eta - ekipamendua:

- Produktu azidoen eta alkalinoen, desinfektatzaileen eta garbigarri korrosiboen manipulazioa edo erabilera.
- Zulaketaren aurkako mantala.
- Partikula eta txinpart goriak jasaten dituzten aurreko mantalak (larruzkoak edo beste material batzuekin egindakoak).
- Soldatze-lanak.
- Forjatze-lanak.
- Galdaketa- eta moldekatze-lanak.
- Eskularruak:
- Soldatze-lanak.
- Ertz zorrotzak dituzten objektuen manipulazioa, baldin eta eskularruak makinan harapatzeko arriskurik ez badago.
- Produktu azido eta alkalinoen manipulazioa edo erabilera.
- Arrisku elektrikoa duten lanak.

— Metal bihurrituzko, sare metalikozko eta bestelako eskularruak:

- Ebakitzeko makinetako hortzen ordezkapena.

7. *Eguraldi txarra dagoenerako babes-jantziak*

— Aire zabaleko lanak, euria ari duenean edo hotz dagoenean.

8. *Segurtasun-jantziak. Seinaleak*

— Erraz ikusteko moduko jantziak behar dituzten lanak.

9. *Gorputzeko presio-gailuak eta ez erortzeko babes-ekipamendua (segurtasun-arnesak, ez erortzeko uhalak, ez erortzeko ekipamendua eta energia zinetikoa xurgatzeko balazta duen ekipamendua)*

— Aldamioetako lanak.

— Pieza aurrefabrikatuen muntaketa.

10. *Larruazala babesteko jantziak eta bitartekoak*

— Larruazala hondatu dezaketen edo larruazalean barrena sar daitezkeen estaldura, produktu edo substantzien manipulazioa.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 1/6</p>
---	---	---

2. eranskina. Banakako babes-ekipoen ebaluaziorako jarraibide orokorrak

Maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 3. Eranskinean oinarrituta eta UPV/EHUko lanetara moldatuta dago:

Lan guztietarako, ekipoaren erabileragatiko arriskuak honako hauek dira:

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Babes-eraginkortasun eskasa	Ekipoaren hautaketa desegokia	<p>Ekipoa arriskuen izaera eta garrantziaren eta industria-baldintzen arabera hautatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Fabrikatzailearen oharrak (erabilera-jarraibideak) errespetatu. — Ekipoaren markatzea errespetatu (adib.: babes motak, erabilera espezifiko bati dagokion marka). <p>Ekipoa erabiltzailearen banakako faktoreen arabera hautatu.</p>
	Ekipoaren erabilera desegokia	<p>Ekipoa modu egokian erabili, arriskuak ezagututa.</p> <p>Fabrikatzailearen oharrak errespetatu.</p>
	Ekipo zikina, higatua edo hondatua	Egoera onean mantendu.
		Aldizkako kontrolak egin.
		<p>Ordezkatze egokiak egin.</p> <p>Fabrikatzailearen oharrak errespetatu.</p>

Ekipoarekin lotutako arriskuei dagokienez, horiek saihesteko edo txikiagotzeko beren baldintza ergonomikoak aztertu behar dira, doitze, zurruntasun, pisu edo ikuspen desegoki batek eragindako arriskurik sor ez dadin.

Arriskua kentzeko balio duten, mantentze-lan erraza duten, beren jarduerak arrisku erantsirik sortzen duten eta estali beharreko gorputz-atalera ongi egokitzen diren egiaztatu behar dira.

Arriskuei ez zaie balio txikiegia edo handiegia emango, eta, ondorioz, gutxieneko beharrak esaltzen ez dituzten ekipoak erosi edo deserosotasuna eragiten duten ekipo sofistikatuegiak erosi. Beharbada, ekipo sinpleago batek arriskua ezin hobeto saihestu edo murriztu dezake.

Horrez gain, kontuan hartu behar dira ekipoen mantentze-lanak, beren funtzioa gutxitzean edo ezeztatzean, ken daitezken.

Jardueragatik babestu beharreko arriskuak honako hauek dira:

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 2/6</p>
---	---	--

1. Babes-kaskoak

Babestu beharreko arriskuak

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Ekintza mekanikoak	Objektuen erortzeak, talkak.	Talkak moteltzeko gaitasuna. Zulaketarekiko erresistentzia.
	Alboko zapalketa.	Alboko gogortasuna.
Ekintza elektrikoak	Behe-tentsio elektrikoa	Isolamendu elektrikoa.
Ikuspen-falta	Hautemate eskasa	Seinaleztapenaren/atzerailsapenaren kolorea.

2. Begietarako eta aurpegirako babeskiak

Babestu beharreko arriskuak

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Ekintza orokor ez-espezifikokoak	Erabilerak eragindako ondoezak. Energia urriko gorputz ezezagunen sartzea	Begitakoa, beharrezko erresistentzia mekanikoarekin, eta arrisku-tsua ez den hauste-moduarekin printzan. Estankotasuna eta erresistentzia.
Ekintza mekanikoak	Abiadura handiko partikulak, ezpalak, jaurtiketak. Plastikoak soldatzeko pistola-puntak	Erresistentzia mekanikoa.
Ekintza termikoak/mekanikoak	Abiadura handiko partikula gorriak	Produktu goriekiko eta urtzen diren produktuekiko erresistentzia.
Hotzaren ekintza	Begietako hipotermia	Estankotasuna aurpegian.
Ekintza kimikoa	Honako hauek eragindako narriadura: Gasak, Aerosolak, Hautsak, Keak	Estankotasuna (alboko babesa) eta erresistentzia kimikoa.
Erradiazioen ekintza	Erradiazio infragorrien, ikusgarrien eta ultramoreen iturri teknikoak, erradiazio ionizatzaileak eta laser-erradiazioa. Erradiazio naturala: egun-argia	Begitakoaren iragazpen-ezaugarriak. Armazoiaren erradiazioaren estankotasuna. Erradiazioarekiko armazoi opakua.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/6</p>
---	--	--

3. Belarrietarako babeskiak

Babestu beharreko arriskuak

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Zarataren ekintza	Etengabeko zarata. Bat-bateko zarata	Zarata-egoera bakoitzerako beharrezko indargabetze akustikoa.

4. Arnasbiderako babeskiak

Babestu beharreko arriskuak

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Aire arnasgarrian dauden substantzia arriskutsuen ekintzak	Partikula formako kutsatzaile atmosferikoak (hautsak, keak, aerosolak)	Eraginkortasun egokiko (iragazpen mota) partikula-iragazkiak, partikulen kontzentrazioarako, osasunerako toxikoak edo kaltegarriak diren partikuletarako eta partikulen espektro granulometrikorako. Arreta berezia izan behar da partikula likidoekin (tantatxoak, lainoak).
	Gas eta lurrin formako kutsatzaileak	Gasaren aurkako iragazki egokiak aukeratu behar dira, kontzentrazioen, toxikotasunaren/kaltegarritasunaren, aurreikusitako erabilera-iraupenaren eta lanaren zailtasunen arabera.
	Partikula- eta gas-aerosol formako kutsatzaileak	Iragazki analogoen, partikulen aurkako iragazkien eta gasaren aurkako iragazkien konbinazio egokien hautaketa.
Oxigeno-falta aire arnasgarrian	Oxigenoaren atxikipena	Ekipotik aire arnasgarria hartzen dela bermatu.
	Oxigenoaren jaitsiera	Esku-hartze denborarekin lotuta, ekipoen aire arnasgarriaren hornikuntza-gaitasuna errespetatzea.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">4/6</p>
---	---	--

5. Babes-eskularruak

Babestu beharreko arriskuak

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Ekintza orokorrak	Kontaktuagatik	Eskuaren bilgarria.
	Erabilerarekin lotutako higadura	Urradurerekiko erresistentzia, luzapena, urratzearekiko erresistentzia.
Ekintza mekanikoak	Desugerketa-urratzaileengatik, objektu ebakitzailengatik edo puntazorrotzengatik	Barneratze, zulatze eta mozteekiko erresistentzia.
Ekintza termikoak	Produktu sutsuak edo hotzak, giro-tenperatura	Hotzaren edo beroaren aurkako isolamendua.
	Sugarrarekin kontaktua	Sukoitasunik eza, sugarrarekiko erresistentzia.
	Soldatze-lanak egiterakoan garatzen diren ekintzak	Erradioarekiko eta urtzen diren metalen jaurtitzearekiko babes eta erresistentzia.
Ekintza elektrikoak	Tentsio elektrikoa	Isolamendu elektrikoa.
Ekintza kimikoak	Ekintza kimikoengatik kalteak	Estankotasuna, erresistentzia.
Bibrazioen ekintzak	Bibrazio mekanikoak	Bibrazioen indargabetzea.
Kutsadura	Produktu erradioaktiboekin kontaktua	Estankotasuna, deskontaminaziorako gaitasuna, erresistentzia.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 5/6</p>
---	---	---

6. Segurtasun-zapatak eta -botak

Babestu beharreko arriskuak

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Ekintza mekanikoak	Objektuen erortzeak edo oinaren aurreko aldearen zapalketak	Oinetakoaren puntaren erresistentzia.
	Orpoaren gaineko erotzeak eta inpaktua	Energia xurgatzeko takoiaren gaitasuna. Takoi-zurrungarria indartu.
	Irristadagatiko erortzea	Zolaren irristatzearekiko erresistentzia.
	Objektu puntazorrotzen eta ebakitzailen gainean ibiltzea	Zulatzeeen aurkako zolaren kalitatea.
Ekintza elektrikoak	Behe- eta erdi-tentsioa	Isolamendu elektrikoa.
	Goi-tentsioa	Eroankortasun elektrikoa.
Ekintza termikoak	Hotza ala beroa	Isolamendu termikoa.
Ekintza kimikoak	Hauts edo likido oldarkorrak	Erresistentzia eta estankotasuna.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">6/6</p>
---	---	---

7. Babes-arropa

Babestu beharreko arriskuak

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Ekintza orokorrak	Kontaktuagatik	Erabileragatiko higadura.
	Erabileragatiko higadura	Urratu eta luzatzeekiko erresistentzia, urratze-hasierarekiko erresistentzia.
Ekintza mekanikoak	Desugerketa-urratzaileengatik, objektu ebakitzailengatik eta puntazorrotzengatik	Barneratzearekiko erresistentzia.
Ekintza termikoak	Produktu sutsuak edo hotzak, giro-tenperatura	Hotzaren edo beroaren aurkako isolamendua, babes-funtzioaren mantentzea.
Elektrizitatearen ekintza	Tentsio elektrikoa	Isolamendu elektrikoa.
Ekintza kimikoak	Ekintza kimikoengatik kalteak	Estankotasuna eta eraso kimikoekiko erresistentzia.
Ikuspen-falta	Hautemate eskasa	Kolore bizia, atzerailsapena.
Kutsadura	Produktu erradioaktiboekin kontaktua	Estankotasuna, deskontaminaziorako gaitasuna, erresistentzia.

9. Erortzeen aurkako babeskiak

Babestu beharreko arriskuak

Arriskuak	Jatorria eta arrisku-era	Segurtasunaren ikuspuntutik ekipoa aukeratzeko eta erabiltzeko kontuan hartu beharreko faktoreak
Inpaktua	Alturako erortzeak. Oreka-galtzea	Erresistentzia eta ekipoen eta lotura-puntuaren (ainguralekua) gaitasuna.

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Banakako babes-ekipoak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_02.3 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/1</u></p>
---	---	--

3 eranskina. Banakako babes-ekipoen erregistrorako plantilla

Erregistroak banakako babes-ekipo bakoitzaren datu hauek bilduko ditu:

- Banakako babes-ekipoa.
- Eskuratutako data eta iraungitze-data, halakorik badu.
- Langileari eman zaioneko data.
- Banakako babes-ekipoaren mota (babeserako burukoak, begietarako eta aurpegirako babesgarriak, belarrietarako babesgarriak, segurtasuneko zapatak eta botak, arropa babesgarria, ez erortzeko babesgarria, etab.).
- Mantentzea.
- Erabiltzeko formazioa, hala behar izanez gero.
- Arrisku atxikia (arrisku biologikoa, fisikoa, kimikoa).
- Langilearen sinadura.
- Oharrak.

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Segurtasun ikuskapenak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_03 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/5</u></p>
---	---	--

3

Segurtasun ikuskapenak

PROZEDURA

Izenburua:

Segurtasun ikuskapenak

KODEA PPRL_PR_03

BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30

2/5

- 3.1. Helburua
- 3.2. Irismena
- 3.3. Definizioak
- 3.4. Jarduera prozedura
 - 3.4.1. Ikusapena prestatzea
 - 3.4.2. Eremuak edo instalazioak ikuskatzea
 - 3.4.3. Ikusapen-txostena
- 3.5. Neurri zuzentzaileen eta hobekuntza neurrien jarraipena
- 3.6. Erreferentziak
- 3.7. Eranskinak

Eranskinak

- 1. eranskina. Segurtasun-ikusapenen kontrol-orria

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Segurtasun ikuskapenak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_03</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>3/5</u></p>
---	---	---

3.1. Helburua

Prozedura honen bidez lan-baldintzen segurtasun-ikuskapenak edo aldizkako berrikuspen sistematikoak ezarri nahi dira, arrazoi tekniko edo materialekin eta giza-arrazoiekin lotutako arriskuak detektatzeko.

3.2. Irismena

Prozedura hau UPV/EHUko instalazio, eremu, lanpostu eta ekipamendu guztietan aplikatuko da, arriskuen ebaluazioa egiteko garaian detektatu ez ziren edo arriskuen ebaluazioa egin ondoren sortu diren arriskuak edota jarrera ez-segurua detektatzeko asmoz.

Prozedura honetako ikuskapenak ez dute loturarik beren araudia duten ikuskapenekin edo Laneko Ikuskaritzak edo Osalanez eskatzen dituzten ikuskapenekin.

3.3. Definizioak

SEGURTASUN IKUSKAPENA: Lan-baldintzen aldizkako berrikuspen sistematikoa, instalazioetako baldintza fisikoak eta lanpostuetako jarduerak aztertzei aukera ematen duen teknika analitiko baten bidez gauzatzen dena, eta arrazoi tekniko edo materialekin eta giza-arrazoiekin lotutako arriskuak detektatzea helburu duena.

Ikuskapenen bidez, honako hauek detektatu daitezke:


- **Baldintza ez-segurua:** babesik eza mugitzen diren gailuetan, babes-gailurik eza, etab.
- **Ekintza ez-segurua:** ikuskapenak egiten direnean pertsonak nola lan egiten duten ikusten da, eta ekintza edo ohitura ez-segurua detektatu daitezke.
- **Neurri zuzentzaile ez-eraginkorrak:** arriskuak detektatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri ondoren, neurri horiek eraginkorrak ote diren egiaztatu daiteke hurrengo ikuskapenetan.
- **Diseinu-arazoak:** instalazioak diseinatzeko, aldatzeko edo konpontzeko garaian kontuan hartu ez ziren arriskuak detektatzeko aukera ematen du.

3.4. Jarduera prozedura

Prebentzio Zerbitzuko teknikariek, arriskuen ebaluazioko emaitzak, istripuen eta gorabeheren ikerketaren emaitzak edo beste teknika analitiko batzuen emaitzak kontuan hartuta, segurtasun-ikuskapenen plangintza egin dezakete. Ikuskapenak egiteko, Ikuskapenetako Kontrol Orriak (1. erankina) erabiliko dira.

Ikuskapenak egiteko arrazoiak honako hauek izan daitezke:

- Langile batek edo prebentzioko ordezkari batek arrisku baten berri eman duela, PPRL_PR_14 prozedurari (Komunikazioa eta informazioa) jarraituz.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Segurtasun ikuskapenak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_03 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/5</p>
---	---	---

- Arriskuen ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta bidezkoa dela.
- Berriki ikuskatu ez diren instalazioak edo zonak daudela.

Segurtasun-ikuskapenak Prebentzio Zerbitzuak egingo ditu, jarraian zehaztuko den metodologiari jarraituz.

3.4.1. Ikuskapena prestatzea

Prebentzio Zerbitzuak ikuskapenaren plangintza egingo du, alderdi hauek zehaztuta: ikuskapenaren helburua, arduraduna, jarduteko modua, eta ikuskapena noiz egingo den.

Prebentzio Zerbitzuak prebentzioko ordezkariekin hitzartutako prozedurari jarraituz gauzatuko du ikuskapena, eta prebentzioko ordezkariak ere bertan parte hartzeko aukera izango dute.

3.4.2. Eremuak edo instalazioak ikuskatzea

Segurtasun-ikuskapenaren nondik norakoak erabaki ondoren (nork, zer, nola eta noiz), ikuska-pena gauzatuko da, honako urrats hauei jarraituz:

- Eremua edo instalazioa, lanpostuak edota ekipamenduak ikuskatu.
- Detektatu diren anomaliak identifikatu eta neurri zuzentzaileak proposatu. Arriskuen ebaluazioan integratu eta datu-basea eguneratu (ikus arriskuen ebaluaziorako prozedura).
- Arrisku larri eta berehalakorik detektatuz gero, dagokion prozedurari jarraitu (ikus arrisku larri eta berehalakorako prozedura).

3.4.3. Ikuskapen-txostena

Egindako ikuskapenean oinarrituta, txosten bat egingo da (ikus arriskuen ebaluazioko txostena) eta Prebentzio Zerbitzuan artxibatuko da. Txostena, prebentzio-jardueren plangintza egiteko lan-dokumentu gisa erabiliko da.

Arriskuen ebaluaziorako prozeduran ezarritakoaren arabera neurri zuzentzailea ezartzeko ardura duen pertsonari orriaren kopia bat bidaliko zaio.

Ikuskapenetako txostenak Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordearen aldizkako bileretan aurkeztuko dira.

3.5. Jarraipena eta hobekuntza ekintzak

UPV/EHuko Prebentzio Zerbitzuak prozedura honetatik eratorriko diren prebentzio-neurrien jarraipena kudeatuko du, 04 prozedurako (Prebentzio-neurrien jarraipena) ildoari jarraituz.

 <p> emen ta zabal zaku Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Segurtasun ikuskapenak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_03</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>5/5</u></p>
--	---	---

3.6. Erreferentziak

- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena.
- 604/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 19koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua aldatzen duena.

3.7. Eranskinak

- 1. eranskina: ikuskapenetako kontrol orriak.

 <p>ematen ta zabait zaku</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Segurtasun ikuskapenak</p>	<p>KODEA PPRL_PR_03.1</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/1</u></p>
--	---	---


I. eranskina. Segurtasun-ikuskapenen kontrol-orria

Segurtasun-ikuskapenen kontrola datuak bilatzea, ordenatzea eta erkatzea erraztuko duen artxibo aldagari baten bidez egingo da; artxibo horrek honako eremu hauek izango ditu, gutxienez:

Eremua

1. Ikuskapen-zenbakia.
2. Ikuskapenean parte hartu duen prebentzio-teknikaria.
3. Ikuskapenean parte hartu duten prebentzio-ordezkariek.
4. Bertan zeuden beste langile batzuk.
5. Data.
6. Jatorria:
 - Ohikoa.
 - Eskaera zehatza: izena, harremanetarako telefonoa/helbide elektronikoa.
7. Kokalekua: Campusa/Ikastegia/Saila/Zerbitzua.
8. Antzemandako irregularitasuna edo arriskua: deskribapena.
9. Oharrak/Azalpenak.

Ikuskapenetik ondorioztatzen diren hobekuntza-proposamenei «arriskuen ebaluazioaren» prozeduran ezarritakoaren arabera jarraipena egingo zaie.

 <p>emian ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Prebentzio neurrien jarraipena</p>	<p>KODEA PPRL_PR_04</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p><u>1/5</u></p>
--	--	--

4

Prebentzio neurrien jarraipena

PROZEDURA

Izenburua:

**Prebentzio neurrien
jarraipena**

KODEA PPRL_PR_04

BERRAZTERKETA **000** DATA: **2011/06/30**

2/5

- 4.1. Helburua
- 4.2. Irismena
- 4.3. Definizioak
- 4.4. Jarduera prozedura
 - 4.4.1. Prebentzio-neurriak proposatzea
 - 4.4.2. Prebentzio Zerbitzuari jakinaraztea
 - 4.4.3. Jarraipena
 - 4.4.4. Prebentzio-neurriak erregistratzea
- 4.5. Neurri zuzentzaileen eta hobekuntza neurrien jarraipena
- 4.6. Erreferentziak
- 4.7. Eranskinak

Eranskinak

- 1. eranskina. Arduradun bakoitzaren prebentzio-neurrien erregistro-txantiloia

 <p>ematen ta zabait zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Prebentzio neurrien jarraipena</p>	<p>KODEA PPRL_PR_04 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>3/5</u></p>
--	--	--

4.1. Helburua

Prozedura honen bidez, Prebentzioaren Kudeaketa Sistemako prozeduretan detektatutako arriskuak ezabatzeko edo murrizteko prebentzio-neurrien jarraipenerako eta kontrolerako sistema-tika ezarri nahi da.

4.2. Irismena

Prozedura hau Prebentzioaren Kudeaketa Sistemako prozeduren aplikazioaren ondorioz ezarriko diren prebentzio-neurri guztietan aplikatuko da.

4.3. Definizioak

PREBENTZIO NEURRIAK: lanak eragindako kalteak saihestea helburu duten esku-hartzeen multzoa.

DESADOSTASUNA: zehaztutako baldintza bat ez betetzea. Ondorioz, langileen segurtasuna eta osasuna arriskuan jar daitezke, eta hori saihesteko, prebentzio-neurri bat proposatu behar da.

4.4. Jarduera prozedura

4.4.1. Prebentzio-neurriak proposatzea

Prozedura bateko arduradunak desadostasun bat detektatzen badu prebentzio-neurri bat proposatuko du, bere eskumenen eta ezagueren arabera, betiere dagokion prozeduran ezarritakoarekin bat etorritik.

Prebentzio-neurriak proposatzeko garaian Prebentzio Zerbitzuaren laguntza jasoko da. Hain zuzen ere, Prebentzio Zerbitzuak informazioa eskatuko dio gaiari buruzko eskumena duen organoari edo zerbitzuari.


4.4.2. Prebentzio Zerbitzuari jakinaraztea

Prebentzio-neurrien jarraipenaren arduraduna kasuan kasuko jarduera-arloko prebentzioaren arduraduna izango da, eta informazio hori Prebentzio Zerbitzuari helaraziko dio, hala eskatzen zaionean.

Prebentzio Zerbitzuak, proposatu diren eta bere esku dauden prebentzio-neurrien berri emango du Campuseko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilera bakoitzean.

4.4.3. Jarraipena

Prebentzio Zerbitzuak, arlo bakoitzean ezarri diren neurrien betetze maila eta eraginkortasuna zainduko ditu, eta urtero txosten bat idatziko du, Prebentzioaren Kudeaketa Sistemako prozeduren

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Prebentzio neurrien jarraipena</p>	<p>KODEA PPRL_PR_04 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/5</p>
---	---	---

arduradunengandik jasotako informazioa erabiliz. Txosten hori Campuseko eta Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeetan aurkeztuko da, eta Batzorde horietako presidentek txostenaren berri emango dute UPV/EHUko ikastegi guztietan.

4.4.4. Prebentzio-neurriak erregistratzea

Jarduera-arlo bakoitzeko prebentzioaren arduradunak desadostasunak eta dagozkien prebentzio-neurriak erregistratu beharko ditu. Era berean, prebentzio-neurrien betetze mailaren jarraipena gauzatu beharko du eta prozedura bakoitzean definitu den organo arduradunari jakinarazi beharko dio, hark Prebentzio Zerbitzuari jakinarazteko, hala eskatzen zaionean.

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak prebentzio-neurrien jarraipen-txostena gordeko du.

Prebentzio-neurrien erregistroak honako atal hauek izango ditu:

- Arriskua identifikatzeko ardura duen pertsonaren datuak: Izena eta bi abizen, kargua, unitatea, saila eta ikastegia.
- Ekintzaren jatorria: Gorabehera baten ikerketa, ikuskapena, neurketak, iradokizuna, etab. Jatorria identifikatzeko, jarraian adierazita dauden hizkiak erabiliko dira:
 - a) Lan-ekipamenduen eta instalazio osagarrien alta, baja edo aldaketa.
 - b) Norbera babesteko ekipamenduen alta, baja edo aldaketa.
 - c) Ekoizpen-prozesuen aldaketa.
 - d) Alta, baja edo aldaketa produktu kimiko osagarrien erabileran.
 - e) Ikuskapen programatuen gauzapena.
 - f) Langileen erreklamazioen eta iradokizunen tratamendua.
 - g) Langileen osasunaren kontrola eta jarraipena.
 - h) Istripuen eta gorabeheren ikerketa.
 - i) Arriskuen ebaluazioa.
 - j) Auditoria.
 - k) Higiene- eta ingurumen-neurketak.
- Eguna: Prebentzio-neurria eragin duen gorabehera detektatu zen eguna.
- Detektaturiko arriskua: Labur-labur, zer arazo detektatu den adieraziko da.
- Prebentzio-neurria: Labur-labur, zer ekintza gauzatu behar den adieraziko da.
- Gutxi gorabeherako aurrekontu/kostua: Kalkulua egiteko, Prebentzio Zerbitzuari edo Arkitektureta eta Lanen Zerbitzuari laguntza eskatuko zaie.
- Arduraduna: Prebentzio-neurria gauzatzeko ardura duen pertsonaren izena adieraziko da, PPRL_PR_04 prozeduran (Arriskuen ebaluazioa) ezarritakoaren arabera.
- Ebazpen-eguna: Gorabeherari amaiera emango dion ekintza gauzatu den eguna.
- Komunikazioa: Komunikazio-eguna adieraziko da. Prebentzio-neurria gauzatzeko ardura duen pertsonarekin jarri beharko da harremanetan.
- Eraginkortasuna: Ekintza eraginkorra izan den ala ez adieraziko da. Ez bada eraginkorra izan, arrazoia adieraziko da.

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Prebentzio neurrien jarraipena</p>	<p>KODEA PPRL_PR_04</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>5/5</u></p>
--	---	---

4.5. Jarraipena eta hobekuntza ekintzak

Prozedura hau berrikusteko eta prebentzio-neurriak ezartzeko, Osasun eta Segurtasun Batzordeek prozeduraren eraginkortasuna berrikus dezakete, aldian behin. Gutxienez urtean behin, Campus arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeak, Prebentzio Zerbitzuaren txostena jaso ondoren, neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

Prebentzio Zerbitzuak, neurri zuzentzaileak gauzatzeko ardura duten pertsonen txostenak bilduko ditu eta formatu bakarrean taldekatuko ditu.

4.6. Erreferentziak

— Laneko Arriskuen Prebentzioarekin zerikusia duten arau aplikagarri guztiak.

4.7. Eranskinak

— 1. eranskina: jarduera-arlo bakoitzeko prebentzio-neurriak erregistratzeko eredua.

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/15</u></p>
--	--	---

5

Larrialdien kudeaketa

 <p> Universidad del País Vasco </p> <p> Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>2/15</u></p>
--	--	--

- 5.1. Helburua
- 5.2. Irismena
- 5.3. Definizioak
- 5.4. Jarduketa-prozedurak
 - 5.4.1. Autobabeserako Plan baten egitura
 - 5.4.2. Larrialdiko taldeak
 - 5.4.3. Funtzioen deskripzioa eta esleipena
 - 5.4.4. Segurtasun-fitxak
 - 5.4.5. Gertakarien erregistroa
- 5.5. Ezarpen-programa
 - 5.5.1. Erantzukizuna
 - 5.5.2. Ezarpena
 - 5.5.3. Autobabeserako bitartekoen mantentzea
 - 5.5.4. Autobabeserako Planaren Eguneratzeak
 - 5.5.5. Langileen prestakuntza
 - 5.5.6. Simulazioak
 - 5.5.7. Ezarpen-epeak
- 5.6. Ekintza zuzentzaileen eta hobekuntzako jarraipena
- 5.7. Erreferentziako dokumentuak
- 5.8. Eranskinak

Eranskinak

- 1. eranskina. Segurtasun-fitxa
- 2. eranskina. Suteen aurkako bitartekoen mantentzea
- 3. eranskina. Simulazioak kontrolatzeko fitxa
- 4. eranskina. Autobabeserako planak ezartzeko fluxugrama
- 5. eranskina. Eskola-ordutegitik kanpo larrialdia gertatzen denerako Segurtasun Zerbitzuak emandako jardueraren ildoak
- 6. eranskina. Unibertsitatean, ezintasunak dituzten pertsonekin larrialdi-kasuetan jarduteko protokoloa

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/15</p>
---	--	--

5.1. Helburua

Prozedura honen helburua Autobabeserako Planak egiteko, garatzeko, ezartzeko eta mantentzeko gidak ezartzea da, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) langileei, erabiltzaileei eta ondasunei babes eraginkorra eskaintzeko. UPV/EHUko ikastegi bakoitzak Autobabeserako Plan bat izango du. Halaber, UPV/EHUk ikastegien autobabeserako planak koordinatzeko plan bat prestatuko du eremu erkide batean kokatutako eraikinak hustea beharrezkoa denerako.

5.2. Irismena

Prozedura honek UPV/EHUn dauden pertsona guztiei eragiten die, eta baita Unibertsitateko instalazio guztiei ere.

5.3. Definizioak

Honako definizio hauek 393/2007 EDn jasota daude:

AUTOBABESAREN KONTZEPTUA: pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzera eta kontrolatzera zuzendutako ekintza eta neurrien sistema da autobabesa, larrialdiko egoerei erantzun egokia ematen diena eta larrialdiko egoera horiek babes zibileko sistema publikoan txertatzen dituen.

AUTOBABESERAKO PLANA: jarduera, ikastegi, establezimendu, gunee, instalazio edo areto baterako aurreikusitako esparru organiko eta funtzionala, pertsona eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eta titularraren erantzukizunpeko eremuan izaten diren larrialdiko egoera posiblei erantzuna emateko helburua duena eta jarduketa horiek babes zibileko sistema publikoan txertatzea bermatzen duena.

EBAKUAZIOA: larrialdian dauden pertsonak behin-behineko leku seguru batera lekualdatzeko ekintza planifikatua.

LARRIALDIETARAKO JARDUKETA-PLANA: autobabeserako planeko dokumentua da. Dokumentu horretan daude jasota erakundeak larrialdi-egoera sailkatuen aurrean emango duen erantzuna, babesteko eta esku hartzeko hartu beharreko neurriak eta larrialdi posiblei erantzuna emateko prozedurak eta ekintzen sekuentzia.

KONTROL-ZENTROA: Larrialdiren bat izaten denean jarduketa guztiak barrutik eta kanpotik koordinatzeko Autobabeserako Batzordeak aukeratutako lekua da.

5.4. Jarduketa-prozedurak

Autobabeserako Planak behar den bezala ezarrita, honako helburu hauek lortu ahal izango dira:

— Eraikinak eta instalazioak, sektore bakoitzeko arriskua, ezarritako babes-neurriak eta indarreko Araudiaren arabera dauden premiak ezagutu.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">4/15</p>
--	--	---

- Babes-neurrien eta instalazio orokorren erabilgarritasuna eta fidagarritasuna bermatu.
- Larrialdien kausak ekidin.
- Larrialdiak kontrolatzeko egin beharreko ekintzetan lastertasuna eta eraginkortasuna bermatu ahal izateko pertsona antolatuak eta prestatuak eduki.
- Okupatzaile guztiak informatuta eduki larrialdietan jokatzeko moduari buruz.

5.4.1. Autobabeserako Plan baten egitura

Autobabeserako Planaren dokumentua ondorengo edukiarekin egituratuko da, 393/2007 EDko kapituluak aplika dakizkiokeen eraikinei, instalazioei nahiz jardueri buruzkoa bada.

- 1. kapitulua. Titularren eta jardueraren kokapenaren identifikazioa.
- 2. kapitulua. Jardueraren eta jarduera garatzeko erabiltzen den ingurune fisikoaren deskripzio xehatua.
- Egituran edo eraikinean egiten den edozein aldaketa edo obraren berri emango zaio Autobabeserako Batzordeari.
- 3. kapitulua. Arriskuen inbentarioa, analisia eta ebaluazioa. Kontuan izan behar dira, gutxienez, sektoreko arauak araututako arriskuak.
- 4. kapitulua. Autobabeserako neurrien eta bitartekoen inbentarioa eta deskripzioa.
- 5. kapitulua. Instalazioak mantentzeko programa.
- 6. kapitulua. Larrialdietarako jarduketa-plana. Larrialdien hasierako kontrolerako garatu beharreko ekintzak definitu behar dira eta alarma, ebakuazioa eta sorospena bermatu.
- 7. kapitulua. Autobabeserako plana goragoko mailako beste batzuetan txertatzea.
- 8. kapitulua. Autobabeserako Planaren ezarpena.
- 9. kapitulua. Autobabeserako Planaren eraginkortasunaren eta eguneratzearen mantentzea.

Larrialdietako jarduketa-prozedurek honako hauek bermatu beharko lituzkete, gutxienez:

- Hautematea eta alerta.
- Alarma.
- Esku-hartze koordinatua.
- Babesa, ebakuazioa eta sorospena.
- Arriskupean egon litezkeen pertsona guztiei larrialdiko informazioa.
- Larrialdiko zerbitzuetarako kanpoko laguntza eskatu eta hartzea.

Egitura horri dagokionez, batzorde teknikoak erabakitzen du.

5.4.2. Larrialdiko taldeak


Ikastegi bakoitzean eratuko da larrialdiko talde bat. Larrialdiko Talde bakoitzaren buruan Autobabeserako Batzorde bat egongo da. Batzorde horren mende egongo da Larrialdietarako Jarduketa-planaren Zuzendaria eta, aldi berean, zuzendari horren mende Kontrol Zentroa, Lehen Esku-hartzeko Taldea eta Ebakuazioaren arduradunak. Honako hauek finkatuko dira horietako bakoitzarentzat:

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 5/15</p>
---	---	--

- osatzeko oinarrizko printzipioak,
- jarduera arrunteko funtzioak,
- larrialdietarako funtzioak,
- talde horien kideek behar dituzten ezagutzak.

Kideak izendatzeko proposamenari dagokionez, pertsonen egokitasun-irizpideak betetzen ahaleginduko da, agindutako lanean ahalik eta eraginkortasun handiena eta zerbitzuetan ahalik eta nahasmen txikiena izateko.

5.4.3. Larrialdiko taldearen funtzioen deskripzioa eta esleipena



5.4.3.1. Autobabeserako Batzordea

- Ikastegietako Autobabeserako Batzordea Dekanoak, Ikastegiko Zuzendariak, batzordeko buru izango denak eta administratzaileak edo, hala badagokio administrazio-buruak osatuko dute. Dekanoak edo Zuzendariak 2 edo 3 kide izendatuko ditu, gehienez, ikastegiko AZP eta Ilko langileen artean, aipaturiko Batzordea eratzeko. Batzordea 5 kidek osatuko dute, gehienez. Jakineko gai batzuetarako Ikasle Kontseiluko ordezkariak edo Unibertsitate Komunitateko beste kide batzuk gonbidatu ahal izango dira.
- Beste mota bateko eraikinen kasuan (Errektoretza, Liburutegia, Areto Nagusia, Errektoreordetzak, ikasgelategiak, etab.), Autobabeserako Batzordearen lehendakaria dagokion Campuseko Errektoreordea edo horrek izendatutako pertsona izango da. Batzordeko kide izango da administratzailea eta, irudi hori ez egonez gero, Campuseko Administratzailea. Beste 2 edo 3 pertsona gehiago egon daitezke, 5 kide gehienez.

Ikastegiko Autobabeserako Plana betetzen dela zainduko du Batzordeak.

Autobabeserako Batzordeko lehendakaria falta denerako, Batzordeak finkatuta izango du hura ordezteko ordena bere kideen artean, dagozkion funtzioak bere gain har ditzan, ikastegia irekitzen denetik ixten den arterainoko ordutegi osoa hartu behar dela kontuan hartuta.

Prebentzio Zerbitzuak aholkularitza teknikoa emango dio Autobabeserako Batzordeari Autobabeserako Planaren analisia, jarraipenak eta ezarpenak irauten duten bitartean.

- Autobabeserako Batzordeak jarduera arruntan duen funtzioa:
 - Autobabeserako Planaren analisia, abian jartzea, jarraipena eta eguneratzea.
 - Lehen Esku-hartzeko Taldeko kideak izendatzea.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>6/15</u></p>
--	--	---

- Zonako irakasle edo arduradun guztiei dagokien zonako Ebakuazio eta Alarmaren arduradun izendatuak izan direla jakinaraztea.
- Ebakuazio-eremuak eta zonako «erreferentziako» gelak zehaztea.
- Larrialdietarako Kontrol Zentroa non egongo den zehaztea.
- Suteen aurkako sistemako edozein osagairen erabilera desegokia ekiditeko neurriak proposatzea (sakagailuak, itzalgailuak, suteetako ur-hargune ekipatuak, etab.).
- Leku estrategikoetan (solairuetarako sarbideak, etab.) «Hemen zaude» dioten kartelak jarri beharko lirakeke (eraikinekoak ez direnei zuzendutakoak bereziki).
- Gutxienez 3 hilean behin biltzea.
- Segurtasun Fitxak ikastegiaren ezaugarrien arabera egokitzea.

— Autobabeseko Batzordeak larrialdietan duen funtzioa:

- Larrialdietako Zuzendariari laguntzea.

— Batzordeko kideek behar dituzten ezagutzak:

- Autobabeserako Planaren azterketa sakona.

5.4.3.2. Larrialdietarako Jarduketa Planaren zuzendaria

Larrialdietarako zuzendaria Autobabeserako Batzordeko lehendakaria da. Autobabeserako Batzordeko lehendakaria falta denerako, Batzordeak finkatuta izango du hura ordeztzeko ordena bere kideen artean, dagozkion funtzioak bere gain har ditzan, ikastegia irekitzen denetik ixten den arterainoko ordutegi osoa hartu behar dela kontuan hartuta. Larrialdiko zuzendaria egongo ez balitz, haren ordezkapenerako hurrenkera ezarri beharra dago.

— Larrialdietarako zuzendariak jarduera arruntean duen funtzioa:

- Langileak antolatzea, prestakuntzaren, trebakuntzaren eta informazioaren bitartez.
- Segurtasuneko sistema eta ekipamenduen mantentzea bermatzea.
- Kanpokoekiko harremanez arduratuko da: Administrazioak, kanpoko zerbitzuak...
- Simulazioak prestatzen eta gauzatzen esku hartzea.
- Dagokion Campuseko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeari Autobabeserako Batzordearen eraketari buruzko eta Plana ezartzen den bitartean izaten diren jarduketa (saioak, ebaluazioak, simulazioak), gertakari eta abarri buruzko informazioa ematea.
- Gune guztietarako sarbidea izatea.

— Larrialdietarako zuzendariak larrialdietan duen funtzioa:

- Gertakaria izan den tokira joan eta gertakaria/istripua eta izan ditzakeen ondorioak ebaluatzea.
- Ahal duen heinean gertatutakoa desagerrarazten ahalegintzea, Lehen Esku-hartzeko Taldearen jarduketa koordinatuta.
- Behar denean ebakuazioa antolatzea. Alarma Orokorra eta Larrialdietarako jarduketa-plana aktibatzea.
- Kanpoko laguntza eskatzea: polizia, suhiltzaileak, larrialdietarako zerbitzuak, etab. eta horiei harrera egiteaz arduratzea.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 7/15</p>
---	--	--

- Ohiko jarduerarekin jarraitzea.
- UPV/EHUko prentsa-kabinetearen bitartez agintariak eta komunikabideak jakinaren gainean jartzea.

— Larrialdietako zuzendariak behar dituen ezagutzak:

- Autobabeserako Planaren azterketa sakona.
- Eraikina eta eraikinean egiten diren aldaketak eta obrak zehaztasunez ezagutzea.
- Instalazioak eta giltza orokorrak ezagutzea.
- Ebakuazioko, ekipamendu-maneiuko eta larrialdietako psikologia aplikatuko gaietan duen karguarekin bat datorren segurtasun-ikastaroa egitea.

5.4.3.3. Lehen Esku-hartzeko Taldea

Autobabeserako Batzordeak izendatuko ditu Lehen Esku-hartzeko Taldeko kideak. Atezain Nagusiak/ek, Ikastegiko Mantentze-zerbitzuko langileek eta Mendeko Langileek osatuko dute taldea. Lantaldearen ezaugarriak kontuan hartuta, Autobabeserako Batzordeak hala erabakitzen duen ikastegietan eraikineko AZP eta IIko gainerako langileek ere osatu ahal izango dute.

Autobabeserako Batzordeak zehaztu beharreko proposamena da eta aukeraketan borondatea ere baloratuko da.

Autobabeserako Batzordeak Lehen Esku-hartzeko Taldeen osaketan, ahal den neurrian, jarraipena egon dadin ere zainduko du.

— Lehen esku-hartzeko taldeek jarduera arruntean duten funtzioa:

- Larrialdiko Zuzendariari behar duen gauzetan laguntzea.
- Segurtasun-arauak eta -taldeak errespetarazten ahalegintzea.
- Ebakuazio-bideak, seinaleak eta larrialdiko irteerak baldintzarik onenetan egon daitezen zaintzea.
- Segurtasun-taldeekin eta instalazio orokorrekin zerikusia duen eta eraikinaren segurtasunean eragina izan dezakeen gertakari oro jakinaraztea.

— Lehen esku-hartzeko taldeek larrialdietan duten funtzioa:

- Gertakaria/istripua izandako lekura berehala joatea.
- Egoerak jendearentzako arrisku larriak sortzen ez badu, lehen esku-hartzeko taldea larrialdia arintzen ahaleginduko da ahal den neurrian, Larrialdietako Zuzendaria bertaratu eta kontrakoa esan arte gutxienez. Helburu hori lortzeko egin beharreko ekintzen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Behar diren instalazioetako giltzak ixtea.
- Larrialdietarako ekipamenduak erabiltzea larrialdia arindu ahal izateko.
- Beste sektore batzuetara zabaltzea ekiditea.
- Komeni denean zonan sartzen ez uztea.
- Behar dutenei laguntza ematea.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>8/15</u></p>
--	--	--

— Lehen esku-hartzeko taldeek behar dituzten ezagutzak:

- Euren eraikina, instalazioak, giltza orokorrak eta sektoreak ondo ezagutzea.
- Autobabeserako Plana ezagutzea.
- Segurtasuneko eta larrialdietarako ekipamenduak maneiatzeko ikastaroa egitea.
- Lehen laguntzak.

5.4.3.4. Ebakuazioko eta Alarmako arduradunak

Guneen arabera banatuko dira arduradunak. Honako hau proposamen orokorra da, eraikin bakoitzeko Autobabeserako Batzordeak zehaztu edo aldatu beharko duena.

5.4.3.4.1. Gelak eta Mintegiak

Geletan irakasle bakoitza arduratuko da larrialdia izanez gero alarma martxan jartzeaz eta gela husteaz. Gelak zonaka banatuko dira eta «erreferentziako gelak» izendatuko dira. Gela horretako irakaslea izango da zonako arduraduna eta, alarma martxan jartzen denean, zonaren erabateko ebakuazioa bermatu behar du. Autobabeserako Batzordeak kasuistika aztertuko du Ikastegiaren ezaugarrien arabera gerta litezkeen egoera guztiak estaltzeko eta ebakuazio egokia bermatzeko.

Mintegietan ere geletan bezala jokatuko da.

Modu berean ezarriko da ikasteko irekita dauden, ikasleek erabiltzen dituzten eta arduradun finikorik ez duten gelak / aretoak husteko sistema.

5.4.3.4.2. Tailerrak eta Laborategiak

Praktiketako tailer eta laborategietan, praktikak egiten ari direnean praktiketako arduraduna da tailerra edo laborategia husteko arduraduna.

Praktiketako ordutegiz kanpo, erabili beharreko ebakuazio-mekanismoa aukeratuko da bere ezaugarrien arabera.

Ikerketa-tailerrak edo -laborategiak dituzten Sailek ebakuazio-arduradun bat izendatu behar dute gune bakoitzerako.

Autobabeserako Batzordeak Sailekin batera zehaztuko du tailerra edo laborategia irekita dauden bitartean arduradun bat egoteko sistema.

5.4.3.4.3. Areto Espezifikoak

Informatika-aretoetan, Autobabeseko Batzordeak haien ezaugarriak kontuan hartuta zehaztuko du sistema.

Liburutegietan ere guneak husteko arduradun bat izendatu beharko da.

 <p> Universidad del País Vasco </p> <p> Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">9/15</p>
--	--	---

Ekitaldi-aretoak eta guztientzako guneak mendeko langileek hustuko dituzte. Oso urrun baldin badaude, Autobabeserako Batzordeak beste soluzio bat aukeratuko du.

5.4.3.4.4. Bulegoak

Bulegoei dagokienez, erabiltzaile bakoitzak hustu beharko du berea. Bulegoak zonaka banatuko dira eta «erreferentziako bulegoak» izendatuko dira. Bulego horretako erabiltzailea izango da zonako arduraduna eta, alarma martxan jartzen denean, zonaren erabateko ebakuazioa bermatu behar du. Erreferentziako bulegoak hutsik badaude, Autobabeserako Batzordeak erabakiko zu jarraitu beharreko prozedura.

5.4.3.4.5. Zerbitzuen Lokalak

Kafetegietan, erreprografietan eta UPV/EHUkoa ez den pertsonala duen beste gune batzuetan Autobabeserako Batzordea emakidaren esleipendunekin koordinatu beharko da lokalaren ebakuazio-sistema ezartzeko.

5.4.3.4.6. Beste gune batzuk

Garajeetan, artxiboetan eta lehen aipatu ez diren beste gune batzuetan, Autobabeserako Batzordeak zehaztuko du ebakuazio-sistema ikastegiaren ezaugarrien arabera.

5.4.3.4.7. UPV/EHUkoak ez diren langileak

Unibertsitatekoak ez diren irakasle edo langileek UPV/EHUko lokalak erabiltzen badituzte, Ikastegiko Autobabeserako Planaren berri eman eta Segurtasun Fitxa entregatuko zaie.

— Lehen esku-hartzeko taldeek jarduera arruntean dituzten funtzioak:

- Ez dute funtziorik.

— Lehen esku-hartzeko taldeek larrialdietan dituzten funtzioak:

- Larrialdia euren erantzukizunpeko gunean izaten bada, Kontrol Zentroari alarma ematea.
- Zona hustu eta Lehen Esku-hartzeko Taldea iritsi arte itxarotea. Ebakuazioa alarma orokor baten ondorioz eraikina erabat hustu beharraren parte bada, arduradunak gidatuko ditu bere zonako gainerako pertsonak eraikinaren kanpoaldeko Bilgunera.
- Behin taldea Bilgunera iristen denean, jendea zenbatu eta Larrialdietako Zuzendariari adierazi norbaiten falta sumatzen den.
- Osasun-langile trebatuak iristen diren bitartean lesioren bat edo zorabioren bat izan dute-nak lasaitzea.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>10/15</u></p>
---	--	---

— Lehen esku-hartzeko taldeek behar dituzten ezagutzak:

- Ebakuazio-bideak, noranzkoak, larrialdietako irteerak eta bilgunearen kokalekua ezagutzea.
- Segurtasuneko eta larrialdietarako ekipamenduak maneiatzeko ikastaroa egitea, eraikin bakoitzera egokitutakoa.
- Lehen laguntzen ikastaroa.

Kolektibo horretako langileen artean era horretako ikastaroak egitea bideratuko da eta behar-tuta egongo dira egitera Administrazioaren antolaketaren arabera.

5.4.3.5. Kontrol Zentroa

Larrialdiren bat izaten denean jarduketa guztiak barrutik eta kanpotik koordinatzeko Autobabeserako Batzordeak aukeratutako lekua da.

Kontrol Zentroko koordinatzailea: Lehen Esku-hartzeko Taldeko kidea da, Larrialdiak irauten duen bitartean gunen horretan egon behar duena.

— Kontrol Zentroak jarduera arruntean duen funtzioa:

- Ez du funtziorik.
Kanpoko (112, inguruko ospitaleak...) eta barruko (Larrialdietako Zuzendaria edo ordezkaria, Lehen Esku-hartzeko Taldeko kideak...) telefono garrantzitsuenak jasotzen dituen eta erraz identifika daitezkeen telefono-direktoria egon behar du.
Eraikinaren planoen eta kanpoko baliabideentzako (suhiltzaileak...) beharrezkoa den Autobabeserako Planaren zatiaren kopia bat egon behar du.

— Kontrol Zentroak larrialdietan dituen funtzioak_

- Lehen Esku-hartzeko Taldeko kideekin eta Larrialdietako Zuzendariarekin lehenbailehen harremanetan jartzea.
- Larrialdietako Zuzendariaren aginduak betetzea (Alarma Orokorra ematea, kanpoko taldeei abisatzea, barruko talde edo langileei abisatzea).
- Lehen Esku-hartzeko Taldeko beste kide bati honako hauek egiteko premia jakinaraztea:
 - Ateak irekitzeko premia, ebakuazioa errazteko.
 - Instalazioetako giltza orokorrak ixtea, hurbil baldin badaude.

— Kontrol Zentroak behar dituen ezagutzak:

- Instalazioak eta instalazio orokorrak ezagutzea.
- Autobabeserako Plana ezagutzea.

Eraikinaren ezaugarrien arabera, baliabide materialak jarriko dira Lehen Esku-hartzeko Taldeak eta Larrialdietako Zuzendariak Kontrol Zentroarekin komunikazio egokia izan dezaten, larrialdiko egoeretan haien funtzionamendua bermatuz.

Honako hauek dira Larrialdi Taldeko kide nagusiek izan behar dituzten funtzio garrantzitsuenak. Taldea handitu edo murriztu egin daiteke eraikin bakoitzaren eta Autobabeserako Planaren premien arabera.

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 11/15</p>
--	--	---

Garrantzitsua da taldeko postuetarako ordezkoen zerrenda egitea kideetakoren bat ez dagoenerako. Ordezkoek ezagutza berberak izan behar dituzte eta funtzio berberak izango dituzte.

5.4.3.6. Segurtasun Zerbitzuarekiko koordinazioa

- Segurtasunaz arduratzen diren langileek unibertsitateko eraikinetan eta guneetan sor litezkeen larrialdietan izan behar duten jarduketa Autobabeserako Planetan aurreikusitakora egokituko da eta barruko eta kanpoko zerbitzuekin koordinatuta gauzatuko da.
- Hala, ikastegia irekita dagoen orduategiaren barruan izaten bada larrialdia, Larrialdietako Zuzendariak edo, hura falta bada, Autobabeserako Batzordeak segurtasuneko langileen laguntza eskatuko du.
- Segurtasun Zerbitzua larrialdietako zuzendariaren zerbitzura jarriko da eta, eraikina hustu beharra izaten bada, zona hesituko du eta ez dio inori utziko eraikinean sartzen larrialdiak jarraitzen duen bitartean.
- Larrialdi-egoera Segurtasun Zerbitzuak detektatzen badu, larrialdietako zuzendariari, ikastegiko zuzendariari edo dekanuari eta horietako inor ez badago, atezainari abisatuko dio eta ikastegira joango da laguntza eskaintzera.
- Ikastegia irekita ez dagoen orduetan izaten bada larrialdia, 5. eranskinean deskribatutako jarduketa-irizpideei jarraituko zaie.
- Lehergailu-mehatxuaren kasuan edo lehergailua izan daitekeela susmatzen den paketea aurkitzen den kasuan, Segurtasuneko zuzendariari abisatuko zaio.

5.4.4. Segurtasun-fitxak

Behin pertsona bakoitzaren funtzioak zehazten direnean, Larrialdietako Taldean duen kargua kontuan hartuta, segurtasun-fitxak bete behar dira. Pertsona bakoitzak dagokion fitxa izan behar du bere lanpostuan, gertakari/istripuren bat gertatzen denean behar den bezala joka dezan.

Fitxa horien ereduak 1. eranskinean daude eta Autobabeserako Batzordeak aldatu edota zehaztu ahal izango ditu.

5.4.5. Gertakarien erregistroa

Eraikin guztietan egongo da Gertakarien/Lan-istripuen Erregistroa, Autobabeserako Planarekin zerikusia duten gorabehera guztiak jasotzeko balioko duena. Prebentzio Zerbitzuak Istripuak/Gertakariak Ikertzeko Prozedura egingo du, aipaturiko Erregistroan jaso beharko diren jarduketak xehatzeko.

Larrialdietako Zuzendariak eraikin bakoitzeko Gertakari eta Istripuen Erregistroko arduradunari emango dio informazio hori, hau da, Administrazioarekiko edo, bestela, Campuseko administrazio-buruari edo administrazioarekiko.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>12/15</u></p>
--	--	---

5.5. Ezarpen-programa

5.5.1. Erantzukizuna

Indarreko legerian aurreikusitakoarekin bat, Unibertsitatearen zerbitzura dagoen langile orok, bere gaitasunen eta jasotako prestakuntzaren neurrian, Autobabeserako Planetan eta Larrialdietako Jarduketa Planetan parte hartu beharra eta haiek aplikatuta esleitzen zaizkion funtzioak bere gain hartu beharra du.

5.5.2. Ezarpena

Ezarpen-programa bat antolatuko da, honako fase hauek dituena:

1. Eraikineko Autobabeserako Batzordea eratzea.
2. Honako hauek izendatzea:
 - Ebakuazioko eta Alarmako arduradunak.
 - Lehen esku-hartzeko taldea.
3. Autobabeserako Batzordeko, Lehen esku-hartzeko taldeko eta Ebakuazio eta Alarmako taldeko kideen prestakuntza.
4. Larrialdietan ebakuazioa bermatzeko behar diren oinarrizko hobekuntzak egitea.
5. Planaren hedapena:
 - Erabiltzaileentzako informazio-orriak (II eta AZP, ikasleak, bekadunak, enpresak).
 - Argibideak dituzten kartelak jartzea.
6. Simulazioak:
 - Prestaketa.
 - Gauzatzea.

Prozesua modu grafikoan dago jasota 4. eranskinean.

Aldiro-aldiri, Larrialdietako Zuzendariak Autobabeserako Plana Ezartzeko prozesuaren berri emango dio dagokion Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordeari.

5.5.3. Babes-neurrien mantentzea

Babes-neurriak egiaztatzea eta mantentzea beharrezkoa da uneoro bermatzeko funtzionatzeko baldintza onetan daudela.

Instalazioko arduradunek egin beharreko egiaztapenak egiteko xede horretarako inprimakia bete behar da.

Campuseko gerentziordetza izango da suteen aurkako babes-neurriak mantentzearen ardura-duna.

Egiaztapenen maiztasuna indarreko legeriaren arabera ezarriko da.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 13/15</p>
---	---	---

5.5.4. Autobabeserako Planaren Eguneratzeak

Autobabeserako Planak zehaztu gabeko indarraldia izango du; behar den bezala eguneratuta edukiko da eta hiru urtean behin berrikusiko da, gutxienez.

Autobabeserako Planak beti etorri behar du bat egungo errealitatearekin eta hori gertatzen ez denean berrikusi egin behar da. Horretarako, honako berrikuspen hauek egingo dira:

- Berrikuspen arruntak, neurriei eta langileei dagozkien aldaketak Autobabeserako Planean txertatu ahal izateko 3 urtean behin egingo direnak, jarduketak (obrak, berrikuntzak...) Autobabeserako Planari berehala eranstea kontuan izan gabe.
- Berrikuspen bereziak, esperientzia berrien ondorioz, araudian edo antolaketan izandako aldaketan ondorioz edo Autobabeserako Planaren funtsezko alderdietako bati eragiten dien instalazio berrien ondorioz egingo direnak.

5.5.5. Langileen prestakuntza

Ezinbestekoa da Autobabeserako Plana martxan jartzeko eraikineko pertsona guztiek Larrialdi-egoerarako jarduketa-prozedura orokorrak ezagutzea eta baita larrialdian esleitzen zaion egitekoaren araberako espezifikoak ere.

Horretarako, Autobabeserako Batzordeko kideek Planaren kopia osoa jasoko dute.

Gainerako langileek dagozkien jarduketa-fitxak soilik hartuko dituzte.

Autobabeserako Batzordeak zabalduko du Autobabeserako Planaren edukia eraikineko langileen artean. Horretarako, hainbat bilera egin beharko dira, talde homogeenok osatuz, Planaren ildo nagusiak eta, batik bat, bere garapenaren filosofia ondo ezagutzen dituen aditu batekin.

Larrialdietako Taldeetako langileek, bestalde, prestakuntza espezifikoak jaso behar dute esleitutako funtzioak bete ahal izateko.

Segurtasunari eta Osasunari buruzko Trebakuntza Planean aurreikusiko dira Larrialdiko Taldeei esleitutako langileek egin beharreko ikastaroak.

5.5.6. Simulazioak

Autobabeserako planak ebaluatzeko eta larrialdietako jarduketa-planen eraginkortasuna eta operatibotasuna bermatzeko larrialdi-simulazioak egingo dira planak berak finkatutako aldizkakotasunarekin eta, edozein kasutan, gutxienez urtean behin emaitzak ebaluatuz.

Simulazioak egitearen helburua honako hauek egiaztatzea eta frogatzea izango da:

- Erakundearen eraginkortasunak larrialdi baten aurrean erantzuten duela.
- Erakundeari atxikitako langileen gaitasunak erantzuna ematen duela.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>14/15</u></p>
--	--	--

- Larrialdi bati aurre egiteko jardueran langile guztiak trebatzen direla.
- Esleitutako bitarteko eta baliabideen askitasuna eta egokitasuna.
- Jarduketa-prozeduren egokitzapena.

Simulazioari arrakastaz aurre egiteko, honako jarduketa hauek egin behar dira: informazio-bilerak egingo dira eraikineko langileekin, bekadunekin eta ikasleekin.

Ikasturte-hasieran bilera egitea orokortuko da.

Larrialdi-simulazioa suhiltzaile-taldearekin eta babes zibileko beste kide batzuekin elkarlanean prestatuko da eta, ahal izanez gero, bertan parte harraraziko zaie.

Simulazio bakoitzaren ondoren eta larrialdi-taldeko gainerako kideei ezarritako mekanismoen bitartez entzun ondoren, Autobabeserako Batzordea bildu egingo da emaitza baloratzeko. Batzordeak txostena egingo du, simulazioko gorabeherak eta detektatutako akatsak konpontzeko hobeak jasoko dituen. Txostena Larrialdietako Zuzendariak idatziko du 3. eranskinean jasotako formatuan (Simulazioak kontrolatzeko fitxa). Jatorrizkoa Gertakarien Liburuan gordeko da eta kopia bat Prebentzio Zerbitzura bidaliko da.

Autobabeserako Planaren ezarpena Prebentzio Zerbitzuko kideen lehen bilerarekin hasten da, Ikastegiko Zuzendaritzari gaia azaltzen diotenean.

5.6. Jarraipena eta hobekuntza-ekintzak

Simulazioei buruzko eta simulazioetan detektatutako hobekuntza-arloei eta neurri zuzentzaileei buruzko jarraipena egingo da.

Halaber, larrialdiko taldeetan erantzukizuna duten langileek prozedura honetan ezarritako jakintza-arloetako prestakuntzaren jarraipena egingo da.

Jarraipena urtero egingo du Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak Prebentzio Zerbitzuak aurrez egindako txostenaren bitartez eta, egoki baderitza, behar diren neurri zuzentzaileak ezarriko ditu.

5.7. Erreferentziako dokumentuak

- 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa. Larrialdiko egoerak eragin ditzaketen jarduerak dituzten ikastegi, establezimendu eta guneen Autobabeserako Oinarrizko Araua.
- 1468/2008 Errege Dekretua, irailaren 5koa. Larrialdiko egoerak eragin ditzaketen jarduerak dituzten ikastegi, establezimendu eta guneen Autobabeserako Oinarrizko Arauaren aldaketa.
- Azaroaren 2ko 277/2010 Dekretua, larrialdiko egoerei aurre egiteko zenbait jarduera, ikastegi edo establezimenduri eska dakizkiekeen autobabeserako betebeharrak arautzen dituena.

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>15/15</u></p>
---	--	--

5.8. Eranskinak

- 1. eranskina: segurtasun-fitxak.
- 2. eranskina: suteen aurkako baliabideen mantentzea.
- 3. eranskina: larrialdi-simulazioa.
- 4. eranskina: autobabeserako planak ezartzeko fluxugrama.
- 5. eranskina: eskola orduetatik kanpoko segurtasuna-sutea.
- 6. eranskina: unibertsitatean, ezintasunak dituzten pertsonekin larrialdi-kasuetan jarduteko protokoloa.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">1/4</p>
---	--	---

I. eranskina. Segurtasun-fitxak

1. taula. Larrialdirako zuzendariaren segurtasun-fitxa

Zer egin larrialdia gertatuz gero	Larrialdirako zuzendaria
<p>Gorabehera/ ezbeharra adieraztea</p> <p>Kontrolatzeko modukoa bada</p> <p>Kontrolaezina bada</p>	<p>— Gertaera jazo den tokira joan, eta gorabeheraren/ezbeharraren ebaluazioa egin.</p> <p>— Lehen esku-hartzeko taldearen lanak gidatu, larrialdia gertatu den eremu edo sektorean.</p> <p>— Kalteen ebaluazioa egin, eta horien arabera jardun, ahal bezain laster egoera normalera itzultzeko.</p> <p>— ALARMA OROKOR eta EBAKUAZIO PLANA abiarazi, kontrol-zentroaren bidez.</p> <p>— Kanpoko bitartekoei deitzeko izapideak egin; zeregin hori kontrol-zentroari eskuordetuko zaio. TELEFONO-ZERRENDA.</p> <p>— Segurtasun-taldearen lanak ikuskatu, eta ebakuazioa bizkorra eta erabatekoa dela egiaztatu.</p> <p>— TOPALEKURA joan, kanpoko bitartekoei harrera egiteko; zeregin hori eskuordetu egin dezake. Langile guztiak eraikinetik kanpo daudela egiaztatu.</p>
<p>Larrialdiaren amaiera</p>	<p>— Kalteak ebaluatu.</p> <p>— Egoera normalera itzultzeko jarraibideak zehaztu, kanpoko bitartekoen laguntzaz.</p> <p>— Erregistrorako txostenak egin.</p>

2. taula. Lehen Esku-hartzeko Taldearen segurtasun-fitxa

Zer egin larrialdia gertatuz gero	Lehen Esku-hartzeko Taldea
<p>Gorabehera/ ezbeharra adieraztea</p> <p>Kontrolatzeko modukoa bada</p> <p>Kontrolaezina bada</p>	<p>— Gertaera jazo den tokira joan, berehala.</p> <p>— Larrialdia arintzen edo/eta deuseztatzen ahalegindu, eskura dituen baliabideekin.</p> <p>— LARRIALDIRAKO ZUZENDARIAK egoki irizten dionean, ALARMA ETA EBAKUAZIO PLANAREN arabera jardun, itxi beharreko giltza orokorrak itxiz.</p> <p>— Ebakuazioa behar den bideetatik egiten lagundu; horretarako, bidean topatzen dituen leihoak itxiko ditu.</p> <p>— Instalazioetatik irten aurretik, barruan inor gelditzen ez dela egiaztatu.</p> <p>— TOPALEKURA JOAN.</p> <p>— Ezbeharraren xehetasunen berri eman LARRIALDIRAKO ZUZENDARIARI.</p>
<p>Larrialdiaren amaiera</p>	<p>— Egoera normalera itzultzeko neurriak ezartzen lagundu.</p> <p>— Goragoko mailako arduradunei informazioa eman.</p>

 <p>enbat ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">2/4</p>
--	--	--

3. taula. Ebakuazioaren eta Alarmaren arduradunen segurtasun-fitxa

Zer egin larrialdia gertatuz gero	Ebakuazioaren eta Alarmaren arduradunak
<p>Gorabehera/ ezbehera adieraztea Kontrolatzeko modukoa bada</p> <p>Kontrolaezina bada Alarma orokorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Kontrol-zentrora alarma-deia egin, larrialdia bere ardurapeko eremuan gertatzen bada. — Larrialdiak ukitutako eremutik jendea ebakuatu, lehen esku-hartzeko taldea iritsi arte. <ul style="list-style-type: none"> — Beren ardurapeko eremuko jendea ebakuatu, eta TOPALEKURA bideratu; dagoen eremuko gainerako irakasle eta arduradunekin lankidetzan jardungo dute, jendea eraikinetik bizkor eta modu ordenatuan atera dadin. — Larrialdirako zuzendariari jakinarazi faltan sumatutako kideen berri eta min hartutako jendearentzako osasun-laguntzako premien berri. Osasun-zerbitzuetako kideak iritsi artean, kalteak dituztenei arreta eman, lehen laguntzan dituzten ezagueren arabera. — Kanpoko baliabideei lagundu, ahal den neurrian.
<p>Larrialdiaren amaiera</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Goragoko arduradunen jarraibideak bete.

4. taula. Kontrol-zentroaren segurtasun-fitxa

Zer egin larrialdia gertatuz gero	Kontrol-zentroko koordinatzailea
<p>Gorabehera/ ezbehera adieraztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Lehen esku-hartzeko taldearengana jo, eta larrialdiaren eraginpeko eremuan esku har dezan eskatu. — Larrialdirako zuzendariari abisatu. — Larrialdirako zuzendariaren aginduak bete. — Larrialdirako zuzendariarekin harremanetan egon, iraunkorki, haren aginduak jaso eta transmititzeko (ALARMA ETA EBAKUAZIOA, KANPOKO ZERBITZUEI DEITZEA...). — TELEFONO-ZERRENDA eskura eduki, kanpo-zerbitzuei berehala abisatu ahal izateko. — Ez alde egin kontrol-postutik, salbu eta Larrialdirako zuzendariak alde egiteko esaten badio edo larrialdiaren ezaugarriak direla-eta alde egin behar badu (halakoetan, jakinarazi egin beharko du). — Ate nagusiak ireki, ebakuazioa errazteko. — TOPALEKURA joan.
<p>Larrialdiaren amaiera</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Goragoko arduradunen aginduen zain gelditu.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">3/4</p>
---	--	--

5.taula. Ikasleen eta irakasleen segurtasun-fitxa

Zer egin larrialdia gertatuz gero	Ikasleak eta irakasleak
<p>Gorabehera/ ezbehera adieraztea Kontrolatzeko modukoa bada</p> <p>Kontrolaezina bada Alarma orokorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Kontrol-zentrora alarma-deia egin, larrialdia beraiek dauden tokitik hurbil gertatuz gero. — Ebakuazioa gauzatu, ebakuazioaren eta alarmaren arduradunek emandako jarraibideak betez. <ul style="list-style-type: none"> — Eraikina ebakuatu, ALARMA ETA EBAKUAZIO PLANari jarraituz, TOPALEKURAino. — Berehala irten ikasgela, tailer edo laborategitik; zuzenean jo irteerara, ebakuazio-bideek adierazte duten noranzkoari jarraituz. — Lagundu, lehen eta behin, ezintasunen bat duten pertsoneri eta istripua izan dutenei edo ondoezik daudenei. — Ordenan irten, eta lasai; ez egin lasterka. — Ez erabili igogailurik. — Saiatu ez bultzatzen eta pilatzen. — Ez egin atzera. — TOPALEKURA joan.
<p>Larrialdiaren amaiera</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Ebakuazioaren eta alarmaren arduradunen jarraibideak bete.

6. taula. Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren (AZP) segurtasun-fitxa

Actuación frente a una emergencia	Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonala (AZP)
<p>Gorabehera/ ezbehera adieraztea Kontrolatzeko modukoa bada</p> <p>Kontrolaezina bada Alarma orokorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Kontrol-zentrora alarma-deia egin, larrialdia beraiek dauden tokitik hurbil gertatuz gero. — Ebakuazioa gauzatu, ebakuazioaren eta alarmaren arduradunek emandako jarraibideak betez. <ul style="list-style-type: none"> — Eraikina ebakuatu, ALARMA ETA EBAKUAZIO PLANari jarraituz, TOPALEKURAino. — Berehala irten ikasgela, tailer edo laborategitik; zuzenean jo irteerara, ebakuazio-bideek adierazte duten noranzkoari jarraituz. — Lagundu, lehen eta behin, ezintasunen bat duten pertsoneri eta istripua izan dutenei edo ondoezik daudenei. — Ordenan irten, eta lasai; ez egin lasterka. — Ez erabili igogailurik. — Saiatu ez bultzatzen eta pilatzen. — Ez egin atzera. — TOPALEKURA joan.
<p>Larrialdiaren amaiera</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Ebakuazioaren eta alarmaren arduradunen jarraibideak bete.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/4</p>
---	--	---

7. taula. UPV/EHUtik kanpoko langileen segurtasun-fitxa

Actuación frente a una emergencia	UPV/EHUtik kanpoko langileak
<p>Gorabehera/ ezbeharra adieraztea Kontrolatzeko modukoa bada</p> <p>Kontrolaezina bada Alarma orokorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Kontrol-zentrora alarma-deia egin, larrialdia beraiek dauden tokitik hurbil gertatuz gero. — Ebakuazioa gauzatu, ebakuazioaren eta alarmaren arduradunek emandako jarraibideak betez. <ul style="list-style-type: none"> — Eraikina ebakuatu, ALARMA ETA EBAKUAZIO PLANARI jarraituz, TOPALEKURAino. — Berehala irten ikasgela, tailer edo laborategitik; zuzenean jo irteerara, ebakuazio-bideek adierazte duten noranzkoari jarraituz. — Lagundu, lehen eta behin, ezintasunen bat duten pertsoneri eta istripua izan duteneri edo ondoezik daudeneri. — Ordenan irten, eta lasai; ez egin lasterka. — Ez erabili igogailurik. — Saiatu ez bultzatzen eta pilatzen. — Ez egin atzera. — TOPALEKURA joan.
<p>Larrialdiaren amaiera</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Ebakuazioaren eta alarmaren arduradunen jarraibideak bete.

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.3</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/4</u></p>
---	--	---

3. eranskina. Larrialdi-simulazioa

Datu orokorrak

- Titularra: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Eraikina:
- Helbidea:
- Udalerria:
- Lurraldea:
- Simulazioaren data:
- Larrialditako zuzendaria:
- Aztertutako larrialdia:
- Bertan zeuden pertsonen kopurua:
 - Bertakoak:
 - Kanpokoak:
 - Guztira:

Ebakuazioaren iraupena

Eremua / Gunea / Eraikina	Denbora
Beheko solairua 1. solairua 2. solairua 3. solairua	
Guztira	

Sistemen eta ekipoen funtzionamendua

Sistema	Erabili zen		Funtzionamendua	
	Bai	Ez	Zuzena	Okerra
Su-itzalgailuak				
Sute-aho hornituak				
Ur-hartuneak				
Detektagailuak-alarmak				
Sua itzaltzeko sistema automatikoak				
Seinaleak-argiak				
Ke-ebakuazioa				
Irteerak				
Ebakuazio-bideak				

Oharrak

Hornidura-kontrola

Hornidurak kontrolatu ziren	Bai	Ez	Ez dago
Elektrizitatea			
Ura			
Gasa			
Irteera-ateak			
Ebakuazio-eskailerak			

Gorabeherak

Mota	Kaltetuen kopurua	Balorazioa
Pertsonen izandako istripuak		
Higiezin hondatuak		
Material hondatuak		

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.3 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/4</p>
---	---	--

Oharrak

Bertako langileen parte-hartzea

(jarri X bat dagokion laukian)

Oso ona	
Ona	
Erdipurdikoa	
Txarra	

Oharrak

Kanpoko langileen parte-hartzea

(jarri X bat dagokion laukian)

Oso ona	
Ona	
Erdipurdikoa	
Txarra	

Oharrak

Kanpoko zerbitzuen parte-hartzea

(jarri X bat dagokion laukian)

Suhiltzaileak	Oso ona	
	Ona	
	Erdipurdikoa	
	Txarra	
	Ez zuten parte hartu	
Osasun-Zerbitzuak	Oso ona	
	Ona	
	Erdipurdikoa	
	Txarra	
	Ez zuten parte hartu	
Ertzaintza / Udaltzainak	Oso ona	
	Ona	
	Erdipurdikoa	
	Txarra	
	Ez zuten parte hartu	

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.3</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>4/4</u></p>
--	--	---


Oharrak

Ebakuazio-bideetako gune gatazkatsuak:

Proposamenak eta iradokizunak:

4. eranskina. Autobabeserako Planak ezartzeko fluxugrama

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.4 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p>	<p>1/1</p>
---	---	---	------------



 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.5 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/3</u></p>
---	--	--

5. eranskina. Eskola-orduetatik kanpoko segurtasuna-sutea

Protokolo hau indarrean jarriko da, UPV/EHUko eraikinetako larrialdi-planen garapenaren kalterik gabe; hain zuzen ere, protokoloa plan horietan txertatuko da, unibertsitate-komunitatearen autobabeserako eta prebentziorako, babes zibilari eta laneko segurtasunari buruzko araudia aintzat hartuta.

Baliabide horiek behar bezala zabaltzeko, hainbat ekintza egingo dira; hala nola, aldiroko simulazio ariketak.

Esan bezala, jarduera-ildo hauek UPV/EHUko eraikinetako larrialdi-planetan ezarritakoen osagarriak dira. Hala, sutea eskola-ordutegiaren barruan gertatuz gero, Larrialdirako zuzendariak edo, haren ordeztuz, Autobabeserako Batzordeak hartuko dute beren gain Larrialdi Planean zehaztutako jarduera ildoen ardura; horretarako, segurtasuneko langileen laguntza izango dute.

Sutea eskola-ordutegitik kanpo gertatuz gero, berriz, jarduera-ildo hauek beteko dira.

Sutea gertatuz gero

- Hiru bidetatik antzeman dakiokete larrialdiari: Segurtasun Zerbitzuak antzemanda, kontrol-eremutik iraunkorki egiten dituen alarmen ikuskaritzen bidez; UPV/EHU langileak nahiz erabilitzaileak ohartuta; eta hirugarrenek jakinarazita.
- Sute-alarma aktibatutakoan, gorabehera gertatutako tokira joango da segurtasuneko zaintza-patruiak. Han, alarmen zentralita aztertuko du, gorabehera egiaztatzeko, eta zentralitak adierazitako terminalera joko du; terminala berriro abiaraziko du, edo, sutea dela egiaztatuz gero, larrialdi plana abian jarriko du.
- Alarma oinarririk gabekoa bada, terminala egiaztatu, eta berrabiarazi egingo da, baita alarmen zentralita ere.
- Alarmen sisteman matxura gertatuz gero, berehala jakinaraziko zaio kanpoko mantentze-zerbitzuari, matxura konpon dezan. Konpontzen ez den arte, zaintza-langileek arreta bereziz zainduko dute ikastegi hori, denbora gutxian behin erronda eginez.
- Sutea dagoela egiaztatuz gero, Segurtasun Zerbitzuak lehen balioespena egingo du, larrialdiaren hedaturari buruz eta egoera bere kabuz kontrolatzeko aukerari buruz. *Su txikia* baldin bada, sutea hasi berria dela esan nahi du, eta ezaugarri hauek izan ditzake:
 - Segurtasun Zerbitzuak edo UPV/EHUko larrialdi-planetako kideek zuzenean, bizkor eta erraz kontrolatzeko eta menderatzeko moduko sua, hirugarrenen laguntzarik eskatzen ez duena.
 - Dagokion lokal, areto edo sektoreko babes-instalazioak erabilia kontrolatzeko eta itzaltzeko moduko sutea.
 - Su hasi berria kontrolatzeko eta itzaltzeko gaitasuna duten langileek pertsona edo ondarenentzako arrisku larririk gabe itzaltzeko moduko sua.
 - Sutea handia bada, berriz, zaintza-langileek Larrialdi Plana indarrean jarriko dute. Egoeraren berri eman behar diote Ikastegiko zuzendari edo dekanuari, edo, haien ordeztuz, Larrial-

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.5 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>2/3</u></p>
---	--	---

dirako zuzendariari edo Campuseko gerenteordeari, eraikina hustu dezaten, horretarako jarraibideak aintzat hartuta.

— *Su handia* honela definitzen da:

- Hasi eta berehala kontrolatu ezin izan den sutea.
- Aurreko atalean su txikia deskribatzeko emandako ezaugarriei dagokiena baino su handiagoa.

— Azken batean, sute handia da establezimenduko edo eraikineko babes-ekipo eta babes-baliabide guztiak erabiltzea eta kanpoko sorospeneke eta salbamenduko bitartekoen laguntza eskatzen duena, baita kalteak izandako pertsonak kanpora ateratzea ere, irizpide hauek kontuan hartuta:

Aurreko atalean deskribatutako neurriak hartu beharko dira, Segurtasun Zerbitzuak egoera hauetakoren bati antzemanaz gero.

— Zaintza-langileek berehala jakinaraziko diote kontrol-zentroari zer larrialdi mota den eta zer ezaugarri dituen.

— Segurtasuneko Kontrol Zentroak berehala deituko die larrialdi-zerbitzuei (112, Ertzaintza, suhiltzaileak, osasun-zerbitzuak...), sutearen xehetasunen berri emateko. Berehala jakinaraziko zaio UPV/EHUk izendatutako arduradunari ere, hau da, ikastegiko zuzendari edo dekanuari, edo, hari izan ezean, Larrialdirako zuzendariari eta Campuseko gerenteordeari.

— Segurtasun Zerbitzuak Prebentzio Zerbitzuari emango dio egoeraren berri.

— Segurtasun Zerbitzuak, eraikina hustu behar izanez gero, larrialdiak ukitutako eraikinean edo aretoan dauden pertsonen abisatuko die, Larrialdi Plana abian jartzeko; eta hartu beharreko neurri guztiak hartuko ditu, plan hori gauzatzeko, honako hau barne, hala dagokionean:

- Alarma akustikoa piztea edo/eta megafonia-sistema erabiltzea.

— Segurtasun Zerbitzuko langileek harrera egingo diete larrialdi-zerbitzuetakoei; ezbeharrak gertatu den eta egoera zein den azalduko diete, eta haiek eskatutako moduan laguntzeko jarri beharreko bitartekoak jarriko dituzte. Larrialdiko-zerbitzuak iristen diren unetik aurrera, haien esku egongo da larrialdiaren zuzendaritza.

— Zaintza-langileak larrialdi-zerbitzuekin lankidetzan arituko dira, haiek eskatzen duten heinean: sutea gertatu den jakinaraztea, haren hedadura zehaztea, eraikinean inor dagoen esatea, eraikinean zer sarbide edo husteko zer bide dituen erakustea, eraikina husten laguntzea, hondakinak ateratzen laguntzea, etab.

PROZEDURA

Izenburua:

Larrialdien kudeaketa

KODEA PPRL_PR_05.5

BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30

3/3

Gorabeheren berri emateko telefono-zenbakiak

Tokia	Ordutegia	Telefonoa
UPV/EHU osoa	20:00-8:00 (astelehenetik ostiralera eta asteburutan)	143434 (945013434)
Bizkaiko Campusa	Egun osoz	142644
Gipuzkoako Campusa	Egun osoz	138430
Arabako Campusa	Egun osoz	153870

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Larrialdien kudeaketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_05.6</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/1</u></p>
---	--	---

6. eranskina. Unibertsitatean, larrialdi-kasuetan ezintasunak dituzten pertsonekin jarduteko protokoloa

- Urritasunak dituzten ikasleen errolda UPV/EHUko Ezintasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak egiten du. Errolda ikasturtero eguneratzen dute, eta bertan adierazten dute nork behar dituen neurri espezifikoak ebakuazio- edo larrialdi-kasuan.
- Ikasturtero, Zerbitzuak ikastegiko premia berezidun ikasleen arduradunari bidaltzen dio errolda; arduradun hori zuzendaritza-taldearen edo dekanotaldearen kide bat izango da.
- Ikastegian urritasunen bat duten ikasleek arduratzen den pertsonak nahitaez jakinarazi behar dio ikastegiko Autobabeserako Batzordeari larrialdi-planetan neurri espezifikoak behar dituzten ikasle ezinduak daudela. Arduradunak beharrezko datuak emango dizkio batzorde horri, eta azken horrek kontuan hartuko ditu ikasle horiek, Autobabesarako Planak aplikatzeko.
- Hortaz, beharrezkoa da larrialdi-planetako neurriak ikasturtero berrikustea, ebakuazio-beharrak aldatu egin baitaitezke.
- Halaber, simulazioak ikastegiko ezintasunak dituzten erabiltzaileak kontuan hartuta programatu eta antolatu beharko dira.

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/6</u></p>
--	--	---

6

Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa

PROZEDURA

Izenburua:

Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa

KODEA PPRL_PR_06

BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30

1/6

- 6.1. Helburua
- 6.2. Irismena
- 6.3. Definizioak
- 6.4. Jarduera prozedura
 - 6.4.1. Ikerketa
 - 6.4.2. Komunikazioa
 - 6.4.3. Txostena idaztea
 - 6.4.4. Langile azpikontratatuekin jarduteko prozedura
- 6.5. Neurri zuzentzaileen eta hobekuntza neurrien jarraipena
- 6.6. Erreferentziak
- 6.7. Eranskinak

Eranskinak

- 1. eranskina. Komunikazio-bideak, Prebentzio Zerbitzuarekin.
- 2. eranskina. Istripuaren edo gorabeheren berri emateko fitxa.
- 3. eranskina. Istripuen eta gorabeheren erregistroa.
- 4. eranskina. Txostenaren eredia: istripuak ikertzea.

 <p>emán ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">3/6</p>
---	--	--

6.1. Helburua

Prozedura honen bidez istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen berri emateko prozedura ezarri nahi da eta istripuen ikerketa sistematizatu, istripuak eragin dituzten arrazoiak zehaztu eta istripuei aurrea hartzeko neurriak hartu nahi dira.

6.2. Irismena

Prozedura UPV/EHU osoan aplikatuko da, nahitaez. Pertsonengan zein baliabide materialetan kalteak eragin dituzten istripu guztiak ikertuko eta erregistratuko dira.

6.3. Definizioak

LANEKO ISTRIPUA: bat-bateko eta ezusteko gertakaria, enpresan kalteak eragin ditzakeena, eta langileengan lesioak edo heriotza eragin ditzakeena. Laneko istripuztat hartuko da langileak besteren kontura egiten duen lanean edo lanaren ondorioz jasandako edozein lesio.

GORABEHERA: nahi gabeko gertaera, beste baldintza batzuetan kalte fisikoa, lesioak edo gaixotasuna eragin litzakeena edo kalte materialak eragin litzakeena.

«In itinere» ISTRIPUA:

- Lanarekin duen lotura: lanera joateko edo lanetik etortzeko bidean (joan-etorrian).
- Denbora: sartzerakoan edo ateratzerakoan, gehienez ere *bi* orduko epean.
- Ohiko ibilbidean.
- Ohiko garraiobidean.

ISTRIPUA «eginkizunean»:


- Eginkizuna betetzeko egin behar den ibilbidea.
- Agindutako eginkizuna betetzeko lekuan eta denboran (adibidez, nahitaez gaua pasa behar bada).

LANEKO GAIXOTASUNA: Laneko Gaixotasunak dira besteren kontura egindako lanaren ondorio diren gaixotasun guztiak, baldin eta laneko gaixotasunei buruzko 1299/2006 Errege Dekretuko I. eranskinean agertzen badira.

6.4. Jarduera prozedura

6.4.1. Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa

Prebentzio Zerbitzuari dagokio istripuak, gorabeherak eta laneko gaixotasunak ikertzea, bere eskumenen baitan. Unibertsitate-komunitateko kide orok bere eskura duen informazio guztia eman beharko du.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/6</p>
---	--	---

Prozedura honen bidez istripua gertatu aurreko baldintzak berreraiki nahi dira, lekuan bertan; hots, istripua gertatzeko aukera eman zuten baldintzak. Horretarako, istripuari buruzko datu nagusiak bildu behar dira (mota, denbora, lekua, eragile materialaren baldintzak, lanpostuaren baldintza materialak, istripua jasan duen pertsonaren prestakuntza eta eskarmentua, lan-metodoak, enpresaren antolakuntza), eta baita istripua nola gertatu zen deskribatzeko interesgarriak izan daitezkeen datu osagarriak ere.

Beraz, ezbeharraren jatorria zehaztu nahi da, etorkizunean beste ezbehar batzuk gerta daitezzen saihesteko, eta horretarako, zenbait jarraibide metodologiko ezarri dira:

- Prozedura honen helburua ez da arduradunak edo ardurak bilatzea, eta bai, ordea, istripuen kate kausalean sakontzea.
- Frogatuta dauden gertaera zehatzak eta objektiboak bakarrik onartu behar dira, eta ez, ordea, interpretazioak edo iritziak.
- Balio objektiboa duten frogak eskaini ditzaketen pertsona guztiekin hitz egin behar da (istripua jasan duen pertsona, bertan zeuden lekukoak, arduradunak, etab.).
- Ikerketa berehala egin behar da.
- Istripua lekuan bertan berreraikitzen saiatu behar da. Gertaturikoa ulertzeko, lan-eremua nola antolatuta zegoen jakitea garrantzitsua da.
- Laneko baldintza materialei buruzko informazioa (instalazioak, makinak, etab.), antolakuntza-baldintzei buruzko informazioa (lan-metodoak eta lan-prozedurak) eta jokabideari buruzko informazioa (langileen prestakuntza, gaitasunak, heziketa, etab.) bildu behar da.

6.4.2. Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen komunikazioa

UPV/EHUko instalazioetan zein alorreko praktketan istripu edo gorabehera baten lekuko izan den edo istripu edo gorabehera batean nahasita egon den unibertsitate-komunitateko kide orok gertaeraren berri eman beharko dio administrazioko arduradunari eta UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuari, 1. eranskinean ezarrita dauden komunikazio-bideak erabiliz. Nolanahi ere, jardueraren edo lekuaren arduradunak berehala istripuaren edo gorabeheraren berri eman beharko dio Prebentzio Zerbitzuari, gehienez ere 24 orduko epean, 2. eranskineko fitxaren bidez. Eginbehar hori betetzen ez bada, dagozkion erantzukizunak eskatuko dira.

Prebentzioko ordezkari bide elektronikoen bidez istripuen berri emango zaie, gehienez ere 24 orduko epean. Sindikatuek helbide elektroniko bat eman beharko dute, aipaturiko informazioa bertara bidaltzeko (1. eranskina).

Laneko gaixotasun bat detektatzen bada edo susmoa badago, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloari jakinarazi beharko zaio (1. eranskina).

Prebentzio Zerbitzuak istripuetako edo gorabeheretako datuak erregistratuko ditu, istripuen eta gorabeheren azterketa estatistikoa egiteko (3. eranskina).

Prebentzio Zerbitzuak istripuen eta gorabeheren berri emango die, unean unean, prebentzioko ordezkari bide eta administrazioko ordezkari bide, Campuseko eta Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeetan.

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>5/6</u></p>
--	--	---

6.4.3. Txostena idaztea

Prebentzio Zerbitzuak azken txostena idatziko du (4. eranskina), prebentzioko ordezkari batekin eta istripua edo laneko gaixotasuna gertatu den unitateko arduradunarekin elkarlanean, eta txostena Prebentzio Zerbitzuan bertan artxibatuko da, eta haren kopia bat ikastegiko edo eraikineko administrazioan.

UPV/EHUko langileren batek lesioak jasan baditu, Prebentzio Zerbitzuak txostenaren kopia bat bidaliko du Langileen Gerenteordetzara, «Delt@» inprimakia (ezbeharra izan duten langileen deklarazio elektronikoa) betetzeko.

Neurri zuzentzaileak Arriskuen Ebaluaziorako prozeduran ezarritakoaren arabera proposatuko dira.

Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloak susmoa badu langile batek laneko gaixotasun bat izan dezakeela, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuari edo Mufaceri jakinaraziko dio, eta gainera, dagokion lurralde historikoko Osalaneko Lan Osasuneko Unitateari ere jakinaraziko dio, Osalaneko zuzendariaren 2007ko abenduaren 11ko Ebazpenean (EHAA, 2008ko urtarrilaren 17koa) ezarritako prozedurari jarraituz.

6.4.4. Langile azpikontratatuekin jarduteko prozedura

Istripua edo gorabehera jasan duen langilea kontratatutako enpresa batekoa bada, txostena enpresak egingo du, bertako prebentzio-zerbitzuaren antolamenduaren arabera.


Enpresak ikerketa-txostenaren kopia bat bidali beharko dio UPV/EHUko Prebentzio Zerbituari.

6.5. Jarraipena eta hobekuntza ekintzak

Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen jarraipena Laneko Arriskuen Prebentziorako Planeko 04 prozedurako (Prebentzio-neurrien jarraipena) ildoetara jarraituz egingo da.

6.6. Erreferentziak

- 1299/2006 Errege Dekretua.
- Osalaneko zuzendari nagusiaren 2007ko abenduaren 11ko Ebazpena (EHAA, 2008ko urtarrilaren 17koa).

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>6/6</u></p>
---	--	---

6.7. Eranskinak

- 1. eranskina: komunikazio-bideak, Prebentzio Zerbitzuarekin.
- 2. eranskina: istripuaren edo gorabeheraren berri emateko fitxa.
- 3. eranskina: istripuen eta gorabeheren erregistroa.
- 4. eranskina: txostenaren eredu: istripuak ikertzea.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 1/1</p>
---	--	---

I. eranskina. Prebentzio-Zerbitzuarekin harremanetan jartzea

Istripu arina izanez gero, **Prebentzio Zerbitzuari** ere jakinaraziko zaio, Campus bakoitzari dagokion luzapenean.

Campusa	Telefonoa
Bizkaia	(14)3186/(14)3188/(14)3189
Gipuzkoa	(13)5216/(13)8144
Araba	(15)4309/(15)4226

Laneko istripu larria izanez gero, **112** telefonora *DEITU BEHAR DA* berehala, eta, ondoren, Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi behar zaio, Campus bakoitzari dagokion luzapenera deituta.

Laneko istripuen parteak helbide honetara bidali behar dira: **accidentes@ehu.es; istripuak@ehu.es**

Prebentzioko ordezkariekin harremanetan jartzeko datuak

Sindikatuak	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Helbide elektronikoa
CSI-CSIF	—	(13) 8437	(14) 2439	
CC.OO.	(15) 3399/3320	(13) 8433	(14) 2437	jorge.cobles@ehu.es zulema.fernandezbarredo@ehu.es
FETE-UGT	(15) 3396	(13) 8434	(14) 2441	jm.mendez@ehu.es
LAB	(15) 4374	(13) 8435	(14) 2436 (14) 5288	g.elkoroarestizabal@ehu.es jon.elorriaga@ehu.es
STEE-EILAS	(15) 3397	(13) 8436	(14) 2435	elena.martinez@ehu.es ruben.belandia@ehu.es
ELA	(15) 3398	(13) 8432	(14) 2442 (14) 2443	joseramon.vega@ehu.es

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 1/1</p>
---	--	---

2. eranskina. Mediku-bajarik gabeko laneko istripua

Istripua izan duenaren izena

IKASLEA AZP IRAKASLEA KONTRATATUA

Istripuaren data: □□/□□/□□.

Istripuaren ordua: □□.□□.

Istripuaren deskribapena

Lekua, nola gertatu zen, lesioak, mediku-arreta eta balizko ebakuazioa.

Istripuaren lekukoaren izena

.....(e)n, 20..(e)koren(e)(a)n

Sin:

Izena, abizenak eta lanpostua:

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06.3 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/1</u></p>
---	---	--

3. eranskina. Ikastegiko istripu eta gorabeheren erregistroa

Osasuna	Bajarik gabeko istripuen zerrenda			
Zk.	Istripua izan duenaren izena	Kategoria ikaslea, AZP, irakaslea, kontrataduna	Data	Istripuaren deskribapena
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

Segurtasuna	Gorabeheren zerrenda			
Zk.	Arazo mota	Tokia	Data	Arazoaren arrazoia
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

LAN-OSASUNEKO ZERBITZURA bidali

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_06.4 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/2</u></p>
---	--	--

4. Eranskina. Txostenaren erdua: istripuak ikertzea

1. Ikerketa-datuak
Ikerketa egin duen teknikaria:
Ikerketa-datak:
Elkarrizketatutako ikastegiko pertsonak:

2. Istripua izan duten langileen/lekukoen datuak

3. Istripua zer lan-zentrotan gertatu den

4. Istripuaren deskribapena

5. Istripuaren zergatia/istripuaren ikerketa
<p>Azterketa hau elkarrizketatutakoek emandako informazioan oinarrituta egin da, besteak beste</p>

PROZEDURA

Izenburua:

Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa

KODEA PPRL_PR_06.4

BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30

2/2

6. Argazkiak

7. Prebentzio-neurriak

8. Araudia eta dokumentazioa

9. Oharrak

 <p>emian ta zabalazazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Arrisku larria eta berehalakoa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_07 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/4</u></p>
--	--	--

7

Arrisku larria eta berehalakoa

PROZEDURA

Izenburua:

**Arrisku larria
eta berehalakoa**

KODEA PPRL_PR_07

BERRAZTERKETA **000** DATA: **2011/06/30**

2/4

- 7.1. Helburua
- 7.2. Irismena
- 7.3. Definizioak
- 7.4. Jarduteko prozedurak
 - 7.4.1. Arrisku larria eta berehalakoa jakinaraztea
 - 7.4.2. Zer egin arrisku larria eta berehalakoa gertatuz gero
 - 7.4.3. Txostena prestatzea
- 7.5. Zuzenketarako eta hobekuntzarako ekintzen jarraipena
- 7.6. Erreferentziazko dokumentuak

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Arrisku larria eta berehalakoa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_07 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/4</p>
---	---	---

7.1. Helburua

Prozedura honen xedea da UPV/EHUn arrisku larria eta berehalakoa sor dezaketen egoerei aurre egiteko jarduera-mekanismo bat finkatzea.

7.2. Irismena

Prozedura hau arrisku larria eta berehalakoa ekar dezakeen egoeren eraginpeko UPV/EHUko pertsona guztiei aplikatuko zaie, edozein dela ere hierarkiaren arabera duten maila eta erakundearekin duten erlazioa.

7.3. Definizioak

ARRISKU LARRIA ETA BEREHALAKOA: arrisku larri eta berehalakotzat hartzen da etorkizun hurbilean gertatzeko arrazoizko probabilitatea duena eta kalte larria ekar diezaikeena UPV/EHUko langileei nahiz UPV/EHUn dauden erabiltzaile edo pertsoneri, kalte horiek berehala agertu ez arren.

ARRISKUA: arriskuen definizioa eta sailkapena «Arriskuen ebaluazioa» prozeduran definituta dago.

7.4. Jarduteko prozedura

7.4.1. Arrisku larria eta berehalakoa jakinaraztea

Arrisku larria eta berehalakoa gertatuz gero, funtsezkoa da hark ukitu dituen edo hari antzeman dioten pertsona guztiek bizkor eta eraginkortasunez erantzutea.

Arrisku larria edo berehalakoa gertatzeko balizko egoera bati antzematen dionak berehala jakinarazi beharko die dagokion administratzaileari edo/eta prebentzio-ordezkariei zentzuzko arrazoiak direla-eta bere ustez pertsonen segurtasun eta osasunerako arriskua dakarren egoera.


Langilea kanpoko enpresa batekoa izanez gero, bere enpresako arduradunari abisatuko dio, edo hierarkian bere gaineratik dagoenari, baita dagokion UPV/EHUn ikastegiko administratzaileari ere.

Egoera horien berri beti eman beharko zaio Prebentzio Zerbitzuari.

7.4.2. Zer egin arrisku larria eta berehalakoa gertatuz gero

Larrialdien kudeaketa-prozeduran izendatutako zuzendariak arriskuak ukitutako langileei ahal bezain laster emango die arrisku horren berri; orobat jakinaraziko dizkie arrisku horretatik babesteko hartutako edo, hala dagokionean, hartu beharreko prebentzio-neurriak.

Era berean, hartu beharreko neurriak hartu eta eman beharreko jarraibideak emango ditu arrisku larria, berehalakoa eta saihestezina geratuz gero langileek aukera izan dezaten beren jarduera

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Arrisku larria eta berehalakoa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_07 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/4</p>
---	---	--

bertan behera uzteko eta, hala behar izanez gero, lantokitik berehala ateratzeko. Halakoetan, langileei ezingo zaie eskatu lanera itzultzeko arriskuak iraun bitartean, salbu eta segurtasun-arrazoiek justifikatzen badute eta erregelamendu bidez halaxe ezarrita badago.

Arrisku larria eta berehalakoa gertatu, eta langileek arduradunekin harremanetan jartzerik ez badute —berentzat edo beste edonorentzat arriskutsua izan daitekeelako—, arrisku horren ondorioak saihesteko hartu beharreko neurriak hartu beharko dituzte, beren ezagueretan eta eskura dituzten baliabide teknikoetan oinarrituta.

Era berean, arrisku larria, berehalakoa eta saihestezina denean, langileek aukera izan behar dute beren jarduera bertan behera uzteko eta, hala behar izanez gero, lantokitik berehala ateratzeko. Ildo horretatik, eta teknikoki ahal izanez gero, jarduera partzialki bertan behera uzteko neurriak hartu beharko dira; hau da, arriskua ekar dezaketen gailuak edo instalazioko elementuak geldituko dira soilik, eta ez instalazio osoa. Halakoetan, langileei ezingo zaie eskatu arriskuak iraun bitartean lanera itzultzeko, salbu eta segurtasun-arrazoiek justifikatzen badute eta erregelamendu bidez halaxe ezarrita badago.

LAPLaren arabera, langileen legezko ordezkariak erabaki ahal izango dute, kideen gehiengoarekin (zehazteke dago gehiengoa, kontuan hartuta, hurbiltasunagatik eta eraginkortasunagatik, Campuseko Batzordeetako prebentzio-ordezkariak. Rubén Belandiak igorriko du definizioa), arriskuak ukitutako langileen jarduera bertan behera uztea, baldin eta administrazioak ez baditu hartzen langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezko neurriak.

7.4.3. Txostena prestatzea

Prebentzio Zerbitzuak egoerari buruzko txostena osatuko du, inplikaturako pertsonekin lankidetzan.

7.5. Jarraipena eta hobekuntzarako ekintzak

Unibertsitateak iraunkorki lan egingo du babesari eusteko, eta ezarri beharreko zuzenketa-bitarteko guztiak ezarriko ditu, arrisku larria eta berehalakoa ekar dezaketen egoerak saihesteko.

7.6. Erreferentziako dokumentuak

— Laneko Arriskuen Prebentziorako 1995/31 Legea.

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Langileen osasunaren zaintza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_08</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/7</u></p>
--	---	---

8

Langileen osasunaren zaintza

PROZEDURA

Izenburua:

Langileen osasunaren zaintza

KODEA PPRL_PR_08

BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30

2/7

- 8.1. Helburua
- 8.2. Irismena
- 8.3. Definizioak
- 8.4. Jarduera prozedura
 - 8.4.1. Osasunaren hasierako ebaluazioa
 - 8.4.2. Aldian behingo osasun-azterketak
 - 8.4.3. Osasun-azterketa espezifikoak
 - 8.4.4. Luzaro lanera joan gabe egon ondorengo ebaluazioa
 - 8.4.5. Bereziki sentikorrek diren langileen eta amatasunaren babesa
 - 8.4.6. Osasunaren zaintzaren emaitzak
- 8.5. Neurri zuzentzaileen eta hobekuntza neurrien jarraipena
- 8.6. Erreferentziak
- 8.7. Eranskinak

Eranskinak

1. eranskina. Osasunaren zaintzaren edukia

 <p>ematen ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Langileen osasunaren zaintza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_08 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>3/7</u></p>
---	---	--

8.1. Helburua

Osasunaren zaintzaren bidez langileen osasun-egoera kontrolatzen da eta haren jarraipena egiten da, lanaren ondorio diren gaixotasunen seinaleak detektatu ahal izateko eta gerora kalteak edo alterazioak jasateko aukera murrizteko neurriak hartu ahal izateko (UNE 81902).

8.2. Irismena

Prozedura hau UPV/EHUko langile guztiei aplikatuko zaie, bertan eskaintzen duten zerbitzu mota eta haren iraupena gorabehera.

8.3. Definizioak

UPV/EHU-KO LANGILEAK: UPV/EHUko langiletzat hartuko dira, funtzionario izendatu ondoren edo lan-kontratu bati jarraiki, UPV/EHU ordaindutako eginkizunak betetzen dituzten pertsona guztiak.

OSASUNAREN ZAINZTA: Osasunaren zaintzaren bidez langileen osasun-egoera kontrolatzen da eta haren jarraipena egiten da, lanaren ondorio diren gaixotasunen seinaleak detektatu ahal izateko eta gerora kalteak edo alterazioak jasateko aukera murrizteko neurriak hartu ahal izateko (UNE 81902).

8.4. Jarduera prozedura

39/1997 Errege Dekretuko 37.3.b) artikulua araberak, osasuna zaintzeko garaian jarraian adierazita dauden jarduerak gauzatu beharko dira, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeko 22. artikuluan ezarritako baldintzetan:

8.4.1. Osasunaren hasierako ebaluazioa

Langileen osasun-egoeraren hasierako ebaluazioa, lanean hasi ondoren edo osasunerako arrisku berriak dituzten zeregin espezifikoak eman ondoren.

8.4.2. Aldian behingo osasun-azterketak

Prebentzio Zerbitzuak, aldian behin, osasun-azterketa orokorrak eta kontrol analitikoak egiteko aukera emango die langile guztiei, beren osasuneko alderdi orokorrak kontrolatzeko.

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Langileen osasunaren zaintza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_08 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/7</p>
--	---	--

8.4.3. Osasun-azterketa espezifikoak

UPV/EHUK bermatu egingo du beren langileen osasun-egoera aldiari behin zainduko dela, arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera beharrezkotzat jotzen bada.

Osasunaren zaintza borondatezkoa izango da, lehenago deskribatu diren kasuetan izan ezik.

8.4.4. Luzaro lanera joan gabe egon ondorengo ebaluazioa

Osasun-arrazoiengatik luzaro lanera joan gabe egon ondoren lanera bueltatu diren langileei beren osasun-egoeraren ebaluazioa egingo zaie, beren osasun-arazoaren jatorria lanpostuari lotuta ote dagoen aztertzeko eta langileak babesteko neurri egokiak gomendatzeko.

8.4.5. Bereziki sentikorrek diren langileen eta amatasunaren babesa

UPV/EHUK bermatu egingo du, espezifikoki, beren ezaugarri pertsonalengatik, egoera biologikoarengatik edo ezintasun fisikoren bat dutelako lanarekin lotutako arriskuekiko bereziki sentikorrek diren langileen babesa.

Horretarako, beharrezkoak diren egokitzapenak egingo ditu beren lanpostuetan (derrigorrezko segurtasun-maila areagotzea, zeregin batzuk mugatzea, arrisku batzuen eraginpean egon daitekeen denbora mugatzea, laguntzeko neurriak...). Eta hori nahikoa ez bada, langileak lanpostuz aldatuko ditu, neurri hori eragiten duen egoerak irauten duen bitartean.

Egoera horretan dauden langileak ez dira arituko beren burua edo besteena arriskuan jar ditzaketan lanpostuetan.


Era berean, langileen ugalketa-funtzioan eragina izan dezaketan arrisku-faktoreak ere kontuan hartu behar dira ebaluazioetan. Bereziki, ugalkortasunari eta ondorengoaren garapenari begira ondorio mutagenikoak edo toxikoak izan ditzaketan eragileak hartuko dira kontuan, beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartu ahal izateko.

8.4.6. Osasunaren zaintzaren emaitzak

UPV/EHUKo langileen osasunaren zaintzaren eta kontrolaren emaitzak kudeatzeko garaian pertsonen intimitate-eskubidea eta duintasun-eskubidea eta beren osasun-egoerari buruzko informazioaren isilekotasuna errespetatuko dira.

Osasunaren zaintzaren emaitzak langileari emango zaizkio. Datu horiek ezin izango dira erabili langilea diskriminatzeke asmoz edo langilearen kaltetan.

Dena den, lan-osasunaren zaintza gauzatzen duten Prebentzio Zerbitzuko langileek eta osasun-agintariek langileen osasun-egoerari buruzko informazioa eskuratu ahal izango dute, baina informazioa ezin izango zaio eman beste inori, langilearen berriazko baimenik ezean.

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Langileen osasunaren zaintza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_08</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>5/7</u></p>
--	---	---

UPV/EHUn prebentzioaren arloko erantzukizunak dituzten pertsonen eta organoen azterketetako ondorioen berri emango zaie, langileak beren eginkizunak betetzeko egokiak ote diren edo babes- eta prebentzio-neurrietan hobekuntzak egin behar ote diren aztertzeko.

Araudian hala xedatuta dagoenean, lan-harremana amaitu ondoren ere osasun-egoeraren al-dian behingo azterketak egiten jarraitzeko eskubidea izango dute langileek, araudian ezarrita dau-den baldintzetan. Ildo horretan, kasuan kasuko dokumentazioa gorde egin beharko da, araudia bete-tzeko behar beste denboraz.

Administrazio eta zerbitzuetako langileei eta bitarteko irakasle kontratatuei gaixotasun profesio-nalen bat detektatuz gero, gaixoa Unibertsitateak kontratatu duen lan-istripuen eta gaixotasun pro-fesionalen mutuara igorriko da, tratamendua ezartzeko, eta susmoaren berri emango zaio dagokion lurralde historikoko Osalaneko Lan Osasuneko Unitateari, Osalaneko zuzendariaren 2007ko abendua-ren 11ko Ebazpenean (EHAA, 2008ko urtarrilaren 17koa) ezarritako prozedurari jarraituz.

Prebentzio Zerbitzuko sendagileek alderatu egingo dute gaixotasun bakoitzak UPV/EHUko lan-gileengan duen eragina eta oro har herritarrengan duen eragina, lan-baldintzekin lotura izan deza- keten faktoreak identifikatu ahal izateko.

8.5. Jarraipena eta hobekuntza ekintzak

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloak prozedura honetatik eratorriko diren preben-tzio-neurrien jarraipena kudeatuko du, PPRL_PR_04 prozedurako (Prebentzio-neurrien jarraipena) il-doei jarraituz.

8.6. Erreferentziak

- Langile funtzionarioen akordio arautzailea eta lan-hitzarmena.
- Osasunaren Zaintzaren Liburu Zuria, Laneko Arriskuen Prebentziorako.
- SISAL: Lan Osasunari buruzko Informazio Sistema.
- LSHINko protokoloak.

8.7. Eranskinak

- 1. eranskina: osasunaren zaintzaren edukia.


 <p>Unibertsitatearen eta osasunaren zaindariak Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Langileen osasunaren zaintza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_08.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 1/2</p>
--	---	---

I. eranskina. Osasunaren zaintzaren edukia

UPV/EHUko langileen osasunaren zaintzak ezaugarri hauek izango ditu:

- UPV/EHUK **bermatuko** du, eta bere irismena lanak berezko dituen arriskueta mugatuko da.
- **Espezifikoa** izango da, arriskuen ebaluazioan identifikatu den edo diren arriskuen arabera.
- Langileentzat **borondatezkoa** izango da, honako egoera hauetan izan ezik:
 - Arrisku espezifikoetako eta jarduera bereziki arrisksuetako babesari buruzko lege-xedapen bat dagoenean.
 - Osasun-azterketak ezinbestekoak direnean lan-baldintzek langileen osasunean dituzten ondorioak ebaluatzeko.
 - Langilearen osasun-egoera arrisksua izan daitekeenean langilearentzat edo beste batzuentzat.
- **Isilpekoa** izango da; izan ere, langile bakoitzaren osasun-azterketetatik ateratako informazioa langileak berak, Prebentzio Zerbitzuko osasun-arloak eta osasun-agintariek bakarrik eza-gutu dezakete.
- **Etikoa** izango da, intimitatearen eta duintasunaren errespetua eta osasun-arrazoiengatik diskriminaziorik eza bermatzeko.
- **Denbora luzez** gauzatuko da, eta hala dagokionean, lan-harremana amaitu ondoren, Estatuko Osasun Sistemak egingo ditu osasun-azterketak.
- **Sistematikoa** izango da, osasun-azterketen «aldizkakotasuna» dela eta unean-unean egiten dela pentsa daitekeen arren; izan ere, osasuna zaintzeko jarduerak dinamikoak izan behar dute eta etengabe eguneratu behar dute, datuak eskuratuz eta analizatuz.
- **Dokumentatu** egingo da, langileen osasun-egoeraren kontrolen egiaztapenarekin eta kontroletatik ateratako ondorioekin. Langileak agente jakin batzuen eraginpean daudenean (agente kartzinogenoak, biologikoak, kimikoak), enplegatzaileak historial klinikoak erregistratu beharko ditu, eta esposizioa amaitu ondoren, erregistroak gutxienez 10 urtez mantendu beharko ditu (araudia zorrotzagoa ez bada behintzat).
- **Langile guztiei jakinarazi egingo zaie**, modu ulergarrian eta behar besteko zehaztasunez, osasunaren zaintzak zer helburu dituen eta zer metodo erabiliko diren, eta era berean, emaitzen berri ere emango zaie.
- **Doakoa** izango da; izan ere, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin erlacionatutako neurrien kostu ekonomikoa, eta hortaz, osasunaren zaintzaren ondorio dena, ezin izango zaie ordainarazi langileei (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeko 14. artikuluko 5. atala). Ondorioz, osasun-azterketak lanorduetan egingo dira, edo bestela, osasun-azterketarako erabili den denbora lanorduetatik kenduko da.
- **Partaidetzan** oinarrituko da, eta langileen edo beren ordezkarien kontsulta- eta partaidetza-printzipioak errespetatuko dira, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoari jarraituz.
- **Baliabide material egokiekin gauzatuko da**, bete beharreko funtzioen arabera.

Araudi aplikagarrian definitutako ezaugarrietara egokitutako edukia. Araudi espezifikorik ez duen arriskuei dagokienez, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak ez du zehazten eta defi-

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Langileen osasunaren zaintza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_08.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>2/2</u></p>
---	---	---

nitzen osasuna zaintzeko neurririk edo tresnarik, baina langileari ahalik eta kalterik txikiena egingo diotenak lehenesten ditu. Osasun Administrazioari dagokio arlo horretako jarduera-arauak eta -protokoloak ezartzea. Enkargu hori Prebentzio Zerbitzuen Araudian dago zehaztuta, eta bertan ezarritakoaren arabera, Osasun eta Kontsumo Ministerioari eta Autonomia Erkidegoei dagokie osasunaren zaintza espezifikokoaren edukia eta maiztasuna ezartzea.

Aipaturiko azterketen edukian gutxienez historia kliniko-laborala sartuko da, eta bertan, anamnesiaren, azterketa fisikoaren, kontrol biologikoaren eta azterketa osagarrien datuak biltzeaz gain, lanpostuaren deskribapen zehatza egingo da, eta lanpostuan zenbat denbora igarotzen den, zer arrisku detektatu diren, eta zer prebentzio-neurri hartu diren adieraziko da. UPV/EHUko langileen osasunaren zaintza Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloko profesionalak gauzatuko dute, osasun-azterketa orokorren edota arriskuaren arabera azterketa espezifikoen bidez.

Osasun-azterketetan honako proba hauek egingo dira:

- Anamnesia. Azterketa medikoa.
- Proba teknikoak: besteak beste, EKG, espirometria, begi-zorroztasunaren kontrola eta tonometria, edo audiometria.
- Odol- eta gernu-analitika.
- Laneko gaixotasunak edo laneko arrisku faktoreak detektatzea helburu duten probak, ezarritako protokoloaren arabera

- **Gaitasun tekniko, prestakuntza eta ahalmen egiaztatua duten langileek** egingo dituzte; hau da, Laneko Medikuntzan espezializatuta dauden sendagileek edo Enpresako Medikuntzan diplomadunek eta enpresako erizainek.
- **Proben plangintza egingo da**, osasuna zaintzeko jarduerak argi eta garbi definitutako helburuak izan behar dituztelako, eta ezabatu ezin izan diren arriskuengatik edo langileen osasun-egoeragatik justifikatuta egon behar dutelako.

Barne-hartzen ditu:

- Langileen osasun-egoeraren hasierako ebaluazioa, lanean hasi ondoren edo osasun-erako arrisku berriak dituzten zeregin espezifikokoak eman ondoren.
- Osasun-egoeraren aldizkako ebaluazio espezifikoa, legedi espezifikoko araututako produktuekin edo baldintzetan lan egiteagatik, edo arriskuen ebaluazioan detektatu diren arriskuen arabera, edo langileak hala eskatu duelako, bere osasun-arazoak lanak eragiten dituela uste duenean. Ez da derrigorrezkoa ebaluazioak maiztasun jakinarekin egitea; kasu bakoitza protokolo espezifikotik ezarriko da, eta gaixotasunaren historia naturalaren eta esposizio-baldintzen mende ere egongo da.
- Osasun-egoeraren ebaluazio bat, osasun-arrazoiengatik luzaro (90 egun) lanera joan gabe egon ondoren.

Honako hauei zuzenduta dago:

- Bereziki sentikorrek diren langileei, lanpostuan identifikatu diren arriskuek kalte berezia egin diezaieketen langile guztien babesa bermatu behar duelako enplegatzaileak, beren ezaugarri pertsonalengatik, egoera biologikoarengatik edo ezintasunen bat dutelako.
- Haurdun, edoskitze-garaian eta puerperioan dauden langileei.

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/6</u></p>
--	---	--

9

Produktuak erostea

- 9.1. Helburua
 - 9.2. Irismena
 - 9.3. Definizioak
 - 9.4. Jarduera prozedura
 - 9.4.1. Tresnak, ekipamendua eta makinak erostea
 - 9.4.2. Altzariak erostea
 - 9.4.3. Arriskutsuak izan daitezkeen produktuak erostea
 - 9.5. Neurri zuzentzaileen eta hobekuntza neurrien jarraipena
 - 9.6. Erreferentziak
 - 9.7. Eranskinak
- Eranskinak**
- 1. eranskina. Produktua eskuratzeko txostena
 - 2. eranskina. Eskuratutako produktuaren gaineko txostena

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">3/6</p>
---	---	--

9.1. Helburua

Prozedura honen bidez, UPV/EHUn altzariak, ekipamendua, makinak eta arriskutsuak izan daitezkeen produktuak erosteak, eraikitzeak edo aldatzeak eragin ditzakeen arriskuak ezagutzeko eta kontrolatzeko modua ezarri nahi da.

9.2. Irismena

Prozedura hau, beren bolumenarengatik zein beren erabilerarengatik unibertsitate-komunitateko kideen segurtasuna arriskuan jar dezaketen erosketa guztietan aplikatuko da.

9.3. Definizioak

ALTZARIAK: bulegoetarako, irakaskuntzarako eta ikerketarako altzariak eta hiri-altzariak.

ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN PRODUKTUAK: arrisku fisikoa, kimikoa eta biologikoa eragin dezaketenak.

EROSKETAREN ARDURADUNA: proiektuaren, zerbitzuaren edo ekipamenduaren ardura-duna.

EROSKETA: ondasunak erostea, enpresako jarduerak burutzeko.

LAN EKIPAMENDUA: Lanean erabiltzen den edozein makina, aparatu, tresna edo instalazio.

«Lan-ekipamendua» oso termino zabala da. Adibidez, honako hauek daude sartuta bertan: makina-erremintak, lur-mugimenduetarako makinak eta beste makina «mugikor» batzuk, zama jasotzeko makinak, pertsonak jasotzeko makinak, presio-tresnak, gazezko aparatuak, soldatze-tresnak, konpresoreak, tresna eramangarriak, fotokopiagailuak, erretroproiektoreak, eskuzko tresnak, azal-tratamendurako instalazioak, pintura-instalazioak, edo elkarren mendeko makinek osatutako instalazioak. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko 2. artikulua araberako (BOE, 1997ko apirilaren 23koa), lantokiari atxikitako zerbitzu- edo babes-instalazioak lantokietako parte dira (hala nola, instalazio elektrikoak, gas-instalazioak, edo suteen kontrako instalazioak), eta hortaz, aipaturiko Errege Dekretuan ezarritako gutxieneko xedapenak eta Errege Dekretuko 6. artikulua araberako aplikagarriak diren segurtasun-arau espezifikokoak bete behar dituzte.

MAKINA: elkarrekin lotutako piezak edo organoak (gutxienez batek mugikorra izan behar du), eta hala dagokionean, eragiteko organoak, kontrol- eta potentzia-zirkuituak, edo beste batzuk, modu solidarioan lotuta daudenak aplikazio jakin baterako (bereziki, material bat eraldatzeko, tratatzeko, lekualdatzeko eta egokitzeko).

TRESNA EDO ERREMINTA: eskuzko lanabesa, elektrikoa edo pneumatikoa.

ESKUZKOA: oro har bakarka erabiltzen den lanabesa, eragiteko pertsonaren indar higiarazlea bakarrik behar duena.

ELEKTRIKOA: oro har bakarka erabiltzen den lanabesa, eragiteko korrante elektrikoa behar duena.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">4/6</p>
--	---	--

I. motako tresnak. Isolamendu funtzionala dute; hau da, tresnak funtzionatzeko eta zuzeneko kontaktu elektrikoen aurrean babesteko beharrezkoa dena. Lur-konexioa izan dezakete.

II. motako tresnak. Isolamendu osoa dute, isolamendu bikoitzaren edo isolamendu indartuaren bidez. Lur-konexiorik ez da aurreikusten. Ezaugarrien plakan isolamendu bikoitzaren ikurra dute-lako bereizten dira.

III. motako tresnak. Tentsio oso baxuaz funtzionatzeko aurreikusitakoak.

Pneumatikoa: oro har bakarka erabiltzen den lanabesa, eragiteko konpresore bat behar duena.

INSTALAZIO ELEKTRIKOA: lantoki batean energia elektrikoa sortzea, bihurtzea, eraldatzea, garraiatzea, banatzea edo erabiltzea xede duten materialen eta ekipamenduen multzoa, bateriak, kondentsadoreak eta energia elektrikoa metatzen duen beste edozein ekipamendu barne.

9.4. Jarduera prozedura

9.4.1. Tresnak, ekipamendua eta makinak erostea

9.4.1.1. Erosketa egin baino lehen

Produktuak erosteko ardura duen pertsonak txosten bat idatziko du, eta bertan, honako hauek adieraziko ditu:

- Produktua erabiliko duten langileek jasan beharko dituzten arriskuak.
- Instalazio-premiak (lokala egokitzea, beharrezko potentzia elektrikoa, kea ateratzeko bidea, mantentze-lanak, sarbideen kontrola, etab.). Makinak erosteko instalazioak edo lanak egin behar badira, erosteko eskaria Prebentzio Zerbitzuari bidaliko dio, dagokion txostena egin dezan eta iradokizunak helaraz ditzan, eraikin bakoitzeko arriskuen ebaluazioan aztertu eta sartu ahal izateko, eta hala dagokionean, Autobabeserako Plana egokitzeke.
- Hartu beharreko prebentzio-neurriak.
- Maneiatzeko garaian kontuan hartu beharreko babes-neurriak.
- Erabiltzaileei eman beharreko informazioa.
- Hala dagokionean, erabiltzaileei eskaini beharreko trebakuntza, makinak erabiltzen, mantentzen, maneiatzen eta zaintzen irakasteko.

Ekipamendu edo makina bat erosteko, ezinbestekoa izango da hari dagokion indarreko dokumentazioa ematea:

- Argibideen liburua, gartzelaniaz, eta hala dagokionean, baita euskaraz ere.
- EE Adostasun Adierazpena.

Ekipamendua onartuko bada, ezinbestekoa da aipaturiko dokumentuak ematea, eta gainera, lan-eremuetan egon beharko dute.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>5/6</u></p>
---	--	--

9.4.1.2. Produktu jasota edo instalatua

Era berean, Harrera Akta sinatu aurretik, baldintzen agiriko eskakizunak betetzen ote diren egiaztatzeko probak egin beharko dira. Harrera Akta erosketaren arduradunak izenpetuko du.

Makinak erosteko instalazioak edo lanak egin behar badira, Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuak Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari bidaliko dio agiria, dagokion txostena egin dezan eta iradokizunak helaraz ditzan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak eta Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen 39/1997 Errege Dekretuak emandako eskumenera arabera.

9.4.2. Altzariak erostea

Irakaskuntzarako, bulegoetarako edo ikerketarako altzariak eta hiri-altzariak, ondasunak eta zerbitzuak erosteko lehiaketa publikoetako baldintza teknikoan agiritan zehaztutako ergonomia- eta segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte. Prebentzio Zerbitzuak, aipaturiko baldintzak ezarriko ditu, eta gainera, erosketaz arduratuko den Batzorde Teknikoari aholku emango dio. Nolanahi ere, bulegoetako altzariak, 488/1997 Errege Dekretuan xedaturikoa bete beharko dute.

Altzariak Unibertsitatean bertan egiten badira, zehaztapen berak bete beharko dituzte.

Premia ergonomiko bereziak daudenean, altzariak bete beharreko baldintzak Prebentzio Zerbitzuak ezarriko ditu.

9.4.3. Arriskutsuak izan daitezkeen produktuak erostea

Arriskutsuak izan daitezkeen produktuak erosi behar direnean, eskaria egin eta sarrera baimentzen duenak Fabrikatzailearen Segurtasun Datuen Orriak eskatu beharko dizkio hornitzaileari. Datuen Orriek lan-eremuetan egon beharko dute.

Erosketa-bolumenari dagokionez, biltegian kabitzen diren produktuak bakarrik erosiko dira, unibertsitate-komunitateko kideen osasuna eta segurtasuna arriskuan ez jartzeko.

Prebentzio Zerbitzua UPV/EHUko langileekin elkarlanean jardungo da, produktu arriskutsuen orde arriskurik ez duten edo arrisku txikiagoa duten produktuak erabil ote daitezkeen aztertzeko, baldin eta antzeko ezaugarriak badituzte eta eginkizun bera bete badezakete.

9.5. Jarraipena eta hobekuntza ekintzak

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak prozedura honetatik eratorriko diren neurri zuzentzaileen jarraipena kudeatuko du, PPRL_PR_04 prozedurako (Prebentzio-neurrien jarraipena) ildoetara jarraituz.

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>6/6</u></p>
---	---	---

9.6. Erreferentziak

- 1644/2008 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, makinak merkaturatzeko eta martxan jartzeko arauak ezartzen dituena.
- 488/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, bistaratze-pantailak dituzten tresnekin lan egiteko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.
- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

9.7. Eranskinak

- 1. eranskina: produktua eskuratzeko txostena.
- 2. eranskina: eskuratutako produktuaren gaineko txostena.

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09.1</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/2</u></p>
---	---	---

I. eranskina. Eskuratu beharreko produktuari buruzko txostena

Txosten hau produktua eskuratzeko ardura duen pertsonak egingo du, jaso, erosi edo instalatu aurretik:

Produktuaren izena¹:

Produktua erosiko duen saila/zerbitzua/ikastegia:

Produktuaren kokapena:

Erosketaren pertsona arduraduna²:

- Izena.
- Deiturak.
- Kargua.

Beharrezko ezaugarri teknikoak.

Produktuak dakartzan instalazio premiak (aretoaren egokitzapena, behar duen potentzia elektrikoa, keak ateratzeko bideak, mantentzea, sarbideen kontrola eta abar)³

¹ Produktua: oro har, mobleria edo lan ekipoaz ari gara, berori lanerako erabilitako edozein makina, gailu, instrumentu, erreminta edo instalazio delarik. Konsultatu UPV/EHUren prebentzio-gestiorako sistemaren "produktuen erosketa" prozedura.

² Erosketaren pertsona arduraduna: produktuak erosteko edo eskuratzeko prozedurari jarraiki, proiektu, zerbitzu edo taldeko pertsona arduraduna da.

³ Makinariaren erosteko instalazio edo obrarik egin behar bada, erosteko eskaria igorriko zaio prebentzio zerbitzuari honen gaineko txostena egin eta iradokizunak ekar ditzan, instalazioa aztertu eta eraikinen arriskuak balioesteko txostenetan jaso eta, behar balitz, autobabeserako plana eguneratuko bada.

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09.1</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>2/2</u></p>
---	---	---

Produktua eskuratzeko arduraduna naizelarik, hau da, proiektuaren, zerbitzuaren edo taldearen arduraduna izanik, neure egiten dut produktu hau erabiliko duten pertsoneri, behar izanez gero, berori erabiltzeak bertako langileei dakartzkien arriskuen berri emateko konpromisoa eta erantzukizuna.

Era berean, instalazioan bermatu beharreko segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak aurreikusi eta hartzeko erantzukizuna hartzen dut, bai eta behar litezkeen prebentzio-neurriak ere.

Halaber, konpromisoa hartzen dut jasotze akta sinatu aurretik instrukzioen liburua eta EE bate-ragarritasun aitortpena eskuratzeko, bai eta egin beharreko probak egiteko ere, baldintza pleguetan definitutako betebeharrekin bat ote datorren egiaztatzeko.

Besterik ezean eta honela ager dadin, honako txosten hau sinatzen dut,

Izen-deiturak:

Data:

Sinadura:

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 1/2</p>
---	---	---

2. eranskina. Eskuratutako produktuari buruzko txostena

Txosten hau produktua eskuratzeko ardura duen pertsonak egingo du, jaso, erosi edo instalatu ostean:

Produktuaren izena⁴:

Produktua erosiko duen saila/zerbitzua/ikastegia:

Produktuaren kokapena:

Erosketaren pertsona arduraduna⁵:

- Izena.
- Deiturak.
- Kargua.

Arriskuen ebaluazioa eta prebentzio neurriak (Prebentzio Zerbitzuak egiteko).

Erabiltzaileei jakinarazi beharreko informazioa.

Produktua erabili, mantendu, baliatu eta kontserbatzeko erabiltzaileei eman beharreko prestakuntza, halakorik behar bada.

⁴ Produktua: oro har, mobleria edo lan ekipoaz ari gara, berori lanerako erabilitako edozein makina, gailu, instrumentu, erreminta edo instalazio delarik. Kontsultatu UPV/EHUren prebentzio-gestiorako sistemaren "produktuen erosketa" prozedura.

⁵ Erosketaren pertsona arduraduna: produktuen erosteko prozedurari jarraiki, proiektu, zerbitzu edo taldeko pertsona arduraduna da.

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Produktuak erostea</p>	<p>KODEA PPRL_PR_09.2</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>2/2</u></p>
---	---	---

Produktuaren erosteko arduraduna naizelarik, hau da, proiektuaren, zerbitzuaren edo taldearen arduraduna izanik, neure egiten dut produktu hau erabiliko duten pertsoneri, behar izanez gero, berori erabiltzeak bertako langileei dakartzkien arriskuen berri emateko konpromisoa eta erantzukizuna.

Era berean, instalazioan bermatu beharreko segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak aurreikusi eta hartzeko erantzukizuna hartzen dut, bai eta behar litezkeen prebentzio-neurriak ere.

Halaber, jasotze akta sinatu aurretik instrukzioen liburua eta EE bateragarritasun aitortpena eskuratu ditut, bai eta egin beharreko probak egin ditut, baldintza pleguetan definitutako betebeharrekin bat ote datorren egiaztatzeko.

Bestetik ezean eta honela ager dadin, honako txosten hau sinatzen dut,

Izen-deiturak:


Data:

Sinadura:

10

Prestakuntza

- 10.1. Helburua
- 10.2. Irismena
- 10.3. Definizioak
- 10.4. Jarduera-prozedura
 - 10.4.1. Prestakuntza-beharrak identifikatzea
 - 10.4.2. Prestakuntzaren ezaugarri nagusiak
 - 10.4.3. Prebentzio Plana eta prestakuntza
 - 10.4.4. Hartzaileak
 - 10.4.5. Kontratatuako enpresetako prestakuntza-kontrola
- 10.5. Ekintza zuzentzaileen eta hobekuntza-ekintzen jarraipena
- 10.6. Erreferentzia-dokumentuak

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Prestakuntza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_10 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/8</p>
--	---	---

10.1. Helburua

Prozedura honen helburua langile guztientzako prebentzioaren arloko prestakuntza-eskaintza zehaztea da, laneko osasunari eta segurtasunari dagokionez, UPV/EHUko langileen segurtasunaren eta osasunaren babes maila areagotzen laguntzeko, unibertsitate-komunitatean prebentzio-kultura sustatzeko eta unibertsitate-kudeaketan prebentzioa sar dadin bultzatzeko.

10.2. Irismena

Prozedura hau UPV/EHUko langile guztiei aplikatuko zaie.

10.3. Definizioak

PREBENTZIO-GAIETAKO PRESTAKUNTZA: langileei laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza eskaintzera bideratutako prestakuntza-jardueren multzoa da. Prestakuntzat hartzen dira beharrezkoak diren ezagutzak, gaitasuna eta eraginkortasuna emateko xedea duten jarduerak; hots, lana segurtasuneko, kalitateko eta ekoizpeneko estandarrak betez egiteko bide ematen dutenak. Ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak lantzea eragiten du prestakuntzak.

PREBENTZIO-KULTURA: unibertsitate-komunitateak unibertsitatearen arloan prebentzioari eta laneko osasunari buruz duen sentiberatasunari deritzo.

10.4. Jarduera-prozedurak


Prebentzio-gaietako prestakuntza UPV/EHUko langileen egitekoa eta eskubidea da, beren gaitasunen eta erantzukizunen arabera. Prebentzio Zerbitzuari dagokio prestakuntza hori bultzatzea, langileen prestakuntzan eskumenak dituzten UPV/EHUko zerbitzuekin lankidetzan eta Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean hartutako arauak eta akordioak kontuan hartuta.

Prestakuntza UPV/EHUko nahiz kanpoko langileek emango dute.

Jarduera-prozedura 31/1995 LAPL legearen 19. artikuluan ezartzen den moduan egingo da:

1. «Babes-eginbeharra betetzeko, enpresaburuak bermatu beharko du, langile bakoitzak izatea prestakuntza teorikoa eta praktikoa, behar bestekoa eta egokia, kontratua egiteko unean, kontratu modalitatea edo iraupena edozein dela, edota langileak dituen eginkizunak aldatzen direnean edo lan-ekipamenduetan teknologia berriak aplikatu nahiz aldaketak egiten direnean.

Prestakuntza langile bakoitzaren lanpostu edo eginkizunaren arabera izan beharko da, eta arriskuen bilakaerari eta ager daitezkeen arrisku berriei egokitu beharko zaie, eta, hala behar izanez gero, **aldian-aldian errepikatu beharko da**.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Prestakuntza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_10</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">4/8</p>
--	---	--

2. Aurreko idatz-zatiak aipatu prestakuntza eman beharko da, ahal den neurrian, **lanaldian** edo, lanaldian ezin bada, beste ordu batzuetan, baina prestakuntzako denbora lanaldiari deskontatuta.

Enpresak eman dezake prestakuntza, bere zerbitzuen bidez edo enpresatik kanpoko zerbitzuekin egindako hitzarmenaren bidez; langileek inoiz ez dituzte jasango prestakuntzaren kostuak».

10.4.1. Prestakuntza-beharrak identifikatzea

Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean hartuko diren arauak eta akordioak kontuan hartuta, Prebentzio Zerbitzuak UPV/EHUko langileen prestakuntza-beharrak ezarriko ditu.

Prebentzioaren arloko prestakuntza-behar horiek honako honen arabera zehaztuko dira:


- Legeek behartuta UPV/EHUko langileei irakatsi beharreko behar espezifikoak.
- Elkarrizketak eta eskaerak ikastegietako, sailetako eta beste hainbat administrazio-unitatetako arduradunekin eta Prebentzioko ordezkariekin.
- Langileei (II eta AZP) egindako galdeketak.
- Arriskuen ebaluazioari, istripu/gertakarien ikerketari eta lokalak eta ekipoak ikuskatzeari buruzko txostenak berrikustea.
- Lanean langile berriak hasteak, eginkizunak aldatzeak, teknologia berriak erabiltzen hasteak eta lan-taldeak aldatzeak eragindako beharrak.

Jardueren araberako arriskuen ebaluazioa kontuan hartuta, Prebentzio Zerbitzuak lanpostu bakoitzari dagokion prebentzioaren arloko prestakuntza zehaztuko du, eta unibertsitateak nahi-taez eskaini beharko du. Prestakuntza langile bakoitzaren lanpostuan edo eginkizunetan oinarrituko da, espezifikoki.

10.4.2. Prestakuntzaren ezaugarri nagusiak

Jaso beharreko prestakuntza honelakoa izango dela bermatu behar da:

- Teorikoa eta praktikoa.
- Behar bestekoa: lanpostuaren edo eginkizunaren arriskuei eta prebentzio-neurriei buruzko arlo guztiak landu behar ditu.
- Egokia:
 - Langile bakoitzaren lanpostuan edo eginkizunetan oinarrituko da, espezifikoki. Horretarako, prebentzioaren arloko prestakuntza-ibilbidea ezarriko da aldez aurretik, lanpostuarekin lotuta.
 - Ebaluazioan antzemandako arriskuen eta agertutako arrisku berrien araberakoa izango da.
 - Aldizka errepikatuko da, behar izanez gero.

 <p>ematen ta zabaltzen Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Prestakuntza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_10 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 5/8</p>
---	---	---

- Ebaluagarria: urtero jarraipena egingo zaie ikasleen gogobetetzeari eta laneko arriskuen prebentzioaren eraginkortasunari.
- Noiz egin behar den:
 - Langilea kontratatzean.
 - Egin beharreko lanetan aldaketak gertatzen direnean.
 - Teknologia berriak sartzen direnean.
 - Lan-taldeetan aldaketak egiten direnean.

Egin beharreko lanen eta erantzukizun mailaren arabera, honako prestakuntza mailak hauek ezarriko dira:

- *Prestakuntza orokorra.* Prestakuntza hori orokorra eta oinarritzkoa izango da, eta UPV/EHUko langile guztiei eskainiko zaie. Unibertsitatearen urteko prestakuntza-planen baitan antolatuko da. Prestakuntza-jarduera orokorrak edo oinarritzkoak izango dira, hala nola lehen laguntzei, suteak itzaltzeari eta autobabeserako planei (langileen ebakuazioa, besteak beste) buruzko ikastaroak.
- *Prestakuntza espezifikoa:* Norbere eginkizunen eta erantzukizunen arabera, unibertsitateko langile guztiek behar dute laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza espezifikoko egokia.

10.4.3. Prebentzio Plana eta prestakuntza


Prebentzio Zerbitzuak egingo du gai horretako Prestakuntza Plana, Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen ekarpenak entzun ondoren, hala badagokio.

Urteko prebentzio-jardueren plangintzak atal berezia izan beharko du, urte bakoitzerako aurreikusitako prestakuntza-programari buruz. Prestakuntza Planak honakoak jaso beharko ditu:

- Lortu beharreko helburuak.
- Garatu beharreko jarduera espezifikokoak nahiz orokorrak.

Lanpostuko eginkizunak betetzeko beharrezkoa den osasunaren eta segurtasunaren arloko prestakuntza jasotzeko, eta bertaratzea bermatzeko, datak eta ordutegiak programatuko dira, baita langile guztien beharrak aseko dituen formatua edo modalitatea ere. Laneko Arriskuen Legeko 19.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da: «*Aurreko idatz-zatiak aipatu prestakuntza eman beharko da, ahal den neurrian, lanaldian edo, lanaldian ezin bada, beste ordu batzuetan, baina prestakuntzako denbora lanaldiari deskontatuta. Enpresak eman dezake prestakuntza, bere zerbitzuen bidez edo enpresatik kanpoko zerbitzuekin egindako hitzarmenaren bidez; langileek inoiz ez dituzte jasango prestakuntzaren kostuak*».

UPV/EHUko langile bakoitzak arlo horretan jasotako prestakuntzari jarraipen berezia egingo zaio.

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Prestakuntza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_10</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">6/8</p>
--	--	--

10.4.4. Hartzaileak

Babeserako betebeharra betez, langile guztiek prebentzioaren arloko prestakuntza teoriko eta praktiko nahikoa eta egokia jasotzen dutela bermatu beharko du UPV/EHUK.

Prestakuntza hori hainbat mailatan emango da:

1. Kide bakarreko gobernu-organoak¹

UPV/EHUKo estatutuetan jasotzen direnak dira kide bakarreko gobernu-organoak. Organo horietako kideek beharrezkoa den prestakuntza jasoko dute, Prebentzio Plana eta beren eskumenen arloko prozedurak modu egokian kudeatzeko; hartara, eraginkortasun handiagoa eskuratuko dute prozedurak martxan jartzeko eta horien emaitzak kontrolatzeko.

2. Irakasleak eta ikertzaileak

Irakasle eta ikertzaile guztiek eta trebatzen ari diren ikertzaileek beharrezkoa den prestakuntza jasoko dute, modu osasungarrian eta seguruan lan egiteko.


Laborategietan eta lantegietan irakasten duten irakasleek eta ikertzaileek eta ikerketa-proiektuak zuzentzen dituztenek erantzukizun berezia dute, hurrenez hurren, ikasleen eta beren proiektuan lankidetzan ari diren langileen segurtasunari eta osasunari dagokienez. Hori dela-eta, beharrezkoa den prestakuntza jasoko dute prebentzioa egokitasunez kudeatzeko irakaskuntzan, ikerketetan eta Prebentzio Plana osatzen duten prozeduretan parte hartzen dutenean. Hala, ikasleei eta proiektuan parte hartzen duten langileei idatziz jakinaraziko zaizkie prozedurak.

Lanean hasi berri diren irakasle eta ikertzaileek hasierako orientazioa jasoko dute arlo horretan beraiei eragiten dieten gaiei dagokienez, 1. eranskinean jasotako Harrera Eskuliburuaren bidez. Langileen Gerenteordetzak eta Prebentzio Zerbitzuaren Gerenteordetzak laneko osasunari eta segurtasunari buruzko informazioa jakinarazteko prozedura hitzartuko dute.

3. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala

Beren lanpostuan edo arloan egon edo sor daitezkeen arrisku espezifikoiei buruzko prestakuntza jasoko dute, baita istripuak ekiditeko, lana segurtasunez egiteko eta Prebentzio Plana

¹ Estatutuetako 10. artikuluan kide bakarreko gobernu-, ordezkaritza-, kontrol- edo aholkularitza-organoak identifikatzen dira (322/2033 DEKRETUA, abenduaren 23koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak onartzen dituena): errektorea, errektoreordeak, idazkari nagusiak, gerentea, gerenteordeak, Errektoreordetzako zuzendariak, Campusetako zuzendariak eta idazkariak, Fakultateetako dekanok eta eskoletako zuzendariak, Fakultateetako dekanordeak eta eskoletako zuzendariordeak, Fakultate eta eskoletako idazkariak, Saisetako zuzendariak eta idazkariak, Unibertsitateko ikerketa institutueta zuzendariak eta idazkariak eta beste gune edo egitura batzuetako zuzendariak. Aldezlea (UPV/EHUKo unibertsitateko arartekoa) ere pertsona bakarreko organotzat hartuko da.

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Prestakuntza</p>	<p>KODEA PPRL_PR_10</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">7/8</p>
---	---	--

osatzen duten prozeduretan parte hartzeko hartu behar dituzten neurriei buruzko prestakuntza ere.

Lanean hasi berri diren langileek hasierako orientazioa jasoko dute, arlo horretan beraiei eragiten dieten gaiei buruz. Hori dena Harrera Eskuliburuan jasoko da (1. eranskina). Langileen Gerenteordetzak eta Prebentzio Zerbitzuaren Gerenteordetzak laneko osasunari eta segurtasunari buruzko informazioa jakinarazteko prozedura hitzartuko dute.

Halaber, eginkizunak aldatuta, langilearen osasunari edo/eta segurtasunari eragin diezaioketen teknologia berriak erabili behar badira edo lan-taldeetan aldaketak egiten badira, langileari prestakuntza eman beharko zaio prozesuen eta instalazioen funtzionamenduari buruz, enpresaren egitura eta antolakuntzari buruz eta beharrezkoak diren segurtasun gaiei buruz.

4. Prebentzio Zerbitzuko langileak, Prebentzioko ordezkariak eta Segurtasun eta Osasun Batzordeko kideak eta aholkulariak

Beren eskumenak eta gaitasunak bete ahal izateko behar duten prestakuntza jasoko dute, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean ezarritakoaren arabera.

10.4.5. UPV/EHUK kontratatuko enpresetako prestakuntza-kontrola


Kontrataturako enpresa moduan hartuko dira kontratistak, azpikontratistak eta langile autonomoak. Unibertsitatean lan egingo duten langileei informazio- eta prestakuntza-betebeharrak bete dituztela idatziz egiaztatzea eskatuko die UPV/EHUK enpresei, enpresa-jarduerak koordinatzeari buruzko Laneko Arriskuen Prebentzioaren 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legea garatzen duen 2004ko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak ezartzen duen moduan.

Jarraipen berezia egingo zaie UPV/EHUKo instalazioetan modu iraunkorrean lan egiten duten langileak dituzten eta iraupen luzeko kontratuak, hitzarmenak edo/eta administrazio-laguntzak dituzten enpresei (mantenuko, garbiketako, segurtasuneko eta abarretako enpresei). Langile horiek laneko arriskuen prebentzioari buruzko etengabeko prestakuntza jasotzen dutela bermatuko du UPV/EHUK.

10.5. Jarraipena eta hobekuntza-jarduerak


UPV/EHUKo langileek arlo horretan jasotako prestakuntzari jarraipen berezia egingo zaio, eta ebaluazioan antzemandako arriskuekin, arrisku berriak agertzearekin eta kasu bakoitzean ezarritako prestakuntza-betebeharrekin bat datorrela egiaztatuko da.

Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak egingo du Prestakuntza Programaren jarraipena urtero, Prebentzio Zerbitzuak alde aurretik egindako txostenaren bidez, eta neurri zuzentzaileak ezarriko ditu, egokitzen joz gero.

 <p> <small>enbat ta zabal zazu</small> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p> PROZEDURA Izenburua: Prestakuntza </p>	<p> KODEA PPRL_PR_10 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>8/8</u> </p>
--	---	---


10.6. Erreferentzia-dokumentuak

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea.
- AZPren Prestakuntza Plan Integrala.
- Indarrean dauden Hitzarmen Kolektiboa eta Akordio Arautzailea.

 <p>emari ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p><u>1/10</u></p>
--	---	---

11

Enpresa-jardueren koordinazioa

 <p> <small>eman ta zabal zazu</small> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>2/10</u></p>
---	---	--

11.1. Helburua

11.2. Irismena

11.3. Definizioak

11.4. Jarduketa-prozedura

11.4.1. Unibertsitatean garatzen diren enpresa eta jardueren tipologiaren azterketa

11.4.2. Esku hartzen duten pertsonak

11.4.3. Eman beharreko informazioa

11.4.4. Jaso beharreko informazioa

11.4.5. Azpikontraten kasuan

11.4.6. Informazioa lekualdatzea

11.4.7. UPV/EHUko langileen unibertsitatez kanpoko lanak

11.4.8. Prozedura unibertsitatean ezartzea

11.5. Ekintza zuzentzaileen eta hobekuntzako enpresa jarraipena

11.6. Erreferentziako dokumentuak

11.7. Eranskinak

Eranskinak

1. eranskina. Zinpeko aitortpena

2. eranskina. Laneko Arriskuen Prebentzioa: dokumentazioa

3. eranskina. Laneko Arriskuen Prebentzioa: UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuarekin egindako lehenengo bilera

 <p>ematen ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/10</p>
---	--	--

11.1. Helburua

Laneko segurtasun- eta osasun-arloan enpresen koordinazio-sistema bat ezartzea Laneko Arriskuaren Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 24. artikulua garatzen duen urtarilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren babespean. Horretarako, enpresa kontratistek eta azpikontratistek, erakunde elkartuek, langile autonomoek, administrazio-emakidek eta abarrek UPV/EHUn egiten dituzten lan edo zerbitzuetan egon daitezkeen laneko arriskuak ezabatzea eta murriztea sustatuko da eta elkarlanean arituko da eta segurtasun- eta osasun-arloan babes eraginkorra bermatuko zaie unibertsitate-komunitateko kideei eta kanpoko enpresetako langileei egungo legerian eskatutako baldintzetan eta xede horretarako enpresen koordinaziorako baliabide egokiak aplikatuta.

11.2. Irismena

Prozedura hori aplikagarria izango da bai kanpoko langileek UPV/EHUko instalazioetan egiten dituzten lanetan eta bai UPV/EHUko langileek UPV/EHUkoak ez diren ikastegietan egindako lanetan (ikastegi atxikiak, lankidetzak-akordioak, ikerketa-proiektuak, etab.) Unibertsitateko lokalak kanpoko agenteei alokatzea ere sartzen da.

Prozedura horretatik kanpo geratzen dira urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzen diren eraikuntza-lanak.

11.3. Definizioak

SOLASKIDEA: kanpoko enpresa batekin zerbitzu edo hornidura baten kontratazioa egin, eskatu edo sustatzen duen pertsona oro kontratua gauzatzearen jarraipenaren arduraduna da eta arriskuei buruzko informazio espezifikoa eman behar du.

KOORDINATZAILEA: gutxienez 300 ordurekin, 171 EDko 14. art.

KONTRATISTA TITULARRA: kontratatutako jarduera unibertsitatearen berezko jarduera ez bada.


KONTRATISTA NAGUSIA: kontratatutako jarduera unibertsitatearen berezko jarduera bada, hau da, irakaskuntza eta ikerketa.

ENPRESA KONKURRENTEAK: euren jarduerak lantoki berean garatzen dituzten enpresak (bi edo gehiago, langile autonomoak barne).

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA: kontratatutako lanen egikaritzea zuzentzeko Kontratistak izendatutako pertsona.

KONTRATISTAREN ARDURADUNA: kontratistak izendatutako pertsona, lantokian egoten dena eta hango arduraduna dena.

KONTRATISTAREN SEGURTASUN-ARDURADUNA: kontratistak izendatutako pertsona, laneko segurtasun-baldintzak ikuskatzeko eta langileen segurtasunari eta osasunari eragiten dioten kontuetan aholku emateko ardura duena.

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/10</p>
--	--	--

UPV/EHUKO ORDEZKARIA: Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren aholkularitzarekin eta laguntzarekin, lanen egikaritzea ikuskatzeko eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dela zaintzeko organo eskudunak izendatutako pertsona.

UPV/EHUKO PREBENTZIOKO TEKNIKARIA: laneko arriskuen prebentzioko funtzioak betetzen dituen Prebentzio Zerbitzuko pertsona.

PREBENTZIOKO JARDUEREN KOORDINATZAILEA: koordinazioa oso konplexua duten eta lantoki berean hainbat enpresa biltzearen aurrean arazoak sortzen dituzten zenbait egoeratako lehentasunezko koordinazio-neurri gisa 171/2004 EDan xedatutako irudia. Gutxienez erdiko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza izan behar du.

PREBENTZIOKO BALIABIDEA: Laneko Arriskuen Prebentzioaren arau-esparrua berritzen duen 54/2003 Legeko 32 bis artikuluan xedatutako irudia da, arrisku bereziko zenbait kasu eta egoeratan prebentziozko jarduerak betetzen direla zaintzeko, laneko metodoak eta, ondorioz, arriskua-ren kontrola zorrotzaz betetzen direla bermatuz. Gutxienez oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza izan behar du. Lantokian egotea beharrezkoa izango da 39/1997 EDko 22 bis artikuluko 1. idatz-zatian eta 604/2006 EDak egindako ondorengo aldaketan xedatutako zenbait kasutan.


IRAUPEN LUZEKO KONTRATUAK: lanaldi osoko jarduera Unibertsitatean egiten duten langileak dituzten enpresak, besteak beste, mantentze-enpresak (elektrizitate, iturgintza, obra zibila, girotzea, garbiketa, lorezaintza...), zaintza eta segurtasuneko langileak, kafetegi eta jatetxeetako langileak.

11.4. Jarduketa-prozedura

Unibertsitatean enpresa bat baino gehiagoko langileak aldi berean ari badira edo beste enpresa bateko langileen edo langile autonomoen jardueretan nahasten badira, honako prozedura hau bete beharko dute kanpoko enpresa kontratatzeke fasean nahiz agindutako lanak kontrolatzekoan.

11.4.1 Unibertsitatean garatzen diren enpresa eta jardueren tipologiaren azterketa

- Enpresen errolda egitea, enpresen zerrenda eta katalogazioa eta behar den informazioaren euskarria izateko.
- Lanak Unibertsitateko instalazioetan edo Unibertsitatetik kanpo egiten diren jakitea.
- Enpresek Unibertsitatean egiten dituzten lanak edo daukaten kontratu-mota ezagutzea.
 - Iraupen luzeke kontratu eta administrazio-emakidadun enpresak, lanaldi osoko jarduera Unibertsitatean egiten duten langileak dituztenak, besteak beste, mantentze-enpresak (elektrizitate, iturgintza, obra zibila, girotzea, garbiketa, lorezaintza...), zaintza eta segurtasuneko langileak, kafetegi eta jatetxeetako langileak.
 - Zerbitzu-, hornidura- edo aholkularitza-enpresak, unibertsitatean aldi behin aritzen direnak. Enpresa horietako langileak euren kontratuaren xede den lana egiteko edo ga-

 <p>ematen ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 5/10</p>
---	--	--

ratzeko behar den denboran soilik egoten direnak Unibertsitatean: ekipamenduak edo makinak instalatu edo konpontzea, eraikinen barruan obra txikiak egitea.

- Langile autonomoak.
- Unibertsitateko hainbat sailetan lan egiten duen kolaboratzailea.

- d) Kontratutako jarduera unibertsitatearen berezko jarduera den edo ez jakitea: Jarduera-motak definituko du harremana **enpresa titular** gisakoa den (kontratutako jarduera unibertsitateko berezko jarduera ez bada) edo **enpresa nagusi** gisakoa den (kontratutako jarduera unibertsitateko berezko jarduera bada, hau da, irakaskuntza eta ikerketa).
- e) Beste egoera batzuk: Askotariko kasuak daude edo egon daitezke:
- Unibertsitatearen titulartasuna duten baina kanpoko erakunde batek kudeatzen dituen eraikinak (mantentzea Unibertsitateak egiten du beste eraikinetan bezala, baina jarduera kanpoko erakundeak kudeatzen du): GURUTZE GORRIKO HAURTZAINDEGIA.
 - Unibertsitateko eraikin batean lokalak hartuta dituzten kanpoko erakundeak: ENPRESEN MINTEGIA.
 - Campus barruko eraikin independenteak. Unibertsitateak ez du inolako jarduketarik ez kontrolik horien kudeaketan: OSTALARITZA.
 - Erakunde publiko edo pribatuek unibertsitate-erabilerarako lagatako eraikinak: Esperientzia Gelak, Bizkaia Aretoa...

Egoera horietako bakoitzerako enpresa-jarduerak koordinatzeko jakineko prozedurak ezarri beharko dira erakundeen artean.

11.4.2. Esku hartzen duten pertsonak


11.4.2.1. Unibertsitatean erosi edota kontratatzeke ahalmena

UPV/EHUn erosteko edo kontratatzeke ahalmena duten zerbitzu eta langile guztiek aurreikusitako prozedurari jarraitu beharko diote kanpoko pertsona bat UPV/EHuko instalazioetara joaten denean.

11.4.2.2. Unibertsitatearen eta obrak egiten dituzten edo zerbitzuak ematen dituzten erakunde/enpresen arteko prebentziozko jarduera koordinatzeko ahalmena

Gaian eskumena duen Errektoreordeak izendatutako pertsonak, prebentzio-jarduerarako izendatutako langileek edo Unibertsitateko hierarkia-egituran duten posizioa kontuan hartuta, koordinatzeko ahalmena duten langileek, behar izanez gero Prebentzio Zerbitzuko teknikariek aholkatuta.

Koordinatzailearen/en funtzioak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeko 24. artikulua garatzen duen 171/2004 Errege Dekretuko 14. artikuluan xedatutakoak izango dira. Tratamendu bera izango dute aipaturiko Errege Dekretuan aurreikusitako eskumenek.

 <p>Unibertsitateko eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 6/10</p>
---	--	--

11.4.3. Eman beharreko informazioa

Unibertsitateko instalazioetan denbora gehiago edo gutxiago igaro behar duten langileak dituzten enpresa guztiek informazioa izan behar dute aurrean dituzten arriskuei buruz, arrisku horietarako prebentzio- edo babes-neurriei buruz eta larrialdiko neurriei buruz. Hori guztia garatu behar duten jardueraren arabera.

Honako informazio hau ematen zaie enpresei:

1. UPV/EHUko errektorearen 2003ko apirilaren 7ko Ebazpena, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuaren osaerari, antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzkoa.
2. Laneko arriskuen **Prebentzio Plana**, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera.
3. Lanak gauzatzean egon daitezkeen **arriskuen ebaluazioa**, eraikinen eta jardueren arabera.
4. **Autobabeserako Planak**: Larrialdi-kasuetarako neurriak: Antolakuntza.
5. **Osasunaren zaintza**: OSALANen baimena, UPV/EHUko SPPren osasun-jarduerari buruzkoa.
6. **Istripu-kasuetarako jarduera-gida**.

Oro har, zerbitzuak, hornidurak eta erosketak kontratatzeko dokumentazio guztian (administrazio-orriak, aurrekontuak onartzeko inprimakiak, eskaera-orriak...) esleipenduna Prebentzio Zerbitzuko web-orria (www.ehu.es) bisitatzeraz behartzen duen paragrafoa edo klausula sartu behar da pertsona esleipendunaren betebeharren idatz-zatian, web-orri horretan baitago Unibertsitatean zerbitzuak ematen dituen kanpoko edozein enpresarentzako informazio orokorra. Dokumentazioa paperean eman daiteke, xedatutako irizpidearen arabera.


Jarduerak arrisku larria edo oso larria eragin badezake edo iraupen luzeko kontratua bada, prozedura entrega pertsonalaren bitartez gauza daiteke, xede horretarako bileran formalizatutako ordain-agiriarekin.

Ezarritako prozeduraren arabera, kanpoko enpresa batekin zerbitzu bat edo hornidura bat kontratatzen duen, edo kontratatzeko eskaera egin edo sustatzen duen pertsona oro da kontratua egikartzeko jarraipenaren erantzule eta, baldin badaude, arriskuei buruzko informazio espezifiko eman behar du kontratazioaren xedea egikaritu behar den tokian (makina edo ekipamendu baten konponketa, laborategietan jakineko instalazioak egitea, obra txikiak...) jardueraren garapenerako koordinatzailearekin lankidetzan.

Gauza bera gertatzen da unibertsitateko ikerketa-proiektuak garatzera etortzen diren kanpoko pertsonekin edo irakasle gonbidatuekin. Proiektuaren edo gonbidapenaren ardura duten irakasleek eman behar diete kanpoko langileei jardueraren garapenean sor litezkeen arrisku espezifikoak buruzko informazioa eta, larrialdiren bat edo istripuren bat izenez gero, eraikinen autobabeserako planean jasotako argibideak azaldu. Hori guztia dagokion hitzarmenean jasota egongo da.

11.4.4. Jaso beharreko informazioa

Enpresei buruz eskatzen den informazioa, batetik, enpresako prebentzioko arduradunaren izena da eta, bestetik, bere jarduerak unibertsitateko langileei edo beste enpresa batzuetako langi-

 <p>ematen ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 7/10</p>
---	---	--

leei sor diezaieketen arriskuaren ebaluazioa. Prebentzio-egituraren justifikazioa, baimendutako langileen zerrenda, behar diren TCak, Prebentzio Plana, arriskuari buruzko ebaluazioen egiaztagiria, enpresa kontratistako langileei emandako informazioaren eta prestakuntzaren egiaztagiria eta langileek lan horretarako duten osasun-gaitasunaren egiaztagiria eskatu behar dira.

Baimena ere eskatu beharko da lana egiteko derrigorrezkoa denean (adibidez, langileak lanpostua betetzeko behar diren kalifikazioa eta gaitasuna dituela egiaztatzen duen 614/2001 EDren araberrako Ziurtagiria), eta baita NBEak entregatu izanaren kontrola, kontrataren jakinarazpena azpikontra tekin lanean ari bada eta erantzukizun zibileko poliza ere.

Laneko Arriskuen Prebentzioarekin zerikusia duen lehiaketa edo prozedura zentralizatuei buruzko dokumentazioa eta informazioa zaindu egin behar da eta Prebentzio Zerbitzuan zentralizatuta egon behar du.

Solaskideek dokumentazioa jasotzen dutenean Prebentzio Zerbitzuaren eskura jarriko dute, horrek eskatzen dienean.

11.4.5. Azpikontraten kasuan

Kontratu baten edo emakida baten enpresa esleipendunak bere jarduera guztia edo zati bat beste enpresa batzuei azpikontratatzan dien kasuan, lehenengoa izango litzateke jardueraren enpresari nagusi edo titularra.

Unibertsitateak, kontratazioaren edo emakidaren unitate arduradunaren bitartez, edo enpresa-jardueren koordinazioaren bitartez, honako hauek egin beharko ditu:

- Enpresa esleipendunak legezko araudian eta aplikatutakoak dakizkiokeen prozedura eta jarraibide espezifikotara xedatutakoak betetzen duela bermatzeko behar den kontrola egin, bereziki bere jarduerak hirugarren pertsonengan eragina izan badezake.
- Istripuak prebenitzeko arauak betetzen ez direnean, ekintza ez segurua egiten direnean, babesteko ekipamendurik ez dagoenean edo tresna desegokiak erabiltzen direnean lana gelditzeko proposamena egin Laneko Arriskuen Prebentzioko Legean arrisku larri edo berehalakoa duten lanak geldiarazteko xedatutako bideen bitartez.

11.4.6. Informazioa-transferentzia

Kontratazio-orrietan zehaztu behar da enpresa esleipendunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu behar duela arriskuaren edo arriskuen ebaluazioaren araberrako epean eta betiere unibertsitatean jarduerari hasiera eman baino lehen eta jarduera-aldaketaren bat izaten denean.

Iraupen luzeko kontratuak eta administrazio-emakidak dituzten enpresei dagokienez, dokumentazioa eskatzea bezain garrantzitsutzat jotzen da prebentzioko arduradunekin aldizkako bilerak egitea. Halaber, era horretako enpresei langileen osasunari eta laneko arriskuen prebentziari buruzko urteko txostena eskatuko zaie, dagokion Osasun eta Segurtasun Batzordearen eskura jarriko dena.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 8/10</p>
---	---	--

Langile oso sentiberen kasuan, gaitasunaren ezaugarriak eta izan ditzaketen arriskuen kontrol-maila jasoko dira ebaluazioan.


11.4.7. UPV/EHUko langileen unibertsitatez kanpoko lanak

Unibertsitatez kanpoko instalazioetan egiten diren lanetarako, beste enpresara joaten direnean dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa eman behar zaie bertako langileei. Hala, kanpoko enpresan egin behar duten jardueraren arabera, izango dituzten arriskuei buruzko eta larrialdietan enpresak hartu beharreko neurriei buruzko informazioa eman behar zaie; jardueraren arabera, bestalde, jarduerak langileei edo instalazioei eragin diezazkieketen arriskuei buruzko informazioa ere eman behar diote enpresari. Oro har, informazio-transferentzia hori enpresari bisita edo lanak antolatzen dizkion arduradunaren bitartez egin behar da.

Euren jarduera UPV/EHUko instalazioetatik kanpo egiten duten langileek jarduera hori egiten dueneko erakundeak eskatutako informazioa egiaztatu beharko du, gutxi gorabehera UPV/EHUK eskatutakoaren antzekoa izan daitekeena:

1. **Egin beharreko lanen** deskribapena.
2. Lan horiek egiteko **arriskuen ebaluazioa**.
3. **Langileen zerrenda: TC1 eta TC2**.
4. Laneko arriskuen **Prebentzio Plana**, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera.
5. Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) edo Unibertsitaterako jardungo duten langileen-tzako **informazioa**. Beren eginkizunak burutzean izango dituzten segurtasun- eta osasun-arriskuen berri emango zaie, baita horiei aplikagarri zaizkien babes- eta prebentzio-neurrien berri ere.
6. UPV/EHUUn edo UPV/EHUrako lanean jardungo duten langileei beren zereginekin lotuta dauden segurtasun- eta osasun-alderdiei buruzko **prestakuntza** eman zaiela frogatzen duten **ziurtagiriak**.
7. **Babes-neurriak**: UPV/EHUUn edo UPV/EHUrako lanean jarduteko langileek erabili beharko dituzten norbere burua babesteko ekipamenduen eta lanerako ekipoen zerrenda, baita horiek norbera babesteko ekipamenduetarako eta lanerako ekipoetarako ezarrita eta indarrean dauden legezko irizpidetara egokitzen direla frogatzen duten ziurtagiriak ere.
8. **Prebentzioaren antolakuntza-eredua**: Bertako edo kanpoko Prebentzio Zerbitzua.
9. UPV/EHUrekin **harremanetan egongo den pertsona**, segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaile-lanetarako; helbidea, telefonoa, faxa eta helbide elektronikoa adierazita.
10. **Larrialdietarako jokabideak eta neurriak**: Antolakuntza.
11. **Osasunaren zaintza**: UPV/EHUUn edo UPV/EHUrako lanean jardungo duten langileen osasun-gaitasunaren ziurtagiria.
12. **Erantzukizun zibileko aseguru**.

Kasu horretan sar litezke, besteak beste, ikerketa-proiektuengatik edo aholkularitza-bisiten-gatik enpresetan egindako lanak, irakaskuntzako praktika gisa enpresetara egindako bisitak, *Practicum* deiturikoa egiteko praktiketako egonaldiak...(ikaslea unibertsitateko langilea ez den arren, azken kasu hori enpresetara egindako bisiten parekotzat jo daiteke ikaslearen irakasle-tutorea da-goelako).

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 9/10</p>
--	---	--

11.4.8. Prozedura unibertsitatean ezartzea


1. Intercampus Segurtasun eta Osasun Batzordeak prozedura onartzea.
2. Inplikaturako zerbitzuekin lan-prozedura adostea. Zerbitzuen lan-prozeduretan beste urratsik ez sortzea da asmoa.
3. Informazio-gutunak bidaltzea honako hauei:
 - Saitetako zuzendariari.
 - Zerbitzu Zentraletako buruari edo zuzendariari.
 - Ikastegi edo eraikinetako administratzaileari.
4. Zerbitzu garrantzitsuenetarako gutun espezifikoak bidaltzea (aurrez ezagutzen dute onartu baino lehen prozeduraren berri galdetu zaielako).
 - SAO,
 - ikerketa-proiektuak kudeatzen dituen zerbitzua (OTRI...),
 - ikasleen praktiketako zerbitzuak kudeatzen dituen zerbitzua,
 - Kontratazio-zerbitzua.

11.5. Jarraipena eta hobekuntza-ekintzak

Behin agindutako lanak amaitu ondoren, jarraipena egin behar duen pertsonak Laneko Segurtasun eta Osasun eskakizunak betetzen diren edo ez aztertuko du.

11.6. Aplikazio-araudia

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, laneko arriskuen prebentzioko arau-esparrua eraberritzeko abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatutakoa, eta hura garatzeko arau guztiak.
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena.
- Apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretua, lantokietan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.
- 216/99 ED, ABLEen esparruan laneko segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- Urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 24. artikulua garatzen duena.
- Maiatzaren 19ko 604/2006 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 ED eta eraikuntza-obretako segurtasunari eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 ED aldatzen dituena.

 <p> <small>errian ta zabai zazu</small> Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>10/10</u></p>
--	---	---

11.7. Eranskinak

- 1. eranskina: Zinpeko aitortpena.
- 2. eranskina: Laneko Arriskuen Prebentzioa: dokumentazioa.
- 3. eranskina: Laneko Arriskuen Prebentzioa: UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuarekin egindako lehenengo bilera.

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 1/1</p>
--	---	---

I. eranskina. Zinpeko aitortpena

Nik, jaun/andreak (herria:; kalea:
.....; NAN:), en-
presako ordezkari edota administratzaile gisa (egoitza soziala:
IFK:),

ADIERAZTEN DUT, ORDEZKATZEN DUDAN ENPRESAK

1. Laneko arriskuen prebentziorako egungo irizpideak modu aktiboan barneratu dituela bere zereginetan, eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean eta berau garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin bat datorren Prebentzio Plana duela.

2. Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) edo Unibertsitaterako lanean diharduten langileei beren eginkizunak burutzerakoan dituzten segurtasun- eta osasun-arriskuen berri eta erabil ditzake- ten babes- eta prebentzio-neurrien berri emango diela.

3. UPV/EHU edo UPV/EHUrako lanean jardungo diren langileei beren zereginekin erlaziona- tuta dauden segurtasun- eta osasun-gaiei buruzko prestakuntza eskainiko diela.

4. UPV/EHU edo UPV/EHUrako lanean jardungo diren langileei beren eginkizunetarako ego- kiak eta beharrezkoak diren babes-baliabideak eskainiko dizkiela, eta baliabide horiek norbera babes- teko ekipamendurako eta lan-ekipamendurako ezarri diren eta indarrean dauden lege-irizpideetara egokituko direla.

5. Prebentzio Zerbitzuen Araudian ezarritako eskakizunak betetzen dituela, eta Prebentzio Zer- bitzua bere egiten duela edo Kanpoko Prebentzio Zerbitzu bat kontratatuko duela eginkizun horiek betetzeko.

6. UPV/EHU edo UPV/EHUrako lanean jardungo diren langileen osasuna zaintzeko kontrola burutu duela.

7. Langileen ezbehar-tasa aztertzen eta kontrolatzen duela.

8. Hitzematen duela, berari esleituz gero, Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legeko 24. artikuluan (enpresa-jardueren koordinazioa) jasotako neurriak eta artikulua hori garatzen duen ur- tarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua zorrotz beteko dituela.

.....(e)n, 201... (e)koaren(e)(a)n

Stua:..... NAN:.....

 <p>ematen ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/1</u></p>
---	--	--

2. eranskina. Laneko arriskuen prebentzioa: dokumentazioa

Nik, jaunak/andreak (helbidea: (herria); kalea; NAN zk.:), enpresaren ordezkari edo/eta administratzaile gisa (sozietatearen helbidea: IFK; eta zenbakiko lehiaketaren/prozedura negoziatuaren esleipenduna), laneko arriskuen prebentzioari buruz ditugun ondorengo agiriak aurkeztu dizkiot Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateari:

1. **Egin beharreko lanen** deskribapena.
2. Lan horiek egiteko **arriskuen ebaluazioa**.
3. **Langileen zerrenda: TC-1 eta TC-2.**
4. Laneko arriskuen **Prebentzio Plana**, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera.
5. Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) edo Unibertsitaterako jardungo duten langileen-tzako **informazioa**. Beren eginkizunak burutzean izango dituzten segurtasun- eta osasun-arriskuen berri emango zaie, baita horiei aplikagarri zaizkien babes- eta prebentzio-neurrien berri ere.
6. UPV/EHUn edo UPV/EHUrako lanean jardungo duten langileei beren zereginekin lotuta dauden segurtasun- eta osasun-alderdiei buruzko **prestakuntza** eman zaiela frogatzen duten **ziurtagiriak**.
7. **Babes-neurriak**: UPV/EHUn edo UPV/EHUrako lanean jarduteko langileek erabili beharko dituzten auto-babeserako ekipamenduen eta lanerako ekipoen zerrenda, baita horiek norbera babesteko ekipamenduetarako eta lanerako ekipoetarako ezarrita eta indarrean dauden legezko irizpidetara egokitzen direla frogatzen duten ziurtagiriak ere.
8. **Prebentzioaren antolakuntza-eredua**: bertako edo kanpoko Prebentzio Zerbitzua.
9. UPV/EHUrekin **harremanetan egongo den pertsona**, segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaile-lanetarako; helbidea, telefonoa, faxa eta helbide elektronikoa adierazita.
10. **Larrialdietarako jokabideak eta neurriak**: antolakuntza.
11. **Osasunaren zaintza**: UPV/EHUn edo UPV/EHUrako lanean jardungo duten langileen gaitasun medikoaren ziurtagiria.
12. **Erantzukizun zibileko aseguruia**.

.....(e)n, 201... (e)koaren(e)(a)n

Stua:.....

 <p>emari ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Enpresa-jardueren koordinazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_11.3 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 1/1</p>
--	---	---

3. eranskina. Laneko Arriskuen Prebentzioa: UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuarekin egindako lehenengo bilera

..... jaunak/andreak, helbidea duenak, eta NAN zenbakia duenak, enpresaren (sozietatearen helbidea:; IFK:, eta zenbakiko lehia- ketaren/prozedura negoziatuaren esleipenduna) ordezkari edo/eta administratzaile gisa, konpromisoa hartzen du hilabete baino gutxiagoan Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Prebentzio Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko; bilera horretan, UPV/EHUko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko dokumentazio hau eskuratuko edo kontsultatuko du.

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuko burua, edo arlo teknikoko berak izendatzen duena, izango da harremanetarako pertsona.

Enpresari emango zaion dokumentazioa honako hau da:

1. UPV/EHUko errektorearen 2003ko apirilaren 7ko Ebazpena, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuaren osaerari, antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzkoa.
2. Laneko arriskuen **Prebentzio Plana**, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera.
3. Lanak gauzatzean egon daitezkeen **arriskuen ebaluazioa**, eraikinen eta jardueren arabera.
4. **Autobabeserako Planak**: larrialdi-kasuetarako neurriak; antolakuntza.
5. **Osasunaren zaintza**: OSALANen baimena, UPV/EHUko SPPren osasun-jarduerei buruzkoa.
6. **Istripu-kasuetarako jarduera-gida**.

.....(e)n, 201... (e)koaren(e)(a)n

Stua:.....

PROZEDURA

Izenburua:

**Segurtasuna eta osasuna
proiektuetan eta lanen
gauzapenean**


KODEA PPRL_PR_12

BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30

1/5

12


**Segurtasuna eta osasuna proiektuetan
eta lanen gauzapenean**

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Segurtasuna eta osasuna proiektuetan eta lanen gauzapenean</p>	<p>KODEA PPRL_PR_12</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>2/5</u></p>
---	---	---

- 12.1. Helburua
- 12.2. Irismena
- 12.3. Definizioak
- 12.4. Jarduera prozedura
 - 12.4.1. Proiektu- edo aurreproiektu-fasearen aurreko jarduerak
 - 12.4.2. Proiektu- edo aurreproiektu-faseko jarduerak
 - 12.4.3. Lan-faseko jarduerak
 - 12.4.4. Lan-fasearen osteko jarduerak
 - 12.4.5. Dokumentazioa artxibatzea
 - 12.4.6. Batzorde Teknikoa
- 12.5. Neurri zuzentzaileen eta hobekuntza neurrien jarraipena
- 12.6. Erreferentziak
- 12.7. Eranskinak

Eranskinak

- 1. eranskina. Dokumentazioa kontrolatzeko zerrenda

 <p>emán ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Segurtasuna eta osasuna proiektuetan eta lanen gauzapenean</p>	<p>KODEA PPRL_PR_12</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>3/5</u></p>
---	---	---

12.1. Helburua

Prozedura honen bidez Laneko Arriskuen Prebentzioa integratu nahi da UPV/EHUn eraikinak eta instalazioak eraikitze eta aldatzeko proiektuetan edo aurreproiektuetan, 1627/1997 Errege Dekretuan adierazita dagoen moduan.

Proiektu-faseko prebentzioari esker, beharrezkoak diren prebentzio-neurriak ezartzen dira erai-kuntza- edo aldaketa-lanak hasi aurretik, eta hala, askoz garestiagoak izan ohi diren eta sarritan gauzatzeko zailak izaten diren neurri zuzentzaileak saihesten dira.

12.2. Irismena

Prozedura hau UPV/EHUn eraikinak eta instalazioak eraikitze eta aldatzeko proiektu edo aurreproiektu guztietan aplikatuko da; bai proiektu teknikoa behar dutenetan, bai proiektu teknikorik behar ez dutenetan.

12.3. Definizioak

JARDUERA PROPOSAMENA: eraikin edo instalazio berriak eraikitze edo lehendik daudenak aldatzeko beharrezkoak diren esku-hartzeei buruzko txostena. Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak egingo du, aurreproiektua edo proiektua idatzi aurretik.

AURREPROIEKTUA: arkitektura- edo ingeniari-tza-lan baten proiektua idatzi aurretik egiten diren lanak.

PROIEKTUA: arkitektura- edo ingeniari-tza-lan bat nolakoa izango den eta zenbateko kostua izango duen jakiteko egiten diren idatziak, kalkuluak, marrazkiak eta planoak.


PROIEKTU TEKNIKOA: kontsultarako eta eredu-zko dokumentu teknikoa, tituludun trebe batek egindakoa. Lau atal izan behar ditu: memoria, planoak, baldintzen agiria eta aurrekontua. Proiektua azken erabiltzaileen laneko segurtasunaren eta osasunaren ikuspuntutik analizatu behar da.

12.4. Jarduera prozedura

Proiektuan edo aurreproiektuan prebentzioa bermatzeko, Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak erregistro dokumentatu espezifiko bat sortu eta eguneratuta mantendu beharko du proiektu edo aurreproiektu bakoitzerako. Bertan, honako esku-hartze hauek hartu beharko dira kontuan:

12.4.1. Proiektu- edo aurreproiektu-fasearen aurreko jarduerak

Obra berriak edo eraberritze-lanak egiteko eskariak, dagozkion organoak onartu ondoren, Campuseko Gerenteordetzara edo Azpiegitura eta Kontratazioetarako Gerenteordetzara zuzendu beharko dira.

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Segurtasuna eta osasuna proiektuetan eta lanen gauzapenean</p>	<p>KODEA PPRL_PR_12</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">4/5</p>
---	---	--

Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak, aurkeztutako idatziaren eta dokumentazioaren arabera, jarduera-proposamen bat egingo du. Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak Prebentzio Zerbitzuari igorriko dio aipaturiko proposamena, hark bere iritzia eman dezan eta dagozkion iradokizunak egin ditzan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak eta Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen 39/1997 Errege Dekretuak emandako eskumenei jarraituz.

Esku-hartzearen sinpletasuna dela-eta, ez bada beharrezkotzat jotzen proiektu- edo aurreproiektu-fasearen aurretik jarduera-proposamen bat egitea, 4.2. puntuan adierazita dagoena egingo da zuzenean.

12.4.2. Proiektu- edo aurreproiektu-faseko jarduerak

Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak, aurreproiektua edo proiektua idazteko agindua emango edo formalizatuko du, aurreko atalean deskribatu den jarduera-proposamena oinarri hartuta. Aurreproiektua edo proiektua idatzi ondoren, Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak Prebentzio Zerbitzuari bidaliko dio, bere iritzia eman dezan.

Aurreproiektuak edo proiektuak, langileen eta azken erabiltzaileen osasun- eta segurtasun-irizpideak beteko direla bermatuko duten alderdi teknikoak jaso beharko ditu.

12.4.3. Lan-faseko jarduerak

Lan-fasean, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten proiektuko alderdiak betetzen direla kontrolatuko du Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak. Desadostasunen bat detektatzen bada, Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak Prebentzio Zerbitzuari eta dagokion Gerenteordetzari jakinaraziko die, idatziz.


Era berean, erabiltzaileek edo Prebentzio Zerbitzuko teknikariek desadostasunen bat detektatzen badute, dagokion Gerenteordetzari jakinaraziko diote.

12.4.4. Lan-fasearen osteko jarduerak

Lan-fasearen ostean, Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak obraren onarpenean parte hartuko du (fase hori gauzatzen bada). Obraren onarpen-aktaren kopia bat bidaliko zaio Prebentzio Zerbitzuari, eta aholkua ere eskatu ahal izango zaio.

12.4.5. Dokumentazioa artxibatzea

Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak eta Prebentzio Zerbitzuak artxibatu egingo dute prozesuan sortu den dokumentazio guztia. Dokumentuak kronologikoki zerrendatuko dira, **1. eranskin** gisa erantsi den erregistroan.

 <p>emán ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Segurtasuna eta osasuna proiektuetan eta lanen gauzapenean</p>	<p>KODEA PPRL_PR_12</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>5/5</u></p>
---	---	---

12.4.6. Batzorde Teknikoa

Faseren batean Arkitektura eta Lanen Zerbitzua eta Prebentzio Zerbitzua ados ez baleude, desadostasunak Batzorde Tekniko batek ebatzi beharko ditu. Batzorde Teknikoko kideak honako hauek izango dira:

- Dagokion Campuseko Errektoreordetza/Gerenteordetzako ordezkariak.
- Dekano-taldeko ordezkariak, ikastegiko edo zerbitzuko zuzendaritzako ordezkariak, edo dagokion arduraduna.
- Arkitektura eta Lanen Zerbitzuko ordezkariak.
- Prebentzio Zerbitzuko ordezkariak.

12.5. Jarraipena eta neurri zuzentzaileak


UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak prozedura honetatik eratorriko diren neurri zuzentzaileen jarraipena kudeatuko du, P.G.P.04 prozedurako ildoetara jarraituz.

12.6. Erreferentziak

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (269. BOE, azaroaren 10ekoa).
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena (27. BOE, urtarrilaren 31koa).
- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituenak.


12.7. Eranskinak

- 1. eranskina: dokumentazioa kontrolatzeko zerrenda.

 <p>emán ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/9</u></p>
---	---	---

13


Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>2/9</u></p>
---	---	---

- 13.1. Helburua
- 13.2. Irismena
- 13.3. Definizioak
- 13.4. Jarduera-prozedura
 - 13.4.1. Erantzukizunak
 - 13.4.2. Istripuen berri ematea
 - 13.4.3. Ikerketa-protokoloa eta lan-egitasmoa
 - 13.4.4. Azpiegituren mantentze-lana eta segurtasuna
 - 13.4.5. Banakako babes-ekipoak
 - 13.4.6. Banakako babes kudeatzea
 - 13.4.7. Komunikazioa eta prestakuntza
 - 13.4.8. Informazioa, artxiboa eta ikuskaritza
- 13.5. Ekintza zuzentzaileen eta hobekuntza-ekintzen jarraipena
- 13.6. Erreferentzia-dokumentuak
- 13.7. Eranskinak

Eranskinak

- 1. eranskina. Segurtasuna egiaztatzeko zerrenda

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/9</p>
---	---	---

13.1. Helburua

Prozeduraren xedea UPV/EHUko kideek laneko segurtasun eta osasun arloan jarraitu beharreko arauak erregulatzea da, UPV/EHUko instalazioetan eta hortik kanpo egindako ikerketa eta irakaskuntza-jardueretarako.

13.2. Irismena

Betebehar hauek Unibertsitateko instalazioetan nahiz kanpoan egindako UPV/EHUko ikerketa-proiektuetan, I+Gko ekintzetan, enpresa edo antzekoekin eginiko zerbitzu-kontratuetan eta irakaskuntza-jarduera guzti-guztietan eskatuko dira.

Unibertsitateari eta berari lotutako edo bere menpeko erakunde guztiei aplikatuko zaizkie. Laneko arriskuen prebentzioaren ondorioetarako, berriz, hauei aplikatuko zaizkie:

- Irakasleei eta Ikertzaileei.
- Administrazioko eta zerbitzuetako pertsonalari.
- Trebatzen ari diren ikertzaileei, beren antzinatasuna edo lotura edozein dela ere. Hortaz, aurreko bi puntuetan adierazitako langileekin batera egongo dira, laneko arriskuei dagokienez.
- Laneko arriskuen prebentzioaren araudi-esparrua aplikatzen ez zaien arren, ikasleak segurtasuna eta osasuna bermatzen dituzten jarduera egokietako kodeen eraginpean egongo dira. Puntu honetan, Ikasleen Estatutuan ezarritakoa beteko da.


13.3. Definizioak

IKERKETA-PROIEKTUA: ikerketa-jardueren multzoa da, ikertzaileek egindakoa, beharrezkoa den langileen lankidetzaz. Emaizta zientifikoak lortzeko egiten dira, eta jendaurrean adierazi daitezke tesien, argitalpenen, kongresuen eta beste foro batzuen bidez. Intelektualki babesteko, patenteak edo antzekoak erabil daitezke.

IKERKETA (proiektu) PROTOKOLOA: hipotesi jakin baten azterketari buruz **idatzitako testua** da. Testuak jaso beharko ditu, gutxienez: proposamenaren aurrekariak; helburu zehatzak; erabili beharreko metodologia; lan-egitasmoa eta aurreikusitako egutegia; beharrezkoak diren baliabideak eta eskuratu daitezkeenak; eta, parte hartuko duen taldea. Testuinguru horretan txertatu behar dira, halaber, alderdi etikoak eta segurtasunari eta osasunari buruzko aurreikuspenak.

IKERKUNTZA-TALDEA: UPV/EHUko ikertzaileen, prestatzen ari diren langileen eta/edo ikerketa-proiektuan diharduten unibertsitatekanpoko eragileen multzoari esaten zaio, eta taldearen zein ikerketa-jardueraren ondorio guztien aurrean erantzule den ikertzaile nagusi batek gidatzen du.

IKERTZAILE NAGUSIA (IN): ikerketa-taldearen proiektuaz arduratzen den pertsona. Babesteko betebeharrari erantzuteko, proiektu horretan parte hartzen duten pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatuko ditu. Ondorio horiei begira, unibertsitate-komunitateko kideei arriskuen prebentzio egokia eta etengabea eta osasunaren babesa bermatzen dieten oinarritzko prozedurak be-

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">4/9</p>
---	---	--

tetzeko ardura izango du, UPV/EHUren instalazio eta laborategietan egindako ikerketa-jarduera guztietan.

TREBATZEN ARI DIREN IKERTZAILEAK: unibertsitateko gradudunak dira, laguntza-programen onurak jasotzen dituztenak. Laguntza horien bidez, zientzia eta teknika arloan espezializatzen diren ikerketa-jarduerak egiten dituzte, doktoregoko ikasketa ofizialen mailan gutxienez.

KANPO-ERAGILEA: UPV/EHUkoa ez den langilea, UPV/EHUko talde bati lotutako irakaskuntza-jardueran edo ikerketa-proiektuetan lankidetzan diharduena.

IRAKASKUNTZA-JARDUERAK: ikasleen ikaskuntzara bideratutako jardueren multzoa da, irakasgaietan ikaslearen ebaluazioa egiteko erabiltzen dena. Laneko arriskuak esleitzeari dagokionez, jarduera hauek honela sailka daitezke: ikasgelako jarduerak, ordanagilu/ikus-entzunezko jarduerak, laborategiko jarduerak, tailer/industria-tailerreko jarduerak, jarduera klinikoak, landako jarduerak, kirolko jarduerak eta enpresetan eginiko praktikak.

IRAKASKUNTZA-JARDUEREN ARDURADUNA: UPV/EHUren irakaskuntza-programetan eginiko irakaskuntza-jarduerak antolatzeaz, egiteaz, koordinatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen den irakaslea edo ikertzailea.

IRAKASKUNTZA-TALDEA: UPV/EHUko irakasleak, ikertzaileak eta AZPak dira, eta irakaskuntza-jarduerak diseinatzen, martxan jartzen, garatzen eta ebaluatzen laguntzen dute.


JARDUERA-PLANA: dokumentu idatzi bat, ekintzen emaitzak lortu ahal izateko beharrezkoak diren metodoen eta tekniken xehetasunak ematen dituena. Dokumentu horretan jasotzen dira, halaber, ekintza horri lotutako arriskuak eta lana egiteko modu egokia, arrisku horiek ezabatzeko edo gutxitzeko.

UPV/EHU-KO IRAKASKUNTZA ETA IKERKETAREN ETIKA-BATZORDEA (IIEB): Ikerketako Errektoreordetzari atxikitako kide anitzeko organoa da, eta unibertsitateetan eginiko irakaskuntza-jarduerak eta ikerketa-proiektuak ezarritako eskakizun metodologiko, etiko eta juridikoetara egokitzen direla bermatu behar du, honelako ikerketetan: gizakiekin egindakoak, gizakien lagin biologikoekin egindakoak, izaera pertsonaleko datuekin egindakoak, animaliekin egindakoak, genetikoki aldatutako agente biologiko edo organismoekin egindakoak.

LAN-PROTOKOLO NORMALIZATUA (LPN): prebentzioko ekintza-neurrien multzo koherentea da. Hautemandako arriskuen izaerara egokitzen dira neurriak, eta beren eraginkortasuna kontrola daiteke. Irakaskuntza- edo ikerketa-jardueretako planetan, protokoloetan edo memorietan biltzen dira. Dokumentu idatziaren azpiatal bat dira, eta arriskuen prebentziorako neurri espezifikoaren deskribapena jasotzen dute. LPN hauek parte-hartzaile guztiei banatu behar zaizkie, eta eskura egon behar dute laborategian. Halaber, eskuratzeko moduan egongo dira, barneko (UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua) edo kanpoko (OSALAN, etab) ikuskaritzak egiteari begira.

13.4. Jarduera-prozedura

UPV/EHUko irakasleek eta ikertzaileek Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan indarrean dauden araudia kontuan hartuko dute, ikerketa-proiektuak eta -kontratuak edo irakaskuntza-jarduerak eskatzeko eta egiteko orduan. Lanerako metodologiarik egokiena eta ingurumenerako arrisku fisiko, kimiko edo biologiko gutxienezkoa hautatuko dute.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>5/9</u></p>
---	--	--

Ikerketa- eta irakaskuntza-jardueretan, produktu arriskutsuen ordez arriskurik gabeko edo arrisku gutxiagoko produktuak erabiliko dira, baldin eta antzeko ezaugarriak badituzte eta funtzio bera bete badezakete.

13.4.1. Ikerketa- eta irakaskuntza-jardueretako prebentzioaren erantzukizunak

13.4.1.1. Ikertzaile nagusiaren (IN) erantzukizuna

Ikertzaile nagusia proiektu edo kontratuari lotutako laneko arriskuen prebentzioaz arduratuko da. Horrelako gaitetan, bera izango da solaskidea Sail, Ikastegi, Ikerketako Errektoreordetza eta Prebentzio Zerbitzuarekin.

13.4.1.2. Ikerketa-taldeko eta irakaskuntza-taldeko kideen erantzukizunak

INak edo jardueren arduradunak ikerketa-taldeko edo irakaskuntza-taldeko kideei jakinaraziko die, ikerketa-proiektu edo -kontratuaren jarduerak edo irakaskuntza-jarduerak segurtasunez egiteko modua, LPNan ezarritakoa kontuan hartuta.

Ikertzaile nagusiari edo jardueren arduradunari edozein anomaliaren berri emateko erantzukizuna izango dute; baldin eta, anomalia horrek jarduera lan arlo horretan ezarritako segurtasun-baldintzetan egitea eragozten badu, ikerketa-proiektua edo -kontratua edo irakaskuntza-jarduerak egin bitartean.

13.4.1.3. Irakaskuntza-jardueren arduradunaren erantzukizunak


Jardueraz arduratzen den irakasleak irakaskuntza-jarduerari dagokion lan-egitasmoaren berri emango die ikasleei, jarduera segurua dela eta printzipio etikoekin bat datorrela bermatze aldera.

13.4.1.4. Ikerketa- eta irakaskuntza-jarduerari lotutako AZPren erantzukizunak

INak edo jardueraren irakasle arduradunak UPV/EHUko ikerketetan eta/edo irakaskuntza-jardueretan diharduen AZPari ikerketa eta/edo irakaskuntza-jarduera zuzen egiteko ezarritako LPNren berri emango dio.

13.4.1.5. Ikasleen erantzukizuna

Ikasleak lan-egitasmoa jasotzeko eskubidea izango du irakaskuntza-jarduera segurua bermatzeko, eta segurtasun-neurriak bete beharko ditu. Hala behar izanez gero, jarduera egiteko ezarritako BBEak erabiliko ditu. Era berean, proiektu edo jardueraren segurtasunerako emandako jarraibideak errespetatu eta bete beharko ditu.

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">6/9</p>
---	---	--

13.4.1.6. Sail, Institutu eta gainerako Unibertsitate Egituretako Zuzendaritzaren erantzukizunak

Sail edo institutuko zuzendaria eta gainerako unibertsitate-egituren arduradunak laneko arriskuen prebentzioa bermatzeaz arduratuko dira ikerketari, irakaskuntzari eta beren arloko beste gai batzuei dagokienez. Egiteko horretan, dagokion eraikin edo ikastegiko arduradunarekin koordinatuko dira.

13.4.1.7. Irakaskuntza- eta/edo ikerkuntza-ikastegiko arduradunaren erantzukizuna

Ikastegiko arduradunak, dekanok edo zuzendariak, ezarritako protokoloak gainbegiratuko ditu, horien jarraipena egingo du, eta betetzen direla bermatuko du.

13.4.2. Istripuen berri ematea

UPV/EHUKo irakaskuntza- eta ikerkuntza-jarduerak egitean izandako istripu guztiak Sailari eta Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko dizkio ikertzaile nagusiak, ikerketa-jardueren kasuan, eta administrariak edo kargu baliokidea duen pertsonak, irakaskuntza-jardueren kasuan. Komunikatzeko mekanismoak «laneko istripuak, gorabeherak eta gaixotasunak ikertzea» izeneko 06 prozeduran ezarritakoa beteko du.


13.4.3. LPNa, ikerketa-protokoloetan eta irakaskuntza-jardueren planetan

Ikerketa-proiektu eta irakaskuntza-jarduera guztiak beren protokoloan, memorian edo planean lan-prozedura normalizatua (LPN) ezarri beharko dute, onartuak izateko eta hornidura jasotzeko. Prozedura horretan honako hauek jasoko dira: segurtasun eta osasunerako identifikatutako arriskuak; sortutako hondakin arriskutsuak edo erradioaktiboak kudeatzeko modua, eta horiek kontrolatzeko dauden eta proposatzen diren prebentzio-neurriak, taldea babesteko bitartekoak norbanakoen aurretik jarrita. Kasu guztietan beharrezkoa den aurrekontu-hornidura adieraziko da, bai eta lantokiaren egokitasuna edo hori egokitzeko aurreikusitako hornidura ere, laburbilduta:

- Ikerketari edo jarduerari lotutako arrisku fisikoak, kimikoak edo biologikoak identifikatzea eta ebaluatzea (ikus I. eranskina).
- Egiteko erabiliko den laborategi edo instalazioaren egokitasuna (euste maila).
- Ikerketa edo jarduerarako Lan Prozedura Normalizatua.
- Proiektuaren edo jardueraren prebentzio eta segurtasunerako aurrekontua.
- Bereziki arriskutsuak izan daitezkeen produktuen edo prozesuen zerrenda egitea, proiektuan erabiliko baldin badira, eta dagozkion kimikako segurtasun-fitxak jasotzea eta zaintzea.

13.4.4. Ikerketen eta irakaskuntza-jardueren azpiegituren mantentze-lana eta segurtasuna

Saileko, Unibertsitate Institutuko eta ikerketa-zentroko zuzendariak eta ikastegiko arduradunak bermatu beharko dute esleituta dituzten laborategietako irakaskuntza- eta zientzia-ekipamenduak

 <p>emán ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 7/9</p>
---	---	---

ezarritako segurtasun-arauak betetzen dituela. Hala behar izanez gero, horiek konpontzea edo dagozkion mantentze-lanak egitea eskatuko dute.

LPN guztietan jasoko dira eskura dagoen ekipamenduaren inbentarioa eta horren mantentze-lanerako prozedura.

Ikerketa-taldeak eta irakaskuntza-taldeak, Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren laguntzaz, ikerketako eta irakaskuntzako azpiegiturak eta ekipamendua egoera onean eta erabiltzeko moduan daudela zaintzeko ardura izango dute. Era berean, prebentzioko edo zuzentzeko mantentze-lan egokiak egiteaz arduratuko dira, arriskua sortzeko aukerak ahal bezain beste gutxitzearren.

Ikerketa-proiektuetan edo irakaskuntza-jardueretan diharduten langile guztiek, INak eta irakaskuntza-taldeko arduradunak barne, hautemandako anomaliak edo mantentze-lanen beharrak jakinarazi beharko dizkiote Saileko zuzendariari edo saileko atalaren koordinatzaileari; baldin eta, anomalia edo behar horiek ikerketa edo jarduera segurtasun-baldintzetan egitea eragozten badute, indarrean dagoen prozeduran ezarritakoaren arabera.

13.4.5. Banakako babes-ekipoak

Ikerketa-proiekturako behar izanez gero, proiektuaren ikertzaile nagusiak beharrezkoak diren Banakako Babes Ekipoak (BBE) eta laneko arropa banatuko dizkie ikerketa-taldeko kide guztiei, hala nola: laborategiko mantalak, behin erabiltzeko eskularruak, babesteko betaurrekoak, arnasmailuak, belarrientzako babesak, etab.

Era berean, irakaskuntza-jarduerarako behar izanez gero, beharrezkoak diren banakako babes-ekipoak banatuko zaizkie ikasleei (behin erabiltzeko materiala, hala nola maskarak eta eskularruak).


Ikertzaile nagusia eta/edo Saila, Prebentzio Zerbitzuak aholkatuta, BBE ekipoak erosteaz eta kudeatzeaz arduratuko dira. Ikerketa- eta irakaskuntza-taldeko kideek eta irakaskuntza-jarduerako ikasleek, berriz, baliabideak modu egokian erabili eta zaindu beharko dituzte. Nolanahi ere, BBEei buruzko prozeduran adierazitako irizpideen arabera jardungo dute.

13.4.6. Hondakinak kudeatzea

Ikerketa-taldearen eta irakaskuntza-taldearen ardura izango da ikerketako edo jardueretako laborategietan sortutako hondakinak zuzen kudeatzea eta ezabatzea, Prebentzio Zerbitzuak ezarritako jarraibideen arabera. Une oro beteko dira indarrean dagoen legedia eta UPV/EHUk ezarritako barne-protokoloa; batik bat, hondakin arriskutsuak, erradiaktiboak barne, kudeatzeari dago-kionez.

13.4.7. Komunikazioa eta prestakuntza

Sail, Institutu edo Ikerketa Zentroko zuzendariak eta Ikastegiko zuzendariak edo dekanok, iker-tzaile nagusiaren eta irakaskuntza-taldeko arduradunaren laguntzaz, komunikatzeko bide aktiboak

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">8/9</p>
---	---	--

ezarriko dituzte, ikerketa-taldeko eta irakaskuntza-taldeko kideekin, administrazio eta zerbitzuetako langileekin, beren ikastegiarekin eta Prebentzio Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko. Horien bidez, ikerketa- edo irakaskuntza-jarduerari lotutako arriskuen berri emango da.

Era berean, Sail, Institutu edo Ikerketa Zentroko zuzendariak eta Ikastegiko dekanok edo zuzendariak, ikertzaile nagusiaren eta irakaskuntza-taldeko arduradunaren laguntzaz, ikerketa- eta irakaskuntza-taldeko kideen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen prestakuntza-beharrak hautemango dituzte, beren ikerketa- edo irakaskuntza-jarduerari dagokion laneko osasun eta segurtasunaren arloan.

Era berean, ikerketa-taldeko kideen, irakaskuntza-taldeko kideen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen protokoloetan laneko segurtasunari eta osasunari buruz jasotako prestakuntza emango da.

Ikerketa-proiektuetan eta irakaskuntza-jardueretan diharduten langile guztiek, INak eta irakaskuntza-taldeko arduradunak barne, Gobernu Kontseiluak Prebentzio Plana onartzen duenetik hiru urteko aldia izango dute, laborategietako edo tailerretako (bakoitzari dagokiona) segurtasunari buruzko ikastaroetan parte hartzeko. Unibertsitateak horrelako ikastaroak eskainiko ditu behar den neurrian, ordutegi anitzetan eta lantokietatik gertu.

Aldi hori igarota, prestakuntzarik jaso ez duten irakasleek, ikertzaileek eta AZPko langileek ezin izango dituzte unibertsitatean egindako irakaskuntza-jarduerak edo ikerketa-proiektuak gidatu, ezta horietan parte hartu ere.


13.4.8. Informazioa, artxiboa eta ikuskaritza

Sail, Institutu edo Ikerketa Zentroko zuzendariak eta Ikastegiko zuzendariak onartutako LPN protokoloen erregistroa izango du, eta Prebentzio Zerbitzuak eskatutako laneko segurtasun eta osasun arloko informazioaren banaketa koordinatuko du. Informazio hori ikerketa-proiektu edo -kontratua- ren ikertzaile nagusiari edo irakaskuntza-taldearen arduradunari eskatuko zaio.

Prebentzio Zerbitzuak zaindu eta artxibatuko du ikerketa-proiektu edo kontratuen edo irakaskuntza-jardueren dokumentazio garrantzitsu guztia, laneko segurtasun eta osasun arloari dagokionez. Halaber, Prebentzio Zerbitzuak UPV/EHUren instalazio eta laborategietan egindako ikerketa-proiektu edo -kontratuen eta irakaskuntza-jardueren ikuskatzeak eta auditoriak egin ahal izango ditu.

13.5. Jarraipena eta hobekuntza-jarduerak

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak prozedura honetatik eratorritako ekintza zuzentzaileen jarraipena kudeatuko du, «Prebentzio-neurrien jarraipena» izeneko PPRL_PR_04 prozeduran finkatutako ildoan arabera.


 <p>emán ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>9/9</u></p>
---	---	---

13.6. Erreferentzia-dokumentuak

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- Unibertsitateen Kontseiluaren osoko bilkurak 2011.eko irailaren 22an egindako bileran hartutako erabakia, non irizpideak ezartzen diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko lege-ria unibertsitateari egoki dakion, prebentzioaren kultura unibertsitateko kideen artean sustatzeko eta hedatzeko dena.
- Laborategiko biosegurtasunari buruzko eskuliburua (bigarren edizioa) OME (2005).

13.7. Eranskinak

- 1. eranskina: segurtasuna egiaztatzekeo zerrenda.


 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 1/9</p>
---	---	---

I. eranskina. Segurtasuna egiaztatzeko zerrenda (check-list)

Zerrenda hau, IP eta irakaskuntza-arduradunei eta ebaluatzaileei segurtasunaren eta laborategietako segurtasun-egoeraren ebaluazioak errazago egiten laguntzea helburu duten azterketa-ereduen adibidea da.

Laborategiko lokalak

1. Lokalak eraikitzeke garaian edo eraiki osteko ebaluazioetan, kontuan hartu al dira instalazioak martxan jartzeko eta egiaztatzeko jarraibideak?
2. Betetzen al dituzte instalazioek eraikuntzaren arloko betekizun nazionalak eta tokikoak (hala dagokionean, hondamendi naturalak saihesteko neurriak barne)?
3. Oro har, txukun eta oztoporik gabe al daude instalazioak eta beharrezkoak diren materialak bakarrik al daude?
4. Instalazioak garbi al daude?
5. Zoruan ba al dago akats estrukturalik?
6. Zorua eta eskailerak uniformeak eta ez-labaingarriak al dira?
7. Egokiak al dira lan-eremuak jarduera guztiak segurtasunez egiteko?
8. Egokiak al dira igarobideak eta korridoreak, pertsonen eta objektu handien joan-etorrietarako?
9. Egoera onean al daude mahaiak, altzariak eta osagarriak?
10. Mahaietako gainazalek jasaten al dituzte disolbatzaileak eta substantzia kimiko korrosiboak?
11. Ba al dago konketa bat laborategiko areto bakoitzean?
12. Lokalak eraikitzeke eta mantentzeke garaian, hartzen al dira karraskariak eta artropodoak sar daitezen saihesteko neurriak?
13. Lurrunaren edo ur beroaren hodiak paretan sartuta ez badaude, estali al dira material isolatzailez edo babestu al dira pertsonak babeste aldera?
14. Hornidura elektrikoak huts egingo balu, ba al dago energia hornitzeko sistema independenterik?
15. Mugatu al daiteke laborategi-eremuko sarrera, baimendutako langileak bakarrik sar daitezten?
16. Egin al da arriskuaren ebaluazioa, instalazioak eta ekipamendua bertan egingo den lanerako egokiak direla bermatzeko?

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 2/9</p>
---	---	---

Biltegiak

1. Antolatuta al daude biltegitratze-eremuak, apalak, etab. materialak ez labaintzeko, erortzeko edo zapaltzeko moduan?
2. Biltegieta ba al dago erorikoak eragin ditzaketen, su har dezaketen edo karraskarien eta in-tsektuen gordeleku izan daitezkeen material eta objektu baztergarrien metaketarik?
3. Itxi al daitezke giltzez hozkailuak eta biltegitratze-eremuak?

Saneamendu-instalazioak eta langileentzako instalazioak


1. Lokalak garbi, txukun eta higiene-baldintza egokietan al daude?
2. Ba al dago edateko urik?
3. Ba al daude langileentzako komun (WC) garbi eta egokiak eta konketak?
4. Ba al dago ur bero eta hotzik, xaboirik eta eskuoihalik?
5. Ba al dago langileentzako aldagelarik?
6. Ba al dago langileek kaleko arropa uzteko lekurik (adibidez, armairuak)?
7. Ba al dago langileek jateko edo atsedean hartzeko aretorik?
8. Jasagarria al da zarata maila?
9. Ongi antolatuta al dago hiri-hondakinen bilketa?

Berokuntza eta aireztapena

1. Atsegina al da laneko tenperatura?
2. Ba al dituzte pertsianak eguzkiak bete-betean jotzen dituen leihoak?
3. Aireztapena egokia al da (adibidez, gutxienez sei aire-aldaketa orduko), bereziki aireztapen mekanikoa duten aretoetan?
4. HEPA iragazkiz hornituta al dago aireztapen-sistema?
5. Aireztapen mekanikoak oztopatzen al du airearen fluxua segurtasun biologikorako ganberen barruan eta inguruan edo ke-xurgagailuetan?

Argiztapena

1. Nahikoa al da argiztapen orokorra (adibidez, 300-400 lux)?
2. Argi (lokal) egokiz hornituta al daude lan-mahaiak?

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/9</p>
---	---	---


3. Ongi argiztatuta al daude lokaletako eta korridoreetako eremu guztiak, zoko ilunik edo gaizki argiztaturik gabe?
4. Ba al daude lan-mahaiekiko paraleloan jarritako lanpara fluoresenteak?
5. Oreatuta al dago lanpara fluoresenteetako kolorea?
6. Ba al dago larrialdietako seinalerik?

Zerbitzuak

1. Laborategiko areto bakoitzak ba al ditu segurtasunez lan egiteko adina ur-isurbide eta ur-, elektrizitate- eta gas-hargune?
2. Ba al dago fusibleak, bonbillak, kableak, hodiak eta beste elementu batzuk ikuskatzeko eta mantentzeko programa egokirik?
3. Gabeziak arrazoizko epean konpontzen al dira?
4. Ba al daude Unibertsitatean bertan konponketa- eta mantentze-zerbitzuak eta laborategian gutxi gorabehera zer lan egiten den dakiten mekanikari eta langile gaituak?
5. Laborategiko eremuetan kontrolatzen eta dokumentatzen al da teknikarien eta mantentze-zerbitzuetako langileen sarrera?
6. Unibertsitatean bertan ez badago konponketa- eta mantentze-zerbitzurik, hitz egin al da tokiko mekanikariekin eta igeltseroekin eta eman al zaie laborategian egiten den lanaren eta bertako ekipamenduaren berri?
7. Ba al dago garbiketa-zerbitzurik?
8. Laborategiko eremuetan kontrolatzen eta dokumentatzen al da garbitzaileen sarrera?
9. Ba al dago informazio-teknologiarako zerbitzu segururik?

Biosegurtasuna laborategian

1. Egin al da arriskuaren ebaluazio kualitatiborik, biosegurtasunerako sistema batek zer arrisku-tik babestu behar duen definitzeko?
2. Definitu al dira arrisku onargarriarekin lotutako parametroak eta gorabeheren aurrean eman beharreko erantzuna?
3. Modu seguruan ixten al da eraikina hutsik dagoenean?
4. Babestuta al daude atea eta leihoak apurketaren kontra?
5. Babestuta al daude laborategietako atea suteen kontra (RF)?
6. Hutsik daudenean, giltzaz ixten al dira material arriskutsuak eta ekipamendu garestia dauden lokalak?

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/9</p>
---	---	---


7. Behar bezala kontrolatzen eta dokumentatzen al da lokal, ekipamendu eta material horien erabilera?

Suteen prebentzioa

1. Ba al dago suteetarako alarma-sistematik?
2. Behar bezala funtzionatzen al dute suaren aurkako ateeak?
3. Ongi funtzionatzen al du suteak detektatzeko sistemak? Erregularitasunez probatzen al da?
4. Su-alarmaak eskuragarri al daude?
5. Irteera guztiak argizatuta eta behar bezala seinaleztatuta al daude?
6. Irteerak berehala ikusten ez badira, seinaleztatuta al dago beren kokalekua?
7. Eraikinean jendea dagoenean, libre, apaingarririk, altzaririk edo laneko materialik gabe eta itxi gabe al daude irteera guztiak?
8. Zona arriskutsurik zeharkatu behar ez izateko moduan antolatu al dira ihes-bideak?
9. Eremu ireki batera ateratzen al da irteera guztietatik?
10. Libre eta oztoporik gabe al daude korridoreak eta zirkulazio-eremuak, suteak itzaltzeko materialaren eta langileen joan-etorriak ez eragozteko?
11. Kolore berezia al dute suteen kontrako gailu eta material guztiek, erraz identifikatzeko?
12. Beteta eta funtzionamenduan al daude su-itxalgailu eramangarri guztiak? Dagokien lekuan jarrita egoten al dira beti?
13. Egiten al zaizkie dagozkien azterketak itxalgailuei? Egokiak al dira laborategian gerta daitezkeen suteetarakoa?
14. Larrialdietarako su-itxalgailuz edo mantaz hornituta al daude su hartzeko arriskua duten lokal guztiak?
15. Likido eta gas sukoiak erabiltzen badira, egokia al da aireztapen mekanikoa lurrina kanporatzeko, kontzentrazio arriskutsuetara iristen utzi gabe?
16. Trebatuta al daude langileak suteran bat gertatuz gero behar bezala erantzuteko?

Likido sukoiaren biltegiak

1. Eraikin nagusitik bereizita al dago likido sukoiak ontziratuta gabe biltegitzeko lokala?
2. Argi eta garbi adierazita al dago lokal horretan su-arriskua dagoela?
3. Lokalak ba al du grabitate bidezko aireztapen-sistema edo airea husteko sistema mekaniko propiorik, eraikin nagusiko sistema gorabehera?
4. Hermetikoki itxita edo eraikinetik kanpo al daude argi-etengailuak?

 <p>emán ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>5/9</u></p>
---	---	---

5. Hermetikoki itxita al daude eraikin barruko argiak, txinparten eraginez lurrinak su har dezan saihesteko?

6. Egokiak al dira likido sukoiak biltegitzeko ontziak? Aireberritzen al dira? Material ez-erregaiz eginda al daude?

7. Etiketan behar bezala deskribatutako al dago ontzietako edukia?

8. Ba al daude su-itzalgailu egokiak edo suteen kontrako mantak likido sukoiatarako biltegiaren kanpoaldean, baina gertu?

9. Ba al daude erretzea debekatuta dagoela adierazten duten kartelak likido sukoiaren biltegiaren eta kanpoaldean, eta leku nabarmenean jarrita al daude?

10. Substantzia sukoiaren kantitate oso txikia biltegitzen al da laborategiko lokaletan?

11. Ongi eraikitako armairuak erabiltzen al dira produktu sukoiak gordetzeko?

12. Armairu horietan behar bezala idatzita al dago «Likido sukoiak-su-arriskua»?

13. Trebatuta al daude langileak likido sukoiak behar bezala erabiltzeko eta garraiatzeko?

Gas konprimitua eta likidotua

1. Irakurtzeko moduan markatuta al dago gas-ontzi eramangarri bakoitzeko edukia, dagokion kolore-kodea erabiliz?

2. Erregularitasunez egiaztatzen al dira gas konprimituko bonbonetako presio handiko giltzak eta presioa murrizteko giltzak?

3. Erregularitasunez egiaztatzen al dira presioa murrizteko giltzak?

4. Gas-bonbonak erabiltzen diren bitartean, konektatzen al dira despresurizatzeko gailu batekin?

5. Bonbonak erabiltzen ez diren bitartean edo garraiatzen diren bitartean, estalita egoten al dira?


6. Lotuta al daude gas-bonbona guztiak, bereziki hondamendi natural bat gertatuz gero eror ez daitezen?

7. Bero-iturrietatik urrun al daude petrolioaren gas likidotuen (PGL) bonbonak eta tangak?

8. Behar bezala trebatuta al daude langileak gas konprimituak eta likidotuak erabiltzeko eta garraiatzeko?

Arrisku elektrikoak

1. Aplikatzen al dira segurtasun elektrikoaren kodeko arau nazionalak instalazio elektriko berri guztietan? Eta konponketa, aldaketa edo ordezkapen guztietan? Eta mantentze-lan guztietan?

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 6/9</p>
---	---	---


2. Erabiltzen al dira hiru hariko kableak (hau da, lur-konexioa dutenak) barruko instalazio elektriko guztietan?
3. Ba al dituzte segurtasuneko disjuntoreak edo etengailuak laborategiko zirkuitu guztiak?
4. Saiakuntza-laborategiak probatu al ditu aparatu elektriko guztiak? Apellanizek kentzeko proposatu du.
5. Ahal bezain motzak al dira ekipamenduetako konexio-kable malguak? Egoera onean, gas-tatu gabe eta kalterik eta jundurik gabe al daude?
6. Erabiltzen al dira beti entxufe bakarreko korrante-harguneak, hargune anizkunen orde (ez da egokigailurik behar)?

Pertsonen babesa

1. Ematen al zaie ohiko zereginetarako segurtasun-arropa egokia langile guztiei (adibidez, mantalak, lan-jantziak, aurreko mantalak, eskularruak)?
2. Ematen al zaizkie langileei segurtasun-elementu osagarriak substantzia kimiko arriskutsuekin eta substantzia erradioaktiboekin eta karkinogenoekin lan egin behar dutenean (adibidez, gomazko aurreko mantalak eta eskularruak substantzia kimikoekin lan egiteko eta isurketak garbitzeko, edo beroa jasaten duten eskularruak autoklabeak edo berogailuak maneiatzeko)?
3. Ematen al zaizkie langileei segurtasun-betaurrekoak eta segurtasun-biserak?
4. Ba al dago begiak garbitzeko bitartekorik?
5. Ba al dago larrialdiko dutexarik?
6. Bat al datoz erradiazioaren kontrako babesak arau nazionalekin eta nazioartekoekin? Erabiltzen al dira dosimetroak?
7. Ba al daude arnasbideak babesteko maskarak? Garbi eta desinfektatuta al daude? Erregular-tasunez egiaztatzen al dira? Garbitasun- eta higiene-baldintza egokietan gordetzen al dira?
8. Jartzen al zaio maskara bakoitzari dagokion iragazkia (adibidez, HEPA iragazkiak mikroorganismoetarako edo gasetarako edo partikuletarako iragazkiak)?
9. Egiaztatzen al da maskara bakoitza dagokion erabiltzailearen neurrikoa dela?
10. Ba al dago «diphoterine» laborategian? Diphoterine® produktu kimikoen proiektzioak begietatik eta azaletik garbitzeko erabiltzen den soluzioa da. Propietate kelanteak eta anfoteroak ditu, eta ondorioz, edozein produktu kimiko xurgatzen eta neutralizatzen du. Diphoterine® erabiltze gero, istripu kimikoen larritasuna nabarmen murrizten da, eta berehala erabiltzen bada, ondorio guztiak saihestu daitezke, baita kontzentrazio handiko produktu korrosiboekin izandako istripuetan ere.

Osasun eta segurtasun pertsonala


1. Ba al du Prebentzio Zerbitzuak Lan Osasunaren Zerbitzurik edo Osasun Arlorik?

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 7/9</p>
---	---	---

2. Ba al daude lehen-sorospeneko botika-kutxak? Leku estrategikoetan jarrita al daude?
3. Ba al daude lehen laguntza emateko trebatutako sorosleak?
4. Prestatuta al daude sorosleak laborategiko ohiko larrialdiak artatzeko (hala nola, substantzia kimiko korrosiboekin erretzea edo oharkabean pozoia eta material infekziosoa irenstea)?
5. Ba al dute laborategian lan egiten ez duten langileek (adibidez, garbitzaileek edo administrazioako langileek) laborategiko arriskuen eta bertan erabiltzen den materialarekin lotutako arriskuen berri?
6. Jarri al dira oharrak leku nabarmenean, lehen sorospenen kokalekuari, larrialdi-zerbitzuko telefono-zenbakiei eta abarri buruzko informazio zehatza emateko?
7. Jakinarazi al zaie adin ugalkorreko emakumeei zer ondorio izan ditzakeen mikroorganismo jakin batzuekin eta agente karzinogenoekin, mutagenoekin eta teratogenoekin lan egiteak?
8. Jakinarazi al zaie adin ugalkorreko emakumeei haurdun badaude edo hala egon daitezkeela uste badute horren berri eman behar diotela dagokion sendagileari/zientzialariari, beharrezkoa izanez gero beste zeregin batzuk emateko?
9. Ba al dago laborategian egiten den lanerako immunizazio-programa egokirik?
10. Ba al daude azaleko probak edota instalazio erradiologiakoak material tuberkulosoarekin edo bitarteko horiek behar dituzten materialekin lan egiten duten langileentzat?
11. Ba al daude gaixotasunen eta istripuen erregistroak?
12. Erabiltzen al dira arrisku-oharrak eta istripuak saihesteko kartelak laneko arriskuak ahal bezainbeste murrizteko?
13. Trebatzen al dira langileak biosegurtasunaren arloan modu egokian jarduteko?
14. Eskatzen al zaie laborategiko langileei esposizioen berri emateko?

Laborategiko materiala

1. Ba al du material guztiak segurtasunez erabil daitekeela bermatzen duen ziurtagiririk?
2. Ba al daude mantentze-lanen aurretik materiala deskutsatzeko prozedurak?
3. Ikuskatzen al dira, erregulartasunez, segurtasun biologikorako ganberak eta ke-xurgagailuak?
4. Ikuskatzen al dira, erregulartasunez, autoklabeak eta gainerako ontzi presurizatuak?
5. Ikuskatzen al dira, erregulartasunez, zentrifugagailuko saskitxoak eta errotoreak?
6. Aldatzen al dira, aldian behin, HEPA iragazkiak?
7. Erabiltzen al dira pipetak, orratz hipodermikoen ordeak?
8. Botatzen al da, sistematikoki eta berrerabili gabe, pitzadurak dituen edo ezpalduta dagoen beirateria?
9. Ba al daude hautsitako beirateria botatzeko ontzi seguruak?

 <p>eman ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 8/9</p>
---	---	---

10. Erabiltzen al da plastikoa ahal den guztietan, beiraren ordeztu?

11. Ba al daude eta erabiltzen al dira objektu zorrotzak botatzeko ontziak?

Material infekziosoa

1. Baldintza seguruetan jasotzen al dira lagin guztiak?

2. Ba al dago jasotako materialen erregistrorik?

3. Laginei segurtasun biologikorako ganberetan kentzen al zaizkie bilgarriak, kontu handiz eta adi-adi materiala hautsita ote dagoen edo isurketarik egon ote den ohartzeko?

4. Erabiltzen al dira eskularruak eta bestelako segurtasun-jantziak laginak despaketatzeko garaian?

5. Trebatzen al dira langileak substantzia infekziosoak indarreko arau nazionalen edo nazioarteko araberan bidaltzeko?

6. Garbi eta txukun egoten al dira lan-mahaiak?

7. Egunero (edo sarriago) eta modu seguruan baztertzen al da botatuko material infekziosoa?

8. Ba al dakite langile guztiek kulturetan eta material infekziosoan hausturak eta jarioak daude-nean zer prozedurari jarraitu behar zaion?

9. Egiaztatzen al da esterilizagailuen errendimendua, adierazle kimiko, fisiko eta biologiko egoki bidez?

10. Ba al dago zentrifugagailuak aldi berean behin deskutsatzeko prozedurarik?

11. Ba al daude hermetikoki ixten diren saskitxoak zentrifugagailuetarako?

12. Behar bezala erabiltzen al dira desinfektatzaileak?

13. Eskaintzen al zaie trebakuntza berezia euspen-laborategietako (3. biosegurtasun maila) eta euspen maximoko laborategietako (4. biosegurtasun maila) langileei?

Substantzia kimikoak eta erradioaktiboak

1. Behar bezala berezita al daude substantzia kimiko bateraezinak, biltegitan direnean edo erabiltzen direnean?


2. Behar bezala etiketatuta al daude substantzia kimiko guztiak, dagokion izenarekin eta oharrekin?

3. Era egokian nabarmenduta al daude arrisku kimikoaz ohartarazteko kartelak?


4. Ba al daude isurketak garbitzeko kutxatila bereziak?

5. Trebatuta al daude langileak isurketak garbitzeko?

6. Behar bezala eta modu seguruan biltegitatuta al daude substantzia sukoi guztiak, kantitate txikitan eta armairu ziurtatuetan?


 <p> emen ta zabal zazu Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Ikerkuntza- eta irakaskuntza-jardueren prebentzioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_13.1</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>9/9</u></p>
--	---	---

7. Ba al daude bonbonak garraiatzeko eskorgak?
8. Ba al dago babes erradiologikorako funtzionariarik edo kontsultarako eskuliburu egokirik?
9. Behar bezala trebatuta al daude langileak, material erradioaktiboarekin modu seguruan lan egiteko?
10. Ba al dago substantzia erradioaktiboen izakinen eta beren erabileraren erregistrorik?
11. Ba al daude erradioaktibitatearen aurkako pantailak?
12. Zaintzen al da erradiazioarekiko esposizioa?

 <p>emari ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p><u>1/7</u></p>
--	--	--

14


Komunikazioa eta informazioa

 <p> <small>erriak ta zabal zazu</small> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>2/7</u></p>
--	---	---

- 14.1. Helburua
- 14.2. Irismena
- 14.3. Definizioak
- 14.4. Jarduketa-prozedura
 - 14.4.1. Komunikazio-igortzailea edo -arduraduna
 - 14.4.2. Hartzailea
 - 14.4.3. Komunikazio- eta informazio-xedea
 - 14.4.4. Komunikazio-kanalak eta -formatuak
 - 14.4.5. Aldizkakotasuna
 - 14.4.6. Komunikazio-hizkuntza
 - 14.4.7. Informazioa, artxibatzea eta ikuskatzea
- 14.5. Ekintza zuzentzaileen eta hobekuntzako jarraipena
- 14.6. Erreferentziako dokumentuak
- 14.7. Eranskinak

Eranskinak

1. eranskina. Prebentzio Zerbitzuari hobekuntza- edo aldaketa-iradokizunak bidaltzeko eredua
2. eranskina. Harrera-eskuliburua

 <p>emari ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/7</p>
--	--	---

14.1. Helburua

Prozedura honen helburua Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan UPV/EHUko barne-komunikazioa egituratzeko modua definitzea da. Horretarako, prebentziozko informazioa eta barne-komunikazioa behar den bezala hedatzeko jarraibideak ezarri dira.

Maila desberdinen arteko komunikazioak eta informazioak zeregin garrantzitsua dute edozein lan behar den bezala egitea eta lanpostuetan segurtasun- eta osasun-maila ona izatea lortzeko orduan.

14.2. Irismena

UPV/EHUko lantalde osoak du eskubidea komunikazio- eta informazio-bideak erabiltzeko eta prebentzio-arloan behar den prozedura honetan jasotako informazio guztia jasotzeko. Prebentzio-arloko komunikazioa eta informazioa unibertsitate-komunitatera hedatuko dira, bai UPV/EHUko langileetara, bai ikasleetara eta bai UPV/EHUn zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresetara, dagozkien interesaren eta erantzukizunaren arabera.

14.3. Definizioak

KOMUNIKAZIOA: UPV/EHUren Laneko Arriskuen Prebentziorako Planaren arabera, honako hau da komunikazioaren definizioa: *«hainbat kanalen bitartez informazio interaktiboa transferitzeko prozesua»*.


INFORMAZIOA: Laneko Arriskuen Prebentziorako Planean honako definizio hau du informazioak: *«informatzeko ekintza, hau da, zerbaiten berri ematea»*, betiere osasunaren eta segurtasunaren arloan edukiak eta esperientziak transmititu edo trukatzeko helburuarekin, langileak bere lanak modu osasungarri eta seguruan egin ahal izateko behar duen informazioa izan dezan.

14.4. Jarduketa-prozedura

UPV/EHUko langileentzako intereseko informazioa pertsona interesatuei garaiz eta eguneratuta heltzeko behar diren komunikazio-mekanismoak ezarriko dira, langileen lana erraztu ahal izateko.

Komunikazio-ekitaldi bakoitzean honako alderdi hauek definituko dira:

- Komunikazioaren igortzailea edo arduraduna,
- Hartzzailea,
- Komunikazio- eta informazio-xedea,
- komunikazio- eta informazio-kanalak eta -formatuak
- hizkuntza,
- aldizkakotasuna,
- formatua,
- informazioa, artxibatzea eta ikuskatzea.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/7</p>
---	--	---

14.4.1. Komunikazioaren igortzailea edo arduraduna

Unibertsitate-komunitate osoari komunikazio orokorra eta unibertsala egitearen igortzaile nagusi arduraduna Prebentzio Zerbitzua izango da, prozedura honetan xedatutako irizpideak kontuan hartuta.

Bere mendean langileak dituen UPV/EHuko arduradun orok haien lanpostuek dituzten arriskuak jakinarazi behar dizkie.

UPV/EHuko langile guztien betebeharra da, euren iritziz eta zentzuzko arrazoiak medio, langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskutsua den edozein egoerari buruz lehenbailehen informatzea. Horretarako, komunikazio-zirkuitu bat ezarriko da, arrisku bat detektatutakoan haren berri emateko, hura aztertzeko, ezabatu ahal izateko behar diren prebentziozko neurriak ezartzeko eta ordeztu, minimizatu edo kontrolatzeko.

14.4.2. Hartzailea (nori eman behar zaion informazioa)

Informazioa langile guztiei eman behar zaie, ordezkarien bitartez edo zuzenean. Edozein kasutan, langile guztiei eman behar zaie euren lanpostuari eragiten dien arriskuei buruzko eta arrisku horiei aplikatu dakizkiekeen babes- eta prebentzio-neurriei buruzko informazio zuzena.

Dena den, honako hartzaile-mota hauek daude.


1. Kide bakarreko gobernu-organoak.
2. Irakasleak eta ikertzaileak.
3. Administrazioako eta zerbitzuetako pertsonala.
4. Prebentzio-ordezkariak.
5. Segurtasun eta Osasun Batzordeetako kideak eta aholkulariak.
6. Ikasleak.
7. UPV/EHUn zerbitzuak ematen dituzten enpresei lotutako langileak.

14.4.3. Komunikazio- eta informazio-xedea

14.4.3.1. Langileentzako eta horien ordezkarietako informazioa

Babes-betebeharra betetzeko helburuarekin, UPV/EHUK indarreko legerian eta Akordio Arautzailerako Hitzarmen Kolektiboetan jasotako alderdi guztiei buruzko informazioa emango die langileei eta, zehazkiago, honako gai hauei buruzkoa:

1. Langileen segurtasunerako eta osasunerako **arrisku identifikatuak**, bai euren lanpostuei dagozkienak nahiz arrisku orokorrak
2. **Prebentzio- eta konponketa-neurri** orokorrak eta nahasitako langileen lanpostuari dagozkienak, arrisku espezifikoiei buruzkoak.

 <p>emari ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>5/7</u></p>
--	--	--

3. Unibertsitatean egiten diren **prebentzio-, babes- eta konponketa-arloko jarduerak**, lanpostu bakoitzeko agintari eta langileek egin behar dituztenak barne.
4. **Lehen laguntza, suteen aurkako borroka eta langileen ebakuazioaren** arloko neurriak.
5. Aurreko funtzioetarako **izendatutako langileak**.
6. Aurreko funtzio guztiak, enpresan esku hartzen duten **kanpoko enpresetako** enpresari eta langileei dagokienez.
7. Langileen ordezkariak honako datu hauek eskuratu ahal izango dituzte: arrisku orokor eta espezifikoen ebaluazioa, prebentzio-neurriak finkatzea, babes-materiala barne.

Aipaturikoaz gain, langileen lanpostuko zeregin espezifikoei eragiten dien gaiak eta unibertsitate-komunitateko berritasunei buruzkoak transmitituko dira.

Langileen kudeaketari eta komunikazioari euren unitate eta jardueretan lagun diezaieketen alderdiei buruzko informazioa emango da: Gobernu Kontseiluaren eta zuzendaritza-taldearen erabaki nagusiei buruzko informazioa, sindikatuekin egindako akordioei buruzkoa eta arau berriei zerikusia duten alderdiei buruzkoa, besteak beste.

- Adierazleen eboluzioa.
- Prebentzio-politika.
- Langileen kolaborazioak eta iradokizunak.
- Istripuak eta gertakariak.
- Arriskuen ebaluazioa
- Arau-aldaketa
- Hobekuntza-proposamenak
- Bestelakoak...

14.4.3.2. Hobekuntza-proposamenak


UPV/EHUko langileek laneko segurtasuneko alderdien hobekuntza edo aldaketa iradoki dezakete eta UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzura bidali, zuzenean, hierarkian goragoko mailan dagoenaren bitartez edo Prebentzioko Ordezkariaren bitartez. Horretarako, Campus arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeak ezarritako eredia edo bidea erabili beharko da.

Halaber, ikasleek eta unibertsitatean zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresetako langileek ere egin ditzakete hobekuntza-proposamenak. Horiek ere ezarritako bideak erabili behar dituzte.

Hobekuntza-proposamena aurkeztu duenak hartutako erabakiari buruzko erantzuna jasoko du.

14.4.4. Komunikazio- eta informazio-kanalak eta -formatuak

Komunikatzen diren gaiak formatu arin, argi eta zehatzaren bitartez hedatuko dira. Komunikazio-kanalak desberdinak izan daitezke honako faktore hauen arabera: nori zuzentzen zaizkion, informazioaren izaera, sinaduraren/bidalketaren arduraduna...

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>6/7</u></p>
---	---	--

Prebentzio Zerbitzuak ezarriko ditu prebentzio-izaerako informazio baliagarri guztia UPV/EHUko kide guztiengana uneoro iristeko kanal egokiak. Informazioa bilera informatiboen edota argitalpenen bitartez hedatuko da, egoeraren arabera. Informazioa honako modu hauetan erakutsiko da:

- Dibulgazio-bilerak.
- Kartelak eta erakustaldiak.
- Informazio-liburuxkak.
- Kanpainak.
- Web orria.
- Bestelakoak...

Erraz iritsi eta ikusteko moduko erakustokiak antolatuko dira UPV/EHUko leku estrategikoetan kartel eta liburuxken bidez informazioa emateko.

14.4.5. Aldizkakotasuna

Urtero sortzen direlako, ziklikoak direlako edo errepikatzen direlako, beti langileen eskueran eduki behar diren gaien buruzko informazioaren komunikazioa eta dibulgazioa aurrez planifikatuko dira.

Horren aurrean, sei hilean behingo aldizkakotasuna ezarri da informazio-mota horren komunikazio eta dibulgaziorako.

Unibertsitate-komunitateko langile eta gainerako kideentzako sarbide masiboko kanalak erabiliko dira. Komunikazio hori Campus arteko Laneko Osasun eta Segurtasun Batzordean adostuko da.

Komunikazioa eta informazioa planifikatuak eta adostuak izango direla aurreikusten da baina beti gerta liteke komunikazioa berehala ematea eragingo lukeen ez-ohiko gertakarien bat. Ez-ohiko komunikazio hori Prebentzio Zerbitzuaren eta Campus arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeko Lehendakariaren artean adostuko dute, prebentzioko ordezkariak jakinarazi ondoren.


14.4.6. Komunikazio-hizkuntza

Komunikazio eta informazio unibertsal edo orokorrerako erabiliko diren hizkuntzak EAEko bi hizkuntza ofizialak izango dira: euskara eta gaztelania.

Unitate batek edo pertsona jakin batek hasitako komunikazioei erantzuna emateko erabiliko den hizkuntza komunikazioa abiarazi duenak erabilitako bera izango da.

14.4.7. Informazioa, artxibatzea eta ikuskatzea

Prebentzio Zerbitzua arduratuko da komunikatu eta heda daitekeen Lan Segurtasunari eta Osasunari buruzko dokumentazio interesgarri guztia zaintzeaz eta artxibatzeaz.

 <p>emari ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>7/7</u></p>
--	--	--

14.5. Jarraipena eta hobekuntza-ekintzak

Prebentzio Zerbitzuak jasoko ditu komunikazioa eta informazioa hobetzera zuzendutako iradokizunak eta Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean erakutsiko ditu, hau da, prozedura honen betetze-mailaren jarraipena egiteko ardura duen organoan.

14.6. Erreferentziako dokumentuak

— Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea.

14.7. Eranskinak

- 1. eranskina: Prebentzio Zerbitzuari hobekuntza- edo aldaketa-iradokizunak bidaltzeko eredu.
- 2. eranskina: harrera-eskuliburua.

 <p>emari ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.1 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/1</u></p>
--	--	--

I. eranskina. Prebentzio-Zerbitzuari hobekuntza- edo aldaketa-proposamenak bidaltzeko eredia

Iradokizunak web-orri orokorraren (www.ehu.es) bidez egin daitezke, «Harremanetarako» atalean sartuta. Atal hori hobeto ikusteko, ordea, Prebentzio Zerbitzuak «Iradokizun eta Kexa Postontzia» ikonoa dauka bere hasierako orrian; azken hori honako helbide honetan ikus daiteke, eta honako eremu komun hauek ditu:

<http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/es/o53CiudadanoWar/ciudadano/o53nuevaConsulta.do?accion=inicio&codigoBuzon=BUZ211&idioma=es>

Iradokizunaren/eskaeraren datuak

Postontzia Prebentzio Zerbitzuaren iradokizunen postontzia

Bidaltze-data

Mota*

Izenburua*

Edukia*

datz ezazu hemen iradokizunaren/eskaeraren testua


Harremanetarako datuak

Kontaktu mota* Banakakoa Taldekoa

Izena*

Abizenak*

Helbide elektronikoa*

 <p>ematen ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>1/11</u></p>
---	--	---

2. eranskina. Prebentzio alorreko harrera-gida

0. Aurkibidea

1. Sarrera.
2. Prebentzio-Zerbitzua.
3. Laneko Osasuna.
4. Segurtasuna.
5. Higienea.
6. Ergonomia.
7. Psikosoziologia.
8. Laneko Arriskuen Prebentzioari Buruzko Prestakuntza.
9. Segurtasun- Eta Osasun-Batzordea Eta Prebentzioko Ordezkariek.
10. Dokumentazioa.

1. Sarrera

Ongi etorri, bienvenido/a, welcome, bienvenue.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, ongietorria egin nahi dizugu, eta zori ondu egin nahi zaitugu, irakasle, ikertzaile edo administrazio eta zerbitzuetako langile gisa gurekin lanean hasiko zarela.

UPV/EHUren helburu nagusietako bat langile, ikasle eta gainerako erabiltzaile guztien segurtasuna eta osasuna bermatzea da. Legediak eskatzen digulako ez ezik, behar-beharrezkoa dela sinetsita gaudelako ere hartu dugu konpromiso hori.

Harrerarako gidaliburu hau UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak garatutako tresna bat da, eta egi-ten duen lanaren berri ematea eta langileei laneko osasunaren eta segurtasunaren arloetan dauzkaten eskubideak eta betebeharrak ezagutaraztea du helburu.


Prebentzio Zerbitzuari dagokio unibertsitateko kideen segurtasun eta osasunaren babes ego-
kia bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio-jarduerak egitea; horretarako, aholkua eta laguntza eman behar dizkie administrazioari, langileei, haien ordezkariei eta laneko segurtasun nahiz osasun arloko campusetako eta campus arteko batzordeei.

Lanaldi onuragarria eta segurua, emankorra eta osasuntsua opa dizugu, eta dokumentu hau aretatuz irakur dezazun aholkatzen dizugu.

2. Prebentzio-Zerbitzua

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuaren osaera, antolakuntza eta funtzionamendua UPV/EHUko errektorearen 2003ko apirilaren 7ko Ebazpenean ezarrita dago.

Prebentzio Zerbitzuaren jarduerak langile guztiak hartu behar ditu aintzat.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>2/11</u></p>
---	---	---

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatua dago, horien bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horiei jarraituz, aholku eta laguntza emango diete administrazioari, langileei, horien ordezkariari eta campusetako eta campus arteko laneko segurtasun eta osasun batzordeei.

Hala bada, Zerbitzuan, geure gain hartzen ditugu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean (LAPL) jasota dauden espezialitate guztiak: Laneko Medikuntza, Segurtasuna, Higiene Industrial eta Ergonomia nahiz Psikosoziologia.

Prebentzio Zerbitzuak bi lan arlo dauzka: Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa.

Osasun Arloak laneko medikuntzako eta ergonomia nahiz psikosoziologia aplikatuko espezialitate eta diziplina prebentiboei dagozkien eginkizunak betetzen ditu.

Arlo Teknikoa goi-mailako unibertsitate-tituludunek osatzen dute, eta UPV/EHUko campusetan banatuta dago.

Gainera, ingurumeneko jarduera behar bezala garatzeko eta hondakinen kudeaketari buruzko araudiak ezarritakoa aintzat hartuta, zerbitzu honek kudeatzen ditu ikastegietako zenbait jarduerak sorrarazten dituzten hondakin guztiak.

Hona hemen Prebentzio Zerbitzuaren helbidea campus bakoitzean:

Araba

Arabako Arlo Teknikoa eta Osasun Arloa eraikin berean daude:

— Arabako Campuseko Errektoreordetza (Gasteiz).

Bizkaia

Prebentzio Zerbitzua Leioan eta Bilbon dago:

— Ikasgelategia I, Sarriena auzoa, z/g (Leioa).

— Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa. Urkixo plazatxoa, z/g (Bilbo).


Gipuzkoa

Gipuzkoan, Arlo Teknikoa eta Osasun Arloa eraikin berean daude:

— Barriola Eraikina (ikasgelategia), Elhuyar plaza 1 (Donostia).

	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/11</p>
---	--	--

Hona hemen zerbitzuaren organigrama:




Gure webgunea ikustera gonbidatu nahi zaitugu. Sartu UPV/EHUren webgune orokorrean (www.ehu.es), eta bila gaitzazu Zerbitzuak atalean, edo sartu zuzenean helbide honetan:

<http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevhm/es/>

Bertan, gure kokaleku eta telefono-zenbaki guztiak aurkituko dituzu, baita gurekin harremanetan jartzeko moduak eta dokumentazioa ere.

3. Laneko osasuna

Langile orok eskubidea du lanean osasun-kalterik ez jasateko. Eskubide hori bermatzeko, UPV/EHU arrisku guztiak ezabatzen saiatzen da, baita haiek jatorrian mugatzen edo gutxitzen ere, hala badagokio.

 <p>ematen ta zabait zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 4/11</p>
--	---	--

Langileen osasuna zaintzeko asmoz, Prebentzio Zerbitzuaren Osasun Arloak zenbait jarduera egiten ditu urtero, eta langileei haien berri ematen die horma-irudien, webgunearen edo iragarki-taularen sistema informatikoaren bidez.



Jarduera hauek gauzatzen ditu:

3.1. Osasun-azterketak

- *Hasierako osasun-azterketa*: norbaiti lanean hasi baino pixka bat lehenago egiten zaiona. Azken urtean egindako osasun-azterketaren bat edukiz gero, aurkez ezazu Osasun Arloan.
- *Aldizkako osasun-azterketa*: urtero, urtarriletik uztailera (Gizarte Segurantzako afiliatuei, AZPko langileei, kontratudunei, agregatuei eta bitarteko titularrei zuzendutako kanpaina) eta urritik abendura (MUFACEko langileei, katedradunei eta titularrei zuzendutako kanpaina), osasun-azterketa bat egiteko aukera eskaintzen dugu; azterketak gure instalazioetan edo instalazio hitzartuetan egin daitezke.
- *Osasun-azterketa espezifikokoak*: arriskuen ebaluazioan antzemandako esposizioaren arabera edo legeak eskatuta.
- *Lanera bueltatu osteko errekonozimendu medikoa*: 90 egun baino luzeagoko aldi baterako ez-gaitasunarengatiko baja.

Oso kasu gutxitan izan ezik, osasun-azterketak borondatezkoak dira. Azterketa guztiek ezarritako protokolo batzuk erabiltzen dituzte, eta historia klinikoa, azterketa medikoa eta proba osagarriak hartzen dituzte barne, baita odol- eta gernu-analisiak ere. Langile guztiek jasoko dute emaitzen idatzizko kopia bat.


3.2. Txertaketak

Langile orok egunean eduki behar du txertoen egutegia.

Gomendagarria da langile guztiek tetanosaren aurkako txertoa hartzea. Egiten duzun lana dela-eta arrisku biologikorik izanez gero, hepatitisaren aurkako txertoa ere jarri beharko duzu.

Zenbait ikerketa-ildo eta atzerrirako bidaiatan, beharrezkoa da txerto espezifikokoak hartzea. Egoera horretan egonez gero, jarri lehenbailehen harremanetan gure zerbitzuarekin.

Urtero eskaintzen dugu gripe arruntaren aurkako txertaketa-kanpaina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ezarritako egutegiaren arabera. Txertoen epeei buruzko informazioa webgunean egongo da ikusgai, baita eraikin guztietan jarriko ditugun horma-irudietan ere.

 <p>emian ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>5/11</u></p>
--	--	---

3.3. Kontsulta medikoak eta erizaintzakoak

Campus guztietan, mediku batekin edo erizain batekin hitzordua eskatzeko aukera dago (ordua aldeztatik eskatuta eta ordutegi jakin batean); elkargokideari komenigarria irudituz gero, medikamentuak edo haiek eskuratzeko errezetak eman ahalko dizkizu, bai Gizarte Segurantzakoak, bai Estatuaren Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitatekoak (kasu horretan, errezeta pertsona kontratadunak eramango du).

3.4. Istripu bat izanez gero egin beharrekoa

Talde bateko edo besteko kidea izan, istripuak modu desberdinean kudeatu behar dira.

- **AZPko langilea edo irakasle kontrataduna edo bitarteko titularra izanez gero**, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko kidea zara. Kasu horretan, Laneko Istripu eta Gai-xotasunen Mutua (gaur egun, Mutualia) arduratuko da langileari osasun-arreta eskaintzeaz. MUTUALIAk egun osoan erabil daitekeen larrialdietarako doako telefono-zenbaki bat dauka (**900 506 070**). Atzerrian egonez gero, telefono-zenbaki honetara deitu beharko duzu: (**0034**) **917 451 550**.
- **Irakasle katedraduna edo titularra izanez gero**, Estatuaren Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateko kidea zara. MUFACEko kideek aldeztatik aukeratu behar dute osasun-arreta Osakidetzan edo Hitzartutako Aseguru Medikoko erakunde batean jasoko duten (urtarrilean erabaki beharko duzu, urtero).

Laneko istripu larri bat izanez gero, **112** telefonora deitu behar duzu berehala, eta, ondoren, Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi behar diozu, campus bakoitzari dagokion luzapenera deituta.

Istripu arin bat izanez gero, Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko diozu beti, campus bakoitzari dagokion luzapenera deituta.

Istripuren baten lekuko izanez gero, laguntza eman behar duzu, eta ikastegiko atezaintzan jakinarazi behar duzu. Informazio hori administrariari edo administrazio-buruari igorriko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi beharko dio (istripuak@ehu.es).


UPV/EHUko iragarki-tauletan campus bakoitzerako berariazko triptiko bat dago. Irakurri arretaz, eta eduki beti eskura.

http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/es/contenidos/informacion/sp_accidente_trabajo/es_acc/adjuntos/TRIPTICO-SERV-PREVENCIÓN-CAST.pdf

Bestalde, eraikin bakoitzean **larrialdietarako botika-kutxa** bat dago; haren edukia administrariak dauka, edo administrazio-buruak, hala badagokio.

3.5. Amatasuna babestea

Haurdun bazaude edo hala zaudela uste baduzu, ezer baino lehen:

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 6/11</p>
---	---	---

ZORIONAK!!

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak 26. artikuluan dioenaren arabera, langile haurdun edo erditu berriei dagokienez, arriskuen ebaluazioak barne hartu behar ditu haien edo fetuaren osasunean eragin kaltegarriak izan ditzaketen laneko agente, prozedura edo baldintzei begirako esposizioaren izaera, gradua eta iraupena, arrisku jakin bat izan dezakeen edozein jardueratan.

Hori dela eta, haurdun geratzeko asmoa baduzu edo haurdun zaudela uste baduzu, kontsulta ezazu jardueren arabeko arriskuen ebaluazioa Prebentzio Zerbitzuaren webgunean edo langileen atarian.

Haurdun bazaude, jakinaraz diezazue Prebentzio Zerbitzuari. Bidali mezu elektronikoa bat, eta adierazi izena, campusa, lanpostua, luzapena eta haurdunaldi-astea. Zehaztu ezazu mezua gaia: «Haurdunaldi-jakinarazpena». Mezua helbide elektronikoa honetara bidali: amatasuna@ehu.es

Gero, laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari bat zurekin harremanetan jarriko da, eta arriskuen ebaluazio bat egingo dizu, zure lanpostuan elementu edo lan kaltegarriren bat ba ote dagoen aztertzeko. Laneko medikuak haurdunaldiak sorraz diezazkizukeen zalantza guztiak argituko dizkizu.

3.6. Langile bereziki kalteberak

Zenbait egoera medikok pertsona batzuk arrisku jakin batzuei begira bereziki kalteberak dira adierazten digute (Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 25. artikulua). Hori dela eta, bertigoak, alergia, diabetes, epilepsia edo urritasunak (edozein gradutakoak izanda ere) aintzat hartu behar dira, langileak beren betebeharrak egokitzeko. Langile bereziki kaltebera zarela iruditzen bazaizu, jakinaraz diezazue, UPV/EHU n egin behar duzun lana erraz diezazuegun.

4. Segurtasuna


Segurtasuna guztion ardura da: lanerako ikastegi edo eraikinaren arduradunena, sail edo zerbitzuetako langileena eta gainerako guztiona.

Ondo jakin behar duzu zer lan egingo duzun, tresnek nola funtzionatzen duten eta lanerako zer prozedura erabiltzen den, bereziki, laborategi edo tailer batean lan egiten baduzu edo landa-praktikak egiten badituzu.

Lerro hauen bidez gogora ekarri nahi dizugu EZIN dela erre UPV/EHUko eraikinetan, araudian hala ezarrita dagoelako eta segurtasuna bermatzeko.

4.1. Autobabeserako planak

UPV/EHUko eraikin guztiak Autobabeserako Plan eguneratua dute, eta bertan lan egiten duten erabiltzaile guztien eskura dago mendeko langileen bulegoetan. Plan horretan, zenbait informazio aurkituko duzu, eraikinaren deskribapena, haren arriskuak, suteen aurkako neurriak, giza baliabideak,

 <p>ematen ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 7/11</p>
---	--	--

laguntza eskaintzeko eraikinean aurreikusitako antolakuntza eta larrialdi-egoeran ezarri beharreko neurriak, besteak beste. Gomendagarria da dokumentu hori irakurtzea.

Ikastegi bakoitzean, autobabeserako batzorde bat dago, eta haren eginkizun nagusia ikastegiko Larrialdi Plana betearaztea da.

Simulazio bat egitean, baliteke autobabeserako batzordeak zure laguntza eskatzea. Guztion onerako da, beraz, parte hartu eta lagundu!

Era berean, ikastegi guztietan zure kokalekua adierazten dizuten planoak daude; horietan, hurbilen daukazu larrialdi-irteerara iristeko bide laburrena dago adierazita, baita sua itzaltzeko bitarteko-kokalekua ere.

4.2. Arriskuen ebaluazioa

UPV/EHU, arriskuen ebaluazioa eraikinen arabera, jardueren arabera eta taldeen arabera egiten da.

Zenbait pertsonak eraikin bakar batean edo batzuetan lan egin dezake, eta jarduera bat baino gehiago gauzatu. Zure eraikinaren eta jardueren arriskuen ebaluazioa ikusi nahi izanez gero, sar zaitze gure webgunean: Langileen ataria >> nire lanpostua >> lanpostuen historia.

Lanpostuen historia



Ikusi lanpostuen historia
Lanpostuaren xehetasunak ikusteko egin klik izenaren gainean.
Lanposturen baten izenean klik eginda ez baduzu ezer ikusten, lanpostua zaharra delako da (xehetasunak ez daude jasota).
Zure lanposturako egin dugun jardueraren araberako arrisku ebaluazioa ikusi ahal duzu.

• Nire lanpostua

Lanpostua	Saila/Atala	Lan harremana	Noiztik	Noiz arte	Arrisku ebaluazioa
Prestakuntza eta Gestio Hobekuntzako gerenteordea	GERENTZIA	PERSONAL EVENTUAL	2009-04-02		Ikusi


4.3. Lan segurua

Gidaliburu honetan dagoeneko aipatu dugunez, Prebentzio Zerbitzuaren funtsezko oinarrietako bat lana arriskurik gabe egiteko aukera bermatzea da.

Lanpostuan segurtasuna bermatzeko, beharrezkoa da esteka honetan ageri diren aholkuak arretaz irakurtzea: http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/es/contenidos/informacion/indice_seguridad/es_indice/indice.html

Lana laborategi edo tailer batean egiten baduzu:

- Erabili, beti, arrisku kasuetan eskura izango dituzun babeserako ekipo egokiak; jantzi mantala behar bezala (beharrezkoa izanez gero); irakurri erabiliko dituzun produktuen segurtasun-fitxak eta tresnen gidaliburuak, eta bete laborategiko arduradunaren jarraibideak.

 <p>Unibertsitatearen irudiak</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 8/11</p>
--	---	--

— Ezagutu hurbilen dauden dutxen eta begiak garbitzekoen kokapena; galdetu isuriren bat izanez gero zer egin behar duzun, eta, hala badagokizu, Diphoterine produktua erabiltzera ohitu (arrisku kimikoa duten zenbait laborategitan eta atezaindegietan dago).

5. Higienea

Higiene Industrialaren espezialitateak lanpostuetako kutsatzaile fisiko, kimiko eta biologikoak zein sor daitezkeen hondakinak antzematea, neurtzea eta kudeatzea du helburu.

Horretarako, laneko arriskuen prebentzioko teknikariak UPV/EHUko instalazioetara joaten dira, kutsatzaileak antzemateko beharrezko neurketak egiteko, euren kabuz edo langileak kontratatuta.

5.1. Ingurumen-kontrolak

Prebentzio Zerbitzuak beharrezko baliabide teknikoak dauzka tenperatura, argia eta zarata neurtzeko, baita ingurumeneko kutsatzaile jakin batzuk neurtzeko ere. Beharrezkoa izanez gero, kanpoko eragileengana jotzen du, ingurumeneko kutsatzaileak aztertzeko.

5.2. Hondakinen kudeaketa


Ingurumenaren kudeaketako teknikariak baimendutako kanpoko kudeatzaileek hondakin toxiko zein arriskutsuak eta biologiko zein erradiaktiboak jasotzeko egiten duten lana koordinatzen du. Era berean, ontziak eta etiketak banatzen ditu, hondakinak behar bezala maneiatzeko. UPV/EHUK zenbait biltegi dauzka, hondakinak jaso arte bertan uzteko. Zure ikastegian jasoko duzu bertako hondakinen kudeaketaren berri. Informazio gehiago, Prebentzio Zerbitzuaren weborrian.

Hondakin arriskutsuak sortzen badituzu, behartuta zaude hauek egitera:

- Hondakin arriskutsua identifikatu.
- Hondakin arriskutsua ontziratu.
- Hondakin arriskutsua etiketatu.

Lanean erabiltzen duzun substantziaren baten izaerari buruzko zalantzarik izanez gero, begiratu hondakin arriskutsuak identifikatzeko protokoloari; material hori Prebentzio Zerbitzuaren webgunean («hondakinak» atalean) aurkituko duzu. http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/indice_residuos/eu_indice/indice.html

Gogoratu hondakinak ez dituzula hustubidetik bota behar, eta ez dituzula familia desberdinetako produktuak nahastu behar. Kontu izan ontzi-aldaketekin, eta, zalantzarik izanez gero, galdetu ezer egin aurretik.

 <p>Unibertsitatearen eta zabalaren zuzen</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 9/11</p>
--	--	--

6. Ergonomia

Ergonomiaren helburua lanerako toki pertsonara egokitzea da (eta ez alderantziz); modu horretan, langilea interakzioan egongo da egin beharrekoarekin eta ingurunearekin, eta lanerako giro egokia izango du.

Informazioa edo zure lantokiaren balorazio ergonomikoa behar izanez gero, jarri harremanetan Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloko arduradunarekin.

6.1. Lanerako tokiak

Langileak ikastegiko toki finko batean aritzen dira lanean, edo zenbait tokitara joan behar izaten dute lanaren ondorioz; eraikina duten edo ez duten ikastegiko gune horiek guztiak hartzen ditugu lanerako tokitzat.

Prebentzio Zerbitzuan, lantokietan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/97 Errege Dekretua betearazteaz arduratzen gara.

6.2. Ordenagailuaren aurrean lan egitea

Datuak bistartzeko pantaila baten aurrean aritzea da, nabarmen, UPV/EHUko eginkizun arruntena.

Jarduera hori apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuak arautzen du, datuak bistartzeko pantailak dituzten tresnekin lan egiten dutenen gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoak.

7. Psikosoziologia


Psikosoziologiak lanaren edukiaren, haren ingurunearen eta antolakuntzako baldintzen arteko interakzioa aztertzen du, batetik, eta langileen gaitasunak, beharrak, kultura eta lanetik kanpoko egoera pertsonala, bestetik. Izan ere, horrek guztiak, ulertzeko modu eta esperientzien bidez, eragina izan dezake osasunean, errendimenduan eta gogobetetzean.

Haren helburua langileei osasun-kalteak, batez ere psikikoak eta sozialak, eragin diezazkieketen laneko eduki nahiz antolaketarekin lotutako alderdiak lantzea da.

2004. urteaz geroztik, UPV/EHUK eta bertan ordezkariak daukaten sindikatuek jazarpena prebentziko eta hari lotutako kexak konpontzeko hitzarmen bat sinatu zuten.

8. Prebentzioari buruzko prestakuntza: eskubide eta betebeharrak

Prebentzioari buruzko prestakuntza langileen eskubidea eta betebeharra da, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak 19.1 artikuluan ezarritako moduan:

 <p>emari ta zabal zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>10/11</u></p>
--	--	--

Babes-eginbeharra betetzeko, enpresaburuak bermatu beharko du, langile bakoitzak izatea prestakuntza teorikoa eta praktikoa, behar bestekoa eta egokia, kontratua egiteko unean, kontratu modalitatea edo iraupena edozein dela, edota langileak dituen eginkizunak aldatzen direnean edo lan-ekipamenduetan teknologia berriak aplikatu nahiz aldaketak egiten direnean. Prestakuntza langile bakoitzaren lanpostu edo eginkizunaren araberkoa izan beharko da, eta arriskuen bilakaerari eta ager daitezkeen arrisku berriei egokitu beharko zaie, eta, hala behar izanez gero, aldian-aldian errepikatu beharko da.

Bertaratzea bermatzearen, lanpostuaren eginkizunak betetzeko beharrezkotzat joko den osasun eta segurtasun arloko prestakuntza langile guztien beharretara egokitutako data, ordutegi, formatu eta modalitateetan eskainiko da.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 19.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da:

Aurreko idatz-zatiak aipatu prestakuntza eman beharko da, ahal den neurrian, lanaldian edo, lanaldian ezin bada, beste ordu batzuetan, baina prestakuntzako denbora lanaldiari deskontatuta. Enpresak eman dezake prestakuntza, bere zerbitzuen bidez edo enpresatik kanpoko zerbitzuekin egindako hitzarmenaren bidez; langileek inoiz ez dituzte jasango prestakuntzaren kostuak.

Prebentzio Zerbitzuak badauka jardueren araberkako arrisku-ebaluazioa aintzat hartuta langileek jaso beharreko prestakuntzaren zerrrenda; langileen atarian dago ikusgai.

9. Segurtasun- eta Osasun-batzordea eta Prebentzioko ordezkariak


Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea partaidetzarako kide anitzeko organo paritarioa da, eta haren helburua UPV/EHUko arriskuen prebentzioko planak, programak eta ebaluazioak proposatzea eta aldi-aldi aztertzea da. Era berean, haren ardura da segurtasuneko eta osasuneko politika egoki bat ezarri, mantendu eta hobetuko dela bermatzea.

Campusen arteko Batzordea 18 pertsonak osatzen dute: bederatzi Administrazioak izendatzen ditu, eta gainerako bederatziak sindikatuek izendatutako prebentzio-ordezkariak dira.

Halaber, hiru dira campuseko segurtasun- eta osasun-batzordeak, bat lurralde historiko bakoitzeko.

Sindikatuak izendatzen dituzte euren prebentzioko ordezkariak. Beraz, nahi duzun sindikatura jo dezakezu, ordezkari horien berri izateko.

Sindikatuak	Arabako luzapenak	Gipuzkoako luzapenak	Bizkaiko luzapenak
CSI-CSIF	—	(13) 8437	(14) 2439
CC.OO.	(15) 3399/3320	(13) 8433	(14) 2437
FETE-UGT	(15) 3396	(13) 8434	(14) 2441
LAB	(15) 4374	(13) 8435	(14) 2436
STEE-EILAS	(15) 3397	(13) 8436	(14) 2435
ELA	(15) 3398	(13) 8432	(14) 2442

 <p>emari ta zabai zazu</p> <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Komunikazioa eta informazioa</p>	<p>KODEA PPRL_PR_14.2 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 <u>11/11</u></p>
--	--	--

10. Dokumentazioa

- UPV/EHUren Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana, Gobernu Kontseiluak 2010eko urriaren 28an onartua.
- UPV/EHUko errektorearen 2003ko apirilaren 7ko Ebazpena, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuaren osaera, antolakuntza eta funtzionamenduari buruzkoa.
- Apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretua, lantokietan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen (BOE, 97. zk., 1997/04/23).
- Apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretua, datuak bistaratzeko pantailak dituzten tresnekin lan egiten dutenen gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.
- UPV/EHUren eta bertan ordezkari dituen sindikatuen arteko hitzarmena, jazarpena prebentzeko eta jazarpen-kexak konpontzeko.
- Campus arteko eta campusetako segurtasuneko eta osasuneko batzordeen funtzionamenduari buruzko araudia.

Dokumentu horiek guztiak eta Prebentzio Zerbitzuari buruzko informazio osagarria gure webgunean daukazu ikusgai: <http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevhm/es/>

PROZEDURA

Izenburua:

Auditoria

KODEA PPRL_PR_15

BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30

1/6

15

Auditoria

PROZEDURA

Izenburua:

Auditoria

KODEA PPRL_PR_15


BERRAZTERKETA **000** DATA: **2011/06/30**

2/6

- 15.1. Helburua
- 15.2. Irismena
- 15.3. Definizioak
- 15.4. Jarduera prozedura
 - 15.4.1. Auditatu beharreko elementuak
 - 15.4.2. Auditatzeko metodologia
 - 15.4.3. Auditoriako txostena
 - 15.4.4. Auditoriaren emaitzak erregistratzea
 - 15.4.5. Arauzko auditoriaren maiztasuna
- 15.5. Neurri zuzentzaileen eta hobekuntza neurrien jarraipena
- 15.6. Erreferentziak
- 15.7. Eranskinak

Eranskinak

- 1. eranskina. Auditoriako Azken Txostena

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA Izenburua: Auditoria</p>	<p>KODEA PPRL_PR_15 BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30 3/6</p>
---	---	---

15.1. Helburua

Prozedura honen bidez UPV/EHUko Laneko Arriskuen Prebentzio Sistema ebaluatzeko sistematika ezarri nahi da, sistemaren eraginkortasuna baloratzeko, indarreko araudia ez betetzea eragin dezaketen gabeziak detektatzeko, eta sistema hobetzeko eta perfektionatzeko erabakiak hartzen laguntzeko.

15.2. Irismena

Prozedura hau UPV/EHUko jarduera-arlo guztietan aplikatuko da, Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren betetze maila eta eraginkortasuna egiaztatzeko garaian.

15.3. Definizioak

AUDITORIA: 604/2006 Errege Dekretuak aldatu zuen Prebentzio Zerbitzuen Araudiaren arabera, UPV/EHUko Laneko Arriskuen Prebentzio Sistemaren irudi zintzoa ematea helburu duen kudeaketa-tresna da auditoria. Hala, sistemaren eraginkortasuna baloratu daiteke, indarreko araudia ez betetzea eragin dezaketen gabeziak detekta daitezke, eta sistema hobetzeko eta perfektionatzeko erabakiak hartzen lagun daiteke.

AUDITOREA: Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren auditoriak egiteko beharrezkoa den prestakuntza duen pertsona, pertsona-taldea edo organismoa.

OSALAN: Bere eskumenen arloan, Herri Administrazioetako auditoriak egiteko ardura duen institutua.

15.4. Jarduera prozedura


15.4.1. Auditatu beharreko elementuak

Auditoriaren bidez, Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren analisi sistematiko, dokumentatu eta objektiboa egingo da.

Prebentzio-jarduerak eta beren plangintzak araudi orokorra betetzen dutela egiaztatuko da, eta ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta, dagozkion arrisku espezifikoei buruzko araudia betetzen dutela ere bai.

Era berean, Unibertsitateak dituen edo hitzartu dituen baliabideak prebentzio-jarduerak burutzeko behar diren prozeduretara eta bitartekoetara egokitzen ote diren aztertuko da, kontuan hartuta, gainera, nola antolatuta edo koordinatuta dauden.

Orain arte adierazitako guztiaren arabera, Laneko Arriskuen Prebentzio Planaren ezarpenaren eta aplikazioaren bidez UPV/EHUko kudeaketan prebentzioa modu eraginkorrean integratuta ote dagoen baloratuko da (unibertsitateko jardueren multzoan zein maila guztietan), eta UPV/EHUko Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema bertako jarduera-fase guztietako arriskuak

 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Auditoria</p>	<p>KODEA PPRL_PR_15</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;">4/6</p>
--	--	--

saihesteko, identifikatzeko, ebaluatzeko, zuzentzeko eta kontrolatzeko eraginkorra ote den baloratuko da.

15.4.2. Auditatzeko metodologia

Auditoria egiteko garaian, ezarritako arau teknikoak edo ezar daitezkeenak bete beharko dira, eta Campus arteko Osasun eta Segurtasun Batzordean langileengandik jasotako informazioa kontuan hartu beharko da.

Erabilitako prozedura gorabehera, erreferentziako metodologiak edo prozedurak honako atal hauek izan beharko ditu gutxienez:

- a) Laneko Arriskuen Prebentziorako Planarekin, arriskuen ebaluazioarekin eta prebentzio-jardueren plangintzarekin zerikusia duten dokumentuen eta UPV/EHUko antolakuntzari eta jardueri buruzko edozein daturen analisia.
- b) Aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazioak unibertsitateko prebentzioaren egoera zehazki islatzen duela egiaztatzea helburu duen landa-analisia. Beharrezkoa denean, laginketa-teknikak erabil daitezke analisi hori burutzeko, eta betiere, lanpostuak bisitatuko dira.
- c) Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema laneko arriskuen prebentziorako araudira egokitzen ote den egiaztatzeko ebaluazioa.
- d) Laneko Arriskuen Prebentzio Sistemaren eraginkortasunari buruzko ondorioak. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 18.2 artikulua araberako, enpresaburuak langileei aholkua eskatu beharko die eta langileek auditorian parte har dezaten onartu beharko du, Legeko V. kapituluaren xedatutakoarekin bat etorriz.


15.4.2.1. Arauzko auditoria-OSALAN

UPV/EHUK prebentzio-jarduerak bere baliabideekin egiten dituenaz, OSALANek bere prebentzio-sistemaren auditoria publikoa egin dezan onartu beharko du.

Auditoriaren azken txostena Campus arteko Osasun eta Segurtasun Batzordean aurkeztuko da. Azken txostena egiten eta banatzen denean, auditoria amaitutzat joko da.

15.4.2.2. Borondatzeko auditoria

Arauzko auditoriaz gain, komenigarritzat jotzen dituen barne-auditoria guztiak egin ditzake Campus arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeak, UPV/EHUko prebentzio-sistemaren eraginkortasuna egiaztatze aldera. Horretarako, auditoria orokorrak (Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren gainean) edo auditoria espezifikoak (prozeduren gainean) egin daitezke.

 <p> Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Auditoria</p>	<p>KODEA PPRL_PR_15</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>5/6</u></p>
---	--	---

15.4.3. Auditoriako txostena

Auditoriatik ateratako ondorioekin Auditoriako Txostena idatziko da. Bertan, auditoriaren irismena azalduko da, eta UPV/EHUko Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren eraginkortasuna aztertuko da, indarreko araudian ezarritako eskakizunen arabera.

15.4.4. Auditoriaren emaitzak erregistratzea

Auditoria amaitu ondoren, auditoriako txostena, auditoriaren ostean proposatutako neurri zuzentzaileak, eta Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren auditoria egin izanaren ziurtagarria erregistratuko dira.

15.4.5. Arauzko auditoriaren maiztasuna

Arauzko auditoriaren maiztasuna indarreko legedian ezarriko da. Gaur egun, UPV/EHUK lau urtean behin egin behar izaten du arauzko auditoria.

15.5. Jarraipena eta hobekuntza ekintzak

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak prozedura honetatik eratorriko diren prebentzio-neurrien jarraipena kudeatuko du, PPRL_PR_04 prozedurako (Prebentzio-neurrien jarraipena) ildoari jarraituz.

Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemako prozedura guztietako informazioa bildu beharko da.


Prebentzio Zerbitzuak, auditorietatik eratorritako neurri zuzentzaileen edota prebentzio-neurrien ezarpenaren jarraipena egingo du, eta neurriok bete daitezzen zainduko du. Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak jakinaren gainean egon beharko du. Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean auditorien jarraipena egingo da, aurkitutako gabezien garrantzia aztertuko da, eta abiatutako ekintzen betetze maila eta eraginkortasuna analizatuko dira.

Adierazleak

Campus arteko Batzordearekin elkarlanean, Prebentzio Zerbitzuak adierazle komun batzuk lantzeko ditu, UPV/EHU Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan zer egoeratan dagoen kuantifikatzeko.

Besteak beste, honako adierazle hauek gomendatzen dira:

- Istripuen eta gorabeheren indizeak.
- Objektiboen betetze mailaren indizeak (egindakoa/aurreikusitakoa, ehunekotan).
- Neurri zuzentzaileen betetze mailaren indizeak (egindakoa/aurreikusitakoa, ehunekotan).
- Emtzen eraginkortasun-indizeak (istripu-indizeen beherakada, denboraldiaren amaierako indizea/hasierako indizea).
- Neurri zuzentzaileen eraginkortasun-indizeak (hondar-arriskua/hasierako arriskua).

 <p> Universidad del País Vasco </p> <p> Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Auditoria</p>	<p>KODEA PPRL_PR_15</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>6/6</u></p>
--	--	---

15.6. Erreferentziak

— 604/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 19koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua aldatzen duena, eta 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen.

15.7. Eranskinak

— 1. eranskina: Auditoriako Azken Txostena.

 <p> Universidad del País Vasco </p> <p> Euskal Herriko Unibertsitatea </p>	<p>PROZEDURA</p> <p>Izenburua:</p> <p>Auditoria</p>	<p>KODEA PPRL_PR_15.1</p> <p>BERRAZTERKETA 000 DATA: 2011/06/30</p> <p style="text-align: right;"><u>1/1</u></p>
--	--	---

I. eranskina. Ikuskaritzaren txostena

Txostenak alderdi hauek izango ditu:

Ikuskapen mota

- Laneko Arriskuen Prebentzioko Sistemak arautua.
- Borondatezkoa.

Ikuskapenaren hedadura

Ikastegia, tokia, prozedurak...

Ikuskariak

Izen-abizenak eta karguak

Data

Aztertutako alderdiak

Adostasuna

Bai/Ez

Proposatutako hobekuntza- edo zuzentze-neurriak

